goiena
Zu hemen zaude.
2024-12-13 EGUBAKOITZA / 1.061. ZENBAKIA / 24. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

GABONETAKO JAKIEK NABARMEN EGIN DUTE GORA

Arrainak, arkumea, txerrikumea, angulak... garestitu dira gehien, oraingoz. Tokiko merkatariak prezioen bilakaerari begira daude, Gabonetan kontsumitzaileen erosketa-ohituretan eragin dezakeelako / 2

Arrasateko Eguren arrandegia, atzo.

IMANOL SORIANO

Elgetako Arantzeta baserriko 'Kaxilda' izango da Donostiako San Tomas feriako txerria / 27

Foru Aldundiak Avanzarekin duen kontratua ez berritzeko eskatu dute alkateek / 4

Keinu solidarioa izango du aurten santamas krosak; domeka goizean jokatuko dute / 32

'Amama' ikuskizuna egingo du Aukeran dantza konpainiak zapatuan Seminarixoan / 23

Azken borondatea, zelan hil erabakitzeko

Unai Ugalde biologoari elkarrizketa

SINADURAK

MIKEL GOENAGA / 22
ESTEPAN PLAZAOLA / 6
ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 29
RAMON UGALDE / 9
MIKEL BIAIN / 40

Bezero bat Aretxabaletako Areder arrandegian erosketa egiten, aste honetan. JONE ARRUBARRENA

Gabonetako jakiek %50 egin dute gora 10 urtean

Kontsumo handieneko urte-sasoia iritsi da, eta, beste behin, gora egin dute Gabonetan gehien kontsumitzen diren produktuetako batzuek. 2023arekin alderatuta, %5ekoa izan da igoera. Bailarako merkatariek zein kontsumitzaileek igarri dute garestitzea

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Gabonetarako erosketak egitea duela hamar urte baino %50 garestiagoa da orain. Hori jakinarazi du OCU kontsumitzaileen elkarteak. Jakina da Gabonetan gehien erosi ohi diren jakien prezioak igo egiten direla urtearen amaieran, baina, oinarrizko prezioak ere igo direla kontuan hartuta, Gabonetako igoera hori are eta handiagoa da aurten.

OCU kontsumitzaileen elkarteak Gabonetako bazkarietan eta afarietan ohikoak izaten diren hamasei jakiren prezioen inguruko informazioa eman du. Hamasei produktuetatik hamarrek izan dute prezio igoera. Horien artean, arkumearen, txahal-biribila, granadaren, ananaren eta bisiguaren prezioak maximo historikoetan daude –bisigua, esaterako, duela 9 urte baino %200 garestiagoa da–. Ostrak ere %19 garestiagoak dira aurten, eta granadak %17ko prezio igoera izan du. Arkumea, berriz, %16 garestiagoa da.

Igoera Debagoienean ere

Debagoieneko merkatariek eta ekoizleek ere igarri dute aldaketa. Prezio igoera nabarmen igarri dute, esaterako, Arrasateko Ezkiña tabernako jabeek. Arkume eta txerrikume erreak, behi-masailak, kroketak zein arrain-zopa eskaintzen dituzte Gabonetan. Aurten, ordea, arkumea eta txerrikumea ez dituzte izango, produktu horien prezio igoera dela eta. "Orain arte, arkumea, esaterako, hirurogei euro inguru ordaintzen genuen, eta gero, laurogei euroren bueltan saltzen genuen guk. Orain, ordea, laurogei euro ordaindu beharko genuke arkume gordinagatik. Txerrikumea ere hogeita hamar euro igo da buruko", azaldu du tabernako jabe Gurutze Villarrek. Esan du "inbertsio handiegia" egin beharko luketela, eta, gainera, ez dakitela jende nahikok erosiko dien.

Gazta eta esne ekoizleak dira Eskoriatzako Atxalde baserrian, baina badituzte arkumeak ere, eta saltzen dituzte Gabonetan. Azpiproduktu bezala dituzte. "Ez da hain errentagarria; ez dakit produktu izatera inoiz helduko den", azaldu du Asier Sagastak.

Jakinarazi du kilo bakoitzeko 6,05 euro ordaindu diela aurten handizkariak –iaz 5,85 euro–, eta partikularrei saltzeko "konplikazio sanitario handiak" daudela. Ekoizlearendako igoera bat egon da, baina txikia izan da. "Beharrezkoa zen. Joan den hogeita hamar urteotan arkumearen prezioa mugitu gabe egon da, bizitzaren prezioa igotzen ari zen bitartean –pentsua, argindarra, erregaiak…–". Gaineratu du gero eta arkume ekoizle gutxiago daudela, eta horrek ere eragina izango zuela eskaintzaren eta eskaeraren arteko lehia horretan.

MERKATARIEK DIOTE URTE OSOAN IZAN DELA PREZIO IGOERA; ORAIN, GABONETAKOA GEHITZEN DA

Merkatarien inpresioak

Jendea hasi da jada Gabonetako erosketak egiten, baina oraindik nahiko lasai dago Aretxabaletako Areder arrandegia, haren jabe Aitziber Gaunak adierazi duenez. Igartzen da Gabon giroa; argitxoek argitzen dute denda, eta kartel bat dago horma batean: *Gabonetako enkarguak hartzen dira*. Hala ere, Gabonetako prezio igoera oraindik ez du sumatu Gaunak; ez oraindik, behintzat: "Igo, ez da igo oraindik. Kontua da aurten prezio altuak urte osoan egon direla. Garesti daude gauzak. Egun batzuk barru, are gehiago igoko da guztia, seguruenik. Kokotxak, legatza, almejak, bisigua eta angulak izan ohi dira bezeroek Gabonetan gehien erosten dizkiotenak. Hala ere, azken hilabeteetako prezio igoerak eragin negatiboa izan du erosketetan: "Jendeak ez du horrenbeste erosten. Lehen kilo bat angula erosten bazuten, orain kilo erdi erosten dute".

Bergarako Igarza harategian ere igarri dute prezio igoera, bertako jabe Andoitz Igarzak adierazi duenez: "Urteroko kontua da". Hala ere, adierazi du ez dela prezio igoera horren aldekoa: "Ez diot zentzurik ikusten. Hamabost egun pasatzen direnean, prezio guztiak jaitsiko dira berriro. Gabonak hori dira: kontsumismoa topera. Eta gure sektorean asko igartzen da". Beste hornitzaile batzuei erosten dizkieten produktuen prezioak igo behar izaten dituzte, baina produktu gehienak eurek ekoizten dituztenez, horiek prezio berean mantentzen dituztela adierazi du.

Eskoriatzako Martin fruta-dendako Miguel Perezek, ordea, oraindik ez du prezio igoera askorik igarri. "Eskariaren arabera aldatzen da prezioa. Eta anana, adibidez, jada ez da horrenbeste eskatzen Gabonetan".

Erosketa arduratsua

Kontsumobidek kontsumo arduratsua egiteko gomendatu du. Plangintza egitea funtsezkoa dela azpimarratu dute, eta aholkatu dute aurrekontu bat ezartzeko, produktuen zerrenda aurrez prestatzeko, prezioak konparatzeko, eta tokiko komertzioetan erosteko.

MIGUEL PEREZ
MARTIN FRUTA-DENDA

Frutaren prezio igoera igartzea ez da erraza, astetik astera asko aldatzen delako, Perezen arabera. Hala ere, adierazi du mahatsa asko garestitu dela azken urtean, pipita bakoa kanpotik ekartzen delako. Ananaren prezioa, berriz, berdin mantentzen dela dio.



AITZIBER GAUNA
AREDER ARRANDEGIA

"Normalean, bisigua izaten da Gabonetan produktu garestienetako bat. Aurten, ordea, uste dut angulek kenduko diotela lehen postu hori; oso garesti daude", adierazi du Gaunak. Gabonetarako produktu merkeenak, ordea, lupiak, urraburuak eta itsas zapoak dira.

ANDOITZ IGARZA
IGARZA HARATEGIA

Igarzak azpimarratu du arkumea dela Gabonetan gehien igo den produktua. Hala ere, harategian saldu eta hark ekoizten dituen produktuak –azpizuna, txuleta, xerra...– prezio berean mantenduko dituela adierazi du: "Orokorrean, gure produktu guztiak".

DATUETATIK TIRAKA: ERLIJIO ANIZTASUNA

Sinestun gutxiago, eta erlijio aniztasun handiagoa

Azken hamarkadetan etengabe behera doa erlijio katolikoan sinesten duten biztanle kopurua, eta geroz eta gehiago dira sinesgabeak. Beste mota bateko sinestunak ere badaude: musulmanak, ebanjelikoak eta beste erlijio gutxitu batzuetako jarraitzaileak

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Geroz eta gutxiago dira erlijio bat jarraitzen dutenak, eta gure artean geroz eta handiagoa da erlijio aniztasuna. Horiek izan dira Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak erlijioaren inguruan egindako azken ikerketatik atera dituen ondorioak. EAE mailan egin du ikerketa, baina, Debagoieneko datuei erreparatuta, joera bera jarraitzen dute horiek ere. "Orain dela lau hamarkadatik hona, jaitsi egin da katolikoen kopurua, eta handitu, aldiz, sinesgabeena. EAEn, esaterako, 1987an %80 inguru katolikoak ziren, eta gaur egun, %44 eta %57 inguruan dago ehunekoa. 1987an, ordea, %17 ziren sinesgabeak, eta gaur egun, %36 eta 50 artean dira", dio Ane Estebaranzek, Ikuspegiko kide eta ikerketaren egileetako batek. Debagoieneko datuek ere antzerako kopuruak islatzen dituzte: %54,95 dira katolikoak gaur egun, eta %35,12k ez dute erlijioan sinesten. "Zergatik gertatu da hori? Sekularizazio prozesuaren ondorioz", dio Estebaranzek. "1970eko irekiera demokratikoak zein Elizaren eta estatuaren arteko bereizketak fede katolikoaren transmisioa gutxitzea ekarri zuen. Erlijioarekiko desatxikimendu kultural bat gertatu da", dio. Erlijio aniztasuna izan da ikerketan nabarmendu duten beste alor bat. Izan ere, Debagoienean biztanleen %4,74 musulmanak dira, %0,94 ebanjelikoak, %0,49k beste erlijio bat jarraitzen dute, %0,24 ortodoxoak dira, eta, azkenik, %0,05 juduak dira.

Apaiz bat, Biblia irakurtzen. GOIENA

Horiek dira datuak, Debagoieneko biztanleria orokorra kontuan hartuta. Ordea, biztanleria orokor horren barruan, atzerrian jaio direnen artean ere ikertu dituzte kopuruak, eta, hori kontuan hartuta, badago aldaketa zifretan. Katolikoak %39,59 dira; sinesgabeak %11,82, musulmanen kopurua %29ra igotzen da, eta ebanjelikoena %9,55era. Ortodoxoak, berriz, %2,41 dira, beste erlijio batzuetako jarraitzaileak %5,05, hinduistak %0,42 eta budistak %0,22. Estebaranzek nabarmendu du, oro har, jatorri atzerritarra duten debagoiendarren artean erlijiotasuna orokortuago dagoela, Europaz kanpoko beste herrialdeetan erlijioak "pisu gehiago" duelako. Hala ere, azpimarratu du ezin dela "orokortasunetan erori". Kolektibo horren aniztasuna ere nabarmendu du: "Ugariagoa da erlijio aniztasuna atzerrian jaiotakoen artean. Kontuan hartu behar dugu jatorri atzerritarreko pertsonen kolektiboa ez dela homogeneoa; batzuek mantenduko dute erlijiotasuna bizitza osoan, eta beste batzuengan dinamikoagoa izango da erlijioarekin daukaten harremana".

Begizta aurkeztu dute, internet bidezko telebista plataforma

Onarok eta Izarkomek sortu dute plataforma; euskarazko kateak ikusi ahal izango dira bertan

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Internet bidezko Begizta telebista plataforma aurkeztu dute Onaro eta Izarkom telekomunikazio operadoreek. Durangoko Azokan eman zituzten, joan den asteburuan, xehetasun guztiak, hain zuzen, Onaroko arduradun Xabier Igartuak eta Izarkom Euskal Herriko Telekomunikazio Kooperatibako zuzendari Iker Garaialdek.

Azaldu dutenez, helburua da Euskal Herrian eta euskaraz emititzen duten telebista kanal guztien bilgunea izatea, eta bertan ikusi ahal izango dira, besteak beste, ETB, HamaikaTB, Goiena, Kanaldude eta Xaloa.

Izarkomeko kide Iker Garaialdek dio euskarazko tokiko telebistak euskal herritar guztiengana heltzeko zubia izango dela Begizta, eta, aldi berean, herritar guztiei Euskal Herrian sortzen den eduki guztietarako sarbidea eskainiko diela.

Aurkezpena, Durangoko Azokan. GOIENA

Begizta web bidezko nabigatzaile bidez edo telebista adimendunetan ikusteko moduan izango da, urtarrilaren 2tik aurrera, Internetera konexioa duen edozein gailuren bidez.

GREMIOAK

LOREZAINTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa
D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 /
616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

Avanza enpresari ezetz esan diote alkateek

Foru Aldundiak Avanzarekin duen kontratua amaitzear da, eta, horren ondorioz, Debagoieneko alkateek eskatu dute ez luzatzeko eta "zerbitzuan hobekuntzak" jasoko dituen kontratu berri bat onartzeko. Batzar Nagusietan eztabaidatu dute gaia

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Debagoieneko Gipuzkoako herrietako 8 alkateak elkartu dira Arrasateko Zalduspe geralekuan eta adierazi dute autobus zerbitzuaren "erabilerak gora" egin duela azken urteetan, eta "kalitateak, nabarmen behera"; horren erakusgarri: autobusen egoera, matxurak, puntualitaterik eza, jendez lepo doazen autobusak hartu ezinik geratzen diren erabiltzaileak…

Uste dute eskualdearen mugikortasun beharrak ez dituela egoki erantzuten zerbitzu horrek, eta, horregatik, "kalitatezko garraio publikoa" ezartzeko aukera orain aprobetxatzeko eskatu diote Aldundiari: "Ez litzateke ulertuko Diputazioak egungo kontzesioaren iraupena luzatu nahi izatea". Horregatik, baldintza berriak ezarri eta kontratu berria egiteko eskaera egin diote Aldundiari.

Aldundiko Mugikortasun Departamentuari dagoeneko helarazi dizkiote hainbat proposamen. Lehenbailehen egin beharreko hiru esku-hartze hauetan bildu dituzte eskaerak: herrien arteko loturaren maiztasuna hamabost minutukoa dela bermatzea, herrien arteko linea azkarrak jarrita eta linea batzuen kapilaritatea zabalduta; hiriburuekin dauden loturak hobetzea; eta puntualtasuna bermatzeko neurriak hartzea. Azken horri dagokionez, ekarpen batzuk ere egin dituzte: zerbitzua emateko autobus kopurua egokitzea, autobusen baldintza tekniko egokiak bermatzea eta Elorregi eta Epeleko biribilgunearen artean autobusentzako errei propioa ezartzea.

Debagoieneko alkateak, astelehenean egin zuten agerraldian. GOIENA

ERABILERAK GORA EGIN DUEN ARREN GARRAIOA GEROZ ETA KAXKARRAGOA DELA ESAN DUTE

Batzar Nagusietan

Gaia eztabaidagai izan dute asteon Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Bertan izan dira Arrasate, Oñati eta Aretxabaletako alkateak. EH Bilduk zenbaitetan galdera egin izan dio Foru Aldundiko Mugikortasuneko diputatu Azahara Dominguezi gaiaren inguruan, eta arazoak konpontzen ez direla ikusita, Batzar Nagusietako osoko bilkurara ekarri du gaia.

Avanzako langileak, greban

Avanzako langileak protestan dabiltza urria ezkero. Hainbat lanuzte egin dituzte azaroan, baita joan den astean ere. Protesten bitartez, Langile Batzordeak autobusen mantentze-lan kaskarra salatu du. Horrez gain, adierazi dute hitzarmeneko 35 puntu aldatzeko eskatu zutela, eta, azkenean, patronala horietatik bakarra aldatzeko prest agertu dela. Hain zuzen ere, aldarrikapenen artean dute 35 orduko lanaldia ezartzea, KPlaren araberako soldata igoerak izatea, errelebo-kontratua ezartzea eta behin-behineko langileentzako lan-poltsa bat arautzea. UGTk eta CCOOk, horrez gain, eskatu dute erretiroa 60 urtera aurreratu ahal izatea. Azken grebarekin langileen "ia %100ek" egin zuten bat, Enpresa Batzordearen arabera; 300 langile zeuden deituta.

Greba gehiago

Aldarri horiek egiteko eta euren egoera salatzeko, mobilizazioa egin zuten Eibarren abenduaren 5ean, ELAk, UGTk, LABek eta Aurrerak deituta; eta gehiago egingo dituzte aurrerantzean, "aurrerapausorik egon ezean" greba egingo baitute hilaren 9an, 20an, 21ean eta 22an.

Gurutze Gorriko boluntarioak, jostailuak prestatzen. GURUTZE GORRIA

'Jostailu hezitzailea' kanpaina martxan jarri du Gurutze Gorriak

Jostailuak dohaintzan emateko aukera egongo da, zaurgarritasun egoeran dauden 277 haurri banatzeko

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Aurten ere *Jostailu hezitzailea* kanpaina jarri du abian Gurutze Gorriak Debagoienean. Haren bidez, ibarrean zaurgarritasun egoeran edo gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden dauden 277 umeri jostailuak banatuko dizkiete Gabonetan. Horrez gain, erakundeak adierazi du kanpainak "helburu hezitzailea" duela, jolasak "norberaren nortasunaren garapenean eta pertsonen arteko harreman positibo eta eraikitzaileetan duen garrantziaz" sentsibilizatzeko. 25 boluntario baino gehiago ibili dira kanpainan lanean, eta bi fasetan banatu dute: lehenengoan, jostailuak bilduko dituzte dohaintzan; besteak beste, supermerkatuetako sarreretan. Bigarrenean, gizarte zerbitzuekin lankidetzan, identifikatutako familiei banatuko dizkiete.

Gaur bertan, ostirala, egingo dute jostailu bilketa bat Arrasateko Eroski hipermerkatuan, eta bihar ere bertan egongo dira, Arrasateko Garagunearekin batera. Jostailuak zuzenean dohaintzan eman daitezke, eta jostailu-txekeak erosteko aukera ere izango da.

Elkartasun ekimena Arizmendi Ikastolatik Arberoa Ikastolara

Urrian erre zen Nafarroa Behereko Arberoa ikastola. Sutearen kalteak arintzeko, dirua bilduko dute

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Nafarroa Behereko Arberoa Ikastolari babesa emateko elkartasun ekimen bat antolatu du Arizmendi Ikastolak, gaurko. Urriaren 28an sute bat izan zen Donamartiri herriko Arberoa Ikastolan, eta kalte handiak egin zituen, bulegoak zein ikasgelak kiskalita. Gertaera hark "elkartasun dinamika gogoz eta indarrez berrartzera" eraman du Arizmendi Ikastola, ohar batean adierazi duenez. Hori horrela, *Sua itxungi elkartasuna ixotu* lelopean, ekitaldiak antolatu dituzte gaurko, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Hiru herrietan txistorra eta edaria izango dute salgai, eta zozketa bereziak egingo dituzte, eta *Elkartasun tanta* dinamika egingo dute. Zehazki, Eskoriatzan herriko plazan egingo dute ekimena; Aretxabaletan, Mitarte kalean; eta Arrasaten lau gune izango dituzte: Arimazubi plazan, San Andresen, Biteri plazan eta San Isidro ermita ondoan. Esandako moduan, lortutako irabaziak Arberoa Ikastolara bideratuko dituzte.

ARETXABALETA

BEROA OKINDEGIA - Basabe Kalea, 2
DANONA OKINDEGIA - Durana, 2
BEROA OKINDEGIA - Loramendi, 6

ELGETA

UGARI DENDA - Andra Mari Plaza, 2

hazi

EUSKO JAURLARITZA
ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN, DESARROLLO RURAL, AGRICULTURA Y PESCA

ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

Elkar mugituz egingo dugu

Alkar, *arkal*, *elkar*… *Ahotsak.eus* webgunearen arabera, *alkar* da Debagoienean nabarmen erabiliena, baina *arkal* ere esaten dute batzuek, eta baita *elkar* ere.

Elkar izan liteke euskarazko izenordain emankorrenetako bat. *Elkar* du izena euskal argitaletxe eta liburu-denda kate handienak.

Alkar Lankidetza Gunea dugu Bergaran, herriko eta Debagoieneko ekintzaileei lanerako espazio partekatua eskaintzen diena.

Alkartu nai izan zen haren aurretik 70eko hamarkadan, Bergaran garrantzi berezia izan zuen elkartea. Hari esker lortu ziren bere garaian herrian anbulantzia, Aransgi gorren eskola, Gureak tailerrak, Aspace, alargunen elkartea, zaharren egoitza eta beste hainbat zerbitzu. Haren bultzadaz berritu zen herriko udal korporazioa, gero Alkateen Mugimenduan protagonismo berezia izango zuena.

EUSKARAREN ALDEKO SARE ZABAL BAT ERAIKITZEKO AUKERA APARTA; ZU ERE ANIMATZEN ZARA?

Arrasaten, 70eko hamarkadan, *Alkartu* elkarte gastronomikoa sortu zuten, frankismo osteko lehena.

Oñatin *Elkar Hezi* ikastetxea dute 80ko hamarkadaren amaieraz geroztik eta *Elkarzabal* integraziorako elkartea orain dela 10 urtetik, pertsonen prestakuntza eta laneratzea sustatzen duena.

Aretxabaletan *Elkargest* aplikazio informatikoa sortu zuten mende honen hasiera inguruan, gaur egun ehunka elkarte gastronomikok beren kudeaketarako erabiltzen dutena.

Abel Muniategiren hitzekin Benitok kantatzen duen kanta batek honela dio: *Zenbat gera?, lau, bat, hiru, bost, zazpi. / Zer egin degu?, ezerrez, / zer egiten dugu?, alkar jo, / zer egingo degu?, alkar hil?.* Munduak duen itxurarekin, kezkatzeko arrazoiak badaude.

Guk bizitzaren alde egin nahi dugu, elkarrengana bilduz, elkar ezagutuz, elkarri entzunez, elkar lagunduz, elkar elikatuz, elkarri eraginez…

Hemen da Euskaraldia. *Elkar mugituz egingo dugu* dakar lelotzat. Euskararen aldeko sare zabal bat eraikitzeko aukera aparta. Zu ere animatzen zara?

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE

HANDIK ETA HEMENDIK

Jaitsi aurretik, eskerrak

ANER EUZKITZE

'BERRIA'-N ARGITARATUA

HTTPS://LABUR.EUS/VPGQD

Noriara igo denari ez galdetu ea noriak pegatzen ote duen hiri horretan: noriatik ez da noria ikusten. Noriatik itsasoa ikusten da, hondarra, irla, olatuak, baranda, mendiak, etxeak, mundruna. Noriarik gabe ere ikus daitezke horiek guztiak, baina nondik begiratu jakin behar. Nik beste mila gauzaz idatzi nahi nuen, baina iruditu zait ezin nuela besterik egin. Norian nago eta ezin dut mugimendu hau normalizatu, ezin dut ez baneki bezala jokatu, eta agian ez dut nahi. Udaberrian hasi nuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, eta etzi amaituko dut. Barregura ematen dit orain, baina ze luzea. Hau ere idatzi nahi nizuen.

Bertsokideak. Lagunak. Bertsokide izan zaretenak. Zaretenak. Bertsolaritzak inporta ez baina besterik jasan ez duzuen kideak. Saioa baino bost egun lehenagotik hasita animo-mezuak bidali dizkidazuenak. Saioaren ondoren zermoduz-mezuak bidali dizkidazuenak. Telefono-deiak eta bideo-deiak. Besarkatu nauzuenak.

Etxera entrenatzera etorri zaretenak. Etorri direnean etxean zeundetenak. Etxeak eskaini dituzuenak. Gaiak audioz bidali dizkidazuenak. Garajeak. Sofak. Txokoak. Salak. Elkarteak. Kultur-etxeak. Gaztetxeak. Ganbarak. Euskaltegiak. Koadernoak. Kotxe-gidariak. Kafe-hartzaileak. Gosari-kideak. Zinema-lagunak. Gominola-erosleak. Doinuak hautatzen lagundu didazuenak. «Polita da baina gaizki geratzen zaizu» esan duzuenak. Doinuei buruz, arropei buruz.

Outfiten aholkulariak. Kritikoak. Arropen link-bidaltzaile konpultsiboak. Makilatzaileak. Erosketetara lagundu nauzuenak. Zuen etxeko armairua, maleta ireki dizkidazuenak. Jertseak eraman dituzuenak gradak okupatzeko. [...]

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube, Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia



Aurten, Eneritz Larrea argazkilari elgetarrak egin du urte berria zoriontzeko Goienaren mezurako artelana:
Aniztasunak daukan aberastasuna.

Hauxe da urte berrirako Eneritzen desioa:
"Udazkenean zuhaitzek oso paisaia polita eskaintzen digute.
Zuhaitz bakoitza kolore batekoa izan arren, guztien artean harmonia eder bat osatzen dute.
Gure gizartean aniztasunak eskaintzen digun aberastasuna bezala".

2025 on guztioi!

Aniztasunak daukan aberastasuna
Argazkiaren egilea: Eneritz Larrea
Foku-distantzia: 200 mm
Esposizioa: 1/200 segundo; f/16; Iso 250

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Santamasetako egitaraua aurkeztu du Komisiñuak

Bihar, zapatua, abiatuko da santamasetarako prestatu duten ekintza sorta, eta urtea amaitu bitartean ez dute aspertzeko aukerarik izango arrasatearrek; era berean, Iban Galan 'Desegin' artista arrasatearrak diseinatu duen kartela ere aurkeztu dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Beteta datoz 2024ko santamasak. Berrikuntza moduan, esaterako, borobileko dantza parte-hartzaileak berreskuratu nahi izan dituzte aurten, "haurrak dantzatzera animatzeko". Bihar egingo dute saioa, Herriko Plazan, 13:00etan. Horretarako, Txikitxu-Arrostaitz eta Lore Gazteak dantza taldeetako kideen laguntza izango dute, eta, Udalaxpe txistulari taldeari eta Arrasateko trikiti eskolari esker, musika zuzenean izango da.

Santamas egunaren bezperan, artzain txakurren erakustaldia egingo dute Kondekuan, 12:30ean, Gipuzkoako Artzain Txakur Elkartearekin lankidetzan eta Jose Ramon Garcia artzainak gidatuta. Artzain txakurrak trebatzeko prozesuaren berri emango dute: txakurkume gaztetxoen sena nola indartzen den, oinarrizko aginduak nola erakusten zaizkien, txakurrak artzaintzan duen funtzioa zein den, bertako arrazaren ezaugarriak eta arrazok zaintzearen garrantzia eta abar.

Egun berean, bertso jaialdia ere izango da, AEDk antolatuta. Aurtengo berrikuntza da Amaia antzokian egin beharrean Juan Arzamendi Musika Etxean egingo dutela, 19:30ean hasita, eta Andoni Egaña, Alaia Martin, Ane Zuazubiskar eta Aitor Tatiegi ariko dira bertsotan, Olatz Zuazubiskarren gaiei erantzunez. Sarrerak salgai daude dagoeneko, *Arrasate*.eus webgunean, hamar eurotan.

Santamas Komisiñoko kideak eta udal ordezkariak, kartelarekin. SANTAMAS KOMISIÑUA

Aurtengo txerria: 'Gurutze'

Abenduaren 22ko protagonista, ohi legez, txerria izango da. Aurtengoak *Gurutze* du izena, 228,6 kilo inguru ditu, euskal txerriaren eta iberiar jatorrikoaren arteko nahastea da eta Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña aurrekoa baserrian hazi dute Luis Mari eta Ibai Alberdi aita-semeek.

Hegaztiak bueltan datoz

Herriko kaleetan askotariko postuek egingo dute bat santamas egunean. Ganadu feriari dagokionez, Arizmendiarrieta plazan jarriko dute, eta aurten hegaztiak berriro ikusi ahal izango dira, "aurreko urteetako gaitzak gaindituta". Haiekin batera izango dira behiak, pottokak, moxalak, behorrak, idiak, astoak, ardiak, ahuntzak, txakurrak eta beste hainbat.

Erakustaldiak ere izango dira, azken urteetan legez. Mikel Velasco artzain arrasatearrak artilea zelan moztu erakutsiko du, bi txandatan, 11:00etan eta 13:00etan. Eta Juan Ignacio Regorigok zaldiak nola ferratzen diren erakutsiko du, 12:00etan.

Artisau azoka bihar eta etzi

Eskuartean elkartearen eskutik, artisauen azoka egongo da Seber Altube plazan bihar, etzi eta abenduaren 23an. Haien produktuak saltzeaz gain, hiru ikastaro egingo dituzte karpan bertan: *Zentzuak piztuz, Zianotipia* eta zeramika saioa.

Era berean, hilaren 22an ere artisauak elkartuko dira, eta haiek nola lan egiten duten ikusteko eta haien lanak erosteko aukera egongo da, Jokin Zaitegi plazan. Aurten, gainera, plaza hori "indartu" egin nahi izan dute, eta postu gehiago egongo direla iragarri du Komisiñuak. Ekintza berezien artean, esaterako, forja erakustaldia egongo da.

Zaldibarren herri kirolak

Zaldibar frontoian herri kirol erakustaldia egingo dute santamas egunean. Modu horretan, Karmele Gisasola eta Oier Kañamares Uxue Ansorregiren eta Julen Kañamaresen aurka ariko dira –datorren astean santamasei buruzko informazio osatua argitaratuko du aldizkari honek–.

Aire-neurketa egingo dute, Ederlanen kutsadura neurtzeko

Arrasateko Udalak "aire-neurketa independentea" egingo du, urtebetez, Uribe auzoan, Ederlanek sortzen duen aire-kutsadura neurtzeko helburuarekin. Hango bizilagunek "urte luzez" egindako eskaera bat dela dio Udal Gobernuak, eta, hala, bi makina mota jarri dituzte, partikulak neurtuko dituztenak. Makina mota batek partikula esekiak neurtuko ditu, suspentsioan daudenak. Partikula horiek neurtzeko gailua Itxaropena plazan jarri da – Laubide plazan dagoenaren modukoa–. Beste makinak, partikula jalkigarriak neurtuko ditu: bi kaptadore jarri dira: bata Jokin Zaitegi plazan eta bestea Alecop inguruan.

Batzar Nagusien eskaria Udalatxeko gurutzea eraikitzeko

EAJk Gipuzkoako Batzar Nagusietara eraman du Udalatxeko gurutzea kendu izana gaitzesteko eta jatorrizko kokalekuan berreraikitzea eskatzeko ebazpen-proposamena. Aldeko 27 botorekin (EAJ, PSE-EE eta PP) eta kontrako 22rekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) onartu dute. Ander Garay batzarkide jeltzaleak adierazi du ekintza "autoritarioa, aldebakarrekoa eta koldarra" izan zela "erasoa". EH Bilduko batzarkide Joxe Mari Carrerek, berriz, "arrasatear batzuen etsipena" ulertzen duela, baina 1971n eraikitako gurutzea ere "erabaki aldebakarrekoz" jarri zela, eta gogorarazi du Udalatx "gune babestua" dela.

Zarugaldeko eta Elmako esku-hartzeak berbagai

Mugikortasun Plana ardatz hartuta, Udal Gobernuak bilerak egin ditu Zarugaldeko eta Elmako bizilagunekin. Zarugaldek egun bizi duen "egoera larria" kontuan izanik, Gobernuak dio hirigintza taktikoa baliatuko duela oinezkoen segurtasuna bermatzeko

Elmako bizilagunekin egindako bilera. ARRASATEKO UDALA

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Mugikortasun Planari ekarpenak egiteko azken astean, Udal Gobernuak parte-hartze eta informazio-saioak egiten jarraitu du. Hain zuzen, Elmako eta Zarugalde kaleko bizilagunekin bildu da. Edozelan ere, bakoitzaren abiapuntua ezberdina izan dela nabarmendu dute udal ordezkariek: "Zarugalde kaleko esku-hartzea Mugikortasun Planean jasota zegoen, eta hori azaldu eta tratatzeko egin dugu bilera. Bestetik, Elman, planean jasota ez dagoen bizilagunen proposamena aztertzeko egin dugu".

Elmari dagokionez, aurreikusita ez zegoen proposamen bat jasotzeko egin dute bilera. "Bizilagunek auzoan duten mugikortasuna birplanteatzea eskatu dute, azken urteetan egin ziren aldaketak hobeto aztertu eta bizilagunen segurtasuna helburu izango duen proposamen berri bat ezartzeko. Prest gaude gaia aztertu eta egin ziren proposamen bideragarritasuna lantzeko", diote Gobernukoek.

Zarugalden, hirigintza taktikoa

Zarugalde kaleak egun bizi duen egoera "larria" dela adierazi zioten bizilagunek Udalari. "Errepidea saihesbide bezala erabili ohi da eta autoak abiadura handian pasatzen direla jakinarazi ziguten. Horrekin lotuta, berehalako esku-hartzeak egitea eskatu zuten bizilagunek. Horregatik, epe ertainean, hirigintza taktikoa baliatuko dugu Zarugalde kalean oinezkoen segurtasuna bermatzeko; izan ere, hirigintza taktikoa oso baliagarria da hirigintzan esku-hartzeak modu errazagoan egiteko, behin betiko obrak egin aurretik, eta hainbat proba egiteko aukera ematen du", adierazi dute udal ordezkariek.

Abenduaren 19ra arte, eguena, ekarpenak egiteko aukera dute herritarrek, modu telematikoan edo BAZen.

NIRE USTEZ

RAMON UGALDE

Autobus geltoki zentral baten alde

Azaroaren 11tik 16ra Arrasateko Udalak kontsulta bat egin zuen, herritarren iritzia jasotzeko autobus geltokiaren kokapenaz. Bi aukera zeuden: Zalduspe edo Laubide (Mondraupe). Biak ere kokapen txarrak; eta Zalduspekoa, okerrena. Boto-emaileak %24ra ere ez ziren iritsi. Beraz, Udalak ez du lortu berak sustatu duen kontsultaren lehenengo baldintza betetzea: parte-hartzea %30 izatea, hain zuzen. Gauzak egin ziren moduan, espero zezaketen Zaldusperen aldeko plebiszitu bat izatea... Baina erroldaren %18 baino ez da lerratu kokapen horren alde. Emaitza hori ontzat ezin da hartu.

Arrasateko herritarrok eta egunero etortzen zaizkigun bisitariek eskubidea daukagu zerbitzu osoagoa emango digun autobus geltoki bat izateko, mondragoetar gehienen eta kanpoko bidaiarien beharrak hobeto beteko dituena, ospitalearen garapenari trabak jarriko ez dizkiona, herriko ehun ekonomikoari lagunduko diona eta ingurumena hobeto zaindu eta berdeguneak gehituko dituena. Abenduaren 19ko mozioan hori konpontzeko ahalegina egingo dugu.

Altxa Burua Arrasateren informazio-bilera

Altxa Burua Arrasatek batzar informatiboa egin zuen abenduaren 11n, Etxaluzen; bertan, gazteen smartphoneen eta bestelako teknologia digitalen erabileraren eraginak jorratu zituzten. Ohitura arduratsuak sustatzeko ekintzak proposatu zituzten

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Altxa Burua Arrasatek, gazteen etorkizuna eta teknologiaren erabileraren eraginak kontuan hartuta, hainbat helburu eta ekimen ditu buruan: mugikorraren erabilera atzeratzea, gurasoak formakuntzara bultzatzea, ikastetxeetan mugikorrik gabeko arnasguneak sortzea eta komunitateko elkarlana indartzea.

Gazteen garapen sozial eta mental errespetuzko eta osasuntsua sustatu nahi dute, komunitate osoa elkarlanean arituz, informazioa banatuz eta ohitura digital arduratsuak bultzatuz. Altxa Burua Arrasatek uste du ezinbestekoa dela gurasoen eta hezkuntza komunitatearen errespetuzko konpromisoa.

Hori dela eta, Altxa Burua Arrasate mugimenduak abenduaren 11rako, Etxaluzen, komunitateko bilera antolatu zuen. Bileraren helburua izan zen gazteen smartphoneen eta teknologia digitalen erabileraren eraginak aztertzea eta komunitateko eragileekin batera horren inguruko konponbideak bilatzea.

Altxa Burua Arrasateren bilera informatiboa, Etxaluzen. S.L.A.

Egindako ekintzak

Altxa Burua Arrasatek hainbat ekimen egin ditu gazteen mugikorraren erabilera murrizteko; Udalarekin, ikastetxeekin eta komertzioekin elkarlanean ari da horretarako.

Horien artean daude Altxa Buruaren aurkezpena, *sites* bat sortzea, *Oparia dirudi* eskuorria banatzea, kartelak eta triptikoak jartzea, pegatinen ekimena komertzioetan eta konpromiso galdetegiak bidaltzea LH-5eko eta LH-6ko gurasoei.

ZEOS Programa

Altxa Burua Arrasatek ZEOS programaren berri eman zuen, gurasoei zuzendutako formakuntza integral bat eskaintzen duena. Psikologiako eta digitalizazioaren arloko aditu profesionalek parte hartuko dute gazteen etorkizun seguru, osasuntsu eta arduratsua iragartzea helburu duen programan.

Horrez gain, komunitateko bestelako ekimenekin elkarlanean jarduteko irizpideak aztertzen ari dira, beste eragile batzuekin proiektuak eta ekintza praktikoak antolatuz, Arrasateko familiei eta gazteei laguntza osatua eskaintzeko.

Bigarren eskuko liburu azoka, Loralde elkartearen eskutik

Abenduaren 14an, zapatua, Loralde elkarteak antolatutako bigarren eskuko liburuen azoka egingo dute. Moterron jauregiaren ondoan izango da, 11:00etatik 15:00etara. Era berean, Debagoieneko hainbat idazle egongo dira liburuak sinatzen.

Otalora Lizentziaduna eta Zarugalde kaleetako hainbat komertziok eta zerbitzuk osatzen dute Loralde elkartea, "komunitate kolaboratiboa" sortzeko helburuarekin: Bim Bam Bum, Branka, Garraxi, Goiena Komunikazio Taldea, Idiomaster, Josle, Richi, Tipi-tapa eta Zapping, hain zuzen ere.

Azaroan, baserritar jantzien desfilea egin zuten, eta orain, Gabonei begira, bigarren eskuko azoka egingo dute. "Uste dugu Gabonetako opari polita eta originala izan daitekeela liburu sinatu bat", nabarmendu dute elkarteko kideek.

'Gabonak... etxean norbait falta denean' hitzaldiaren VIII. aldia

San Felipe Elkarlaguntzak eta Amaidolua Elkarteak *Gabonak... etxean norbait falta denean* hitzaldiaren VIII. edizioa antolatu dute. Abenduaren 17an egingo dute, asteartea, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, arratsaldeko seietan.

Amaidolua irabazi asmorik gabeko elkarteko lehendakari Maite Urzain dolu-terapeuta eta irakasleak egingo du dolua eta Gabonak ardatz dituen berbaldia. Hitzaldiari *Musika bidelagun doluan* ekintza musikatuarekin emango diote amaiera.

"Maite ditugun pertsonak hiltzen direnean Gabonak eta esanguratsuak diren beste data batzuei aurre egiteko jarraibide osasungarriak partekatuko ditugu. Hain zuzen ere, zeure burua kokatzen lagunduko dizugu, gure arteko babesa sortuz", adierazi dute San Felipe Elkarlaguntzakoek.

OHARRAK

Txiki Txokora sartzeko, txartela

Gunearen erabilera hobetzeari begira, sarbide sistema elektronikoa instalatu du Udalak. Hala, Txiki Txokora sartzeko, online eskuratu daitekeen txartela erabili behar da.

Jostailuen truke-merkatua

Biharko, abenduak 14, zapatua, jostailuak trukatzeko azoka antolatu du Txatxilipurdik. Biteri plazan izango da, 11:30etik 13:30era. Jostailuak sortzeko ikastaroa ere egongo da.

Familia-meza San Juan parrokian

Eukaristia familiarra egingo dute domekan, abenduak 15, goizeko hamaiketan.

Aurrekontuan sartzeko 25 ekarpen egin ditu EAJk

Arrasateko alderdi jeltzaleak zenbait proposamen egin ditu 2025eko aurrekontuan txertatzeko. Kiroldegi berriak, Gorostizako igogailua eta autobus geltoki berria Zalduspen, besteak beste, herriko azpiegiturak eta irisgarritasuna hobetzeko asmoz

Arrasateko Euzko Alderdi Jeltzaleko kideak, talde-argazkian. TXOMIN MADINA

Imanol Beloki Unamuno ARRASATE

EAJren udal taldeak 2025eko aurrekontu-proiekturako 25 mozio aurkeztu ditu, udalerriko etorkizunerako funtsezkoak diren lau proiektu estrategikori indarberritze bat emateko helburuarekin: bi kiroldegien berritze proiektua, Gorostizan igogailuak jartzea, Udala Goikoa urbanizatzea eta autobus geltokiaren proiektu berriaren diseinua. "Proposamen horiek herritarren beharrak asetzea, irisgarritasuna bermatzea eta Arrasateko biztanleentzat bizi-kalitate hobea sustatzea dute helburu", azaldu dute oposizioko kideek.

Lau proiektu nagusi

EAJk Udaleko kirol-instalazioen berritze beharra proposatu du. Batetik, Iturripeko kiroldegi berriaren obrak hasteko 1.000.000 euro bideratzea proposatzen du, eta, bestetik, Musakolako kiroldegi berriaren proiektuaren garapenerako 800.000 euro eskaintzea. Beste proposamen bat da Gorostizako igogailu sistemara 1.000.000 euroko aurreikusitako inbertsioarekin auzoko bizilagunek eskatutako premia larri bati erantzutena. Hirugarren proposamena da Udala Goikoa urbanizatzeko 500.000 euro bideratzea, lehen ikerketak eta lanak egiteko. Azkenik, laugarren proposamena da autobus geltoki berriaren proiektura 80.000 euro bideratzea, proiektu berriaren diseinurako.

"Lau proiektu nagusi horiei begirako ekarpenek etorkizuneko Arrasateren ikuspegia islatzen dute: irisgarriagoa den udalerri bat, eta guztien beharrizanetara egokitutako azpiegitura modernoekin. 2025eko aurrekontuak ikuspegi hori eraikitzeko tresna izan daitezen nahi dugu," adierazi du Ander Garayk, Arrasateko EAJren bozeramaileak. Jeltzaleek aurkeztutako gainontzeko proposamenetako batzuk, berriz, honako hauek dira: Mesedetako eraikinaren erosketa, 1.000.000 euro; Monterron parkea berritzeko proiektua, 80.000 euro; komertzioa sustatzeko *Nire Arrasate* proiektua, 100.000 euro; Grupo San Juan berrurbanizatzea, 500.000 euro; eta abar.

Negoziazioak hautsita

Edozelan ere, Arrasateko Udal Gobernuak dio hautsitzat eman dituela negoziazioak. Gobernuaren esanetan, "eduki eta proposamen ia guztietan ados egonda ere", horiek gauzatzeko epeak "eginezinak" ziren.

Xuban Epeldek ez du Mondra futbol taldea zuzentzen jarraituko

Xuban Epelde azkoitiarrak ez du Mondra zuzentzen jarraituko, talde zuri-morearen emaitzak oraindik amaitu ez den lehenengo itzuli honetan ez dira-eta onak izan. Hala, harrobiarekin lanean zebilen Jorge Davilak hartuko du talde nagusiaren ardura.

Azkoagaingo derbian Mondrak jasotako 8-3ko emaitzak eragina izan du klub zuri-morean. Arrasatearren ordura arteko emaitzak ez ziren onak –hamaika puntu hamabi partidutan–, baina azken partidu horrek areagotu egin du ezinegona, eta klub zuri-moreak aste barruan hartu du entrenatzailez aldatzeko erabakia. "Hilabete hauetan egindako lana eskertzen diogu, eta pertsona moduan tipo bikaina dela erakutsi digu, baina erabaki bat hartu beharrean geunden, eta hauxe izan da. Etorkizunean onena opa diogu", adierazi dute klubeko ordezkariek.

25. urteurreneko kontzertua, duela bost urte, Kulturateko klaustroan. GOIENA

Urteurrenak ospatzeko egingo dute kantuan

Kontzertu "berezia" antolatu dute Goikobalukoek, abesbatza nagusiaren eta txikienen abesbatzaren urteurrenak ospatzeko. Gaur egun abesbatzako kide direnak bai, baina urteetan zehar kide izan direnetako batzuk ere egongo dira ekitaldian

Julen Murua Mesonero ARRASATE

Goikobalu eta Goikobalu Txiki abesbatzek 35. eta 30. urteurrenak ospatuko dituzte, hurrenez hurren, asteburuan. Horretarako, "kontzertu berezia" egingo dute bihar, 20:00etan hasita, San Frantzisko elizan. Hitzordu berezia izango da Goikobalu abesbatza osatzen duten kideentzat; izan ere, "ume eta gazte garaietan Goikobalu Txiki eta Goikobalu Gazte taldeetan aritu izan diren hainbat partaide ohi" ere egongo dira urteurreneko ekitaldian. Ospakizunera batuko direnei eskerrak eman gura izan dizkie Maialen Gonzalezek, Goikobalu Izartxoak taldeko zuzendariak: "Lan handia egin dute Goikobalu Txikin ibilitako hainbat abeslari ohik ere. Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu hain berezia den egun hau gurekin partekatzeagatik".

Ekitaldi berezia

Abesbatzakoek jakinarazi dutenez, aurrenekoz ospatuko dute Goikobalu Txikiren urteurrena orkestrarekin egindako kontzertu batekin, eta hori erronka handia izango dela dio zuzendari lanetan ibiliko den eta Goikobalu Txikiko zuzendaria ere baden Txomin Maidaganek: "Ohikoa baino jende gehiago izango gara, eta denon arteko konexioa ezinbestekoa izango da. Taldeko kide batzuek iaz Donostian Euskadiko Orkestrarekin egin zen kontzertu batean parte hartu zuten, eta badaukate bizipen hori; baina kontzertu hau berezia izango da".

Gonzalezentzat eta Maidaganentzat ere berezia izango da ekitaldia; izan ere, hauxe dio Gonzalezek: "Oso berezia da urteurrena gaur egungo umeekin eta bere garaian ume izan ginen batzuekin batera ospatzea". Maidaganek ere "berezitasun handiko kontzertua" izango dela dio. Aurreko urteurren ekitaldietan ere parte hartu du arrasatearrak, baina oraingoan kontzertua zuzentzeko ardura izango du, haren "aitaren pausoak jarraituz. Erronka handia" izango dela dio, baina "gogotsu" dagoela aitortzen du.

GOIKOBALU TXIKI TALDEKOEK AURRENEKOZ ABESTUKO DUTE ORKESTRAREKIN

Abesbatzara batzeko deia

Gaur egun, 90 pertsona inguruk osatzen dute Goikobalu abesbatza. Hala ere, Gonzalezek eta Maidaganek diote jendea erakartzea ere badela euren helburua: "Ikusten dugu abesteko zaletasuna egon badagoela, baina, askotan, kosta egiten zaigu jende berria erakartzea. Hala ere, guk lanean jarraitzen dugu, gure jarduna herriari zabaltzeko eta parte hartzera animatzeko". Hala, herritarrei dei egin die abesbatzara batu eta egiten dutena proba dezaten.

Euskadi Brass-ek '10 urte' diskoa aurkeztuko du JAMEn

Arrasate Musikalek antolatuta, bihar egingo dute aurkezpena, 19:00etan; sarrera doakoa izango da

J.M.M. ARRASATE

Hamar urte egin ditu Euskadi Brass taldeak, eta, urteurrena ospatzeko asmoz, 10 urte diskoa sortu dute proiektuko kideek. Alberto Urretxo arrasatearra da, hain zuzen ere, Euskadi Brass taldeko zuzendari artistikoa, eta, haren arabera, "diskoa ez da musika bilduma bat soilik: Euskadi Brass taldeak egindako ibilbidea eta euskal musikariaren komunitatean izan duen eragina jasotzen ditu; baita hezkuntza eta proiektu sozial baten oinarria ere, urteetan zehar gazteak, ikasleak eta hezitzaileak inspiratu eta bultzatu dituena". Gainera, Urretxok nabarmendu du disko guztietan "garrantzia handia" duela "esatea nahi den horrek", eta 10. urteurrenekoan, hala egiten dutela dio. Arrasatearrak adierazi duenez, proiektuak metalezko haize-instrumentuen inguruko "komunitate sendo bat sortzea erdietsi du Euskal Herrian", eta "ezinbesteko ardatz bilakatu dira formakuntza eta transmisioa".

Arrasaten errotua

Euskadi Brass taldearen jatorrira joz gero, gainera, Arrasatera jo behar dela azpimarratu du Urretxok, duela 30 urte, 1994an, Arrasate Musikalen sortutako Mondragon Brass taldea baitago oinarrian, eta, hala, oinarrian berezia izango den urteurreneko kontzertu bat are bereziagoa egingo du Arrasaten izateak: "Oso kontzertu berezia izango da; alde batetik, nire musika munduko lehenengo urratsak Arrasaten eman nituelako, baina, beste alde batetik, Euskadi Brass proiektua ere Arrasaten errotu zelako; Mondragon Brass-en, hain justu".

Yeonjoo Park, gala lirikoan

Ozenki elkarteak antolatuta, Amaia antzokian egingo dute emanaldia, abenduaren 18an, 20:15ean, Opera 2001 konpainiaren eskutik. Hala, Parman (Italia) 100 Anni Puccini saria jaso berri duen Yeonjoo Park soprano korearra eta David Baños tenor espainiarra ariko dira oholtzan, besteak beste. Sarrerak salgai daude udal webgunean, 25 eurotan.

OZENKI ELKARTEA

Pandero tailerra egingo du Trikitixa Eskolak zapatuan

Adin tarte guztiei zuzenduta, eta panderoaren "lehen pausoak ezagutzeko asmoz", pandero tailerra egingo du Arrasateko Trikitixa Eskolak bihar, 11:00etatik 12:00etara bitartean, Arrasateko Trikitixa Eskolaren Kulturolako egoitzan. Izena aldez aurretik eman behar da, *arrasatetrikitixaeskola@gmail.com* helbidera idatzita.

arbolapeta
arrasate
beinke

Gabon hauetan oparitu esperientziak

Oparitu edertasuna eta ongizatea

AURPEGIRAKO HIDRALINFUSIOA

Larruazal garbia, distiratsua eta gaztetua

125€

MIMA ZAITEZ

Gorputz osoko masaje lasaigarria eta aurpegiko higienea

98€

LIRAIN ONGIZATE MASAJEA

Gorputzeko masaje erlaxagarri berezia

96€

GORPUTZ PEELINGA: C BITAMINA

Esfoliazioa eta gorputzeko masajea

70€

JONG BAO MASAJE ERLAXAGARRIA

5 sentimenez gozatuz

59€

LASER BONUA

3 saio hartuz gero

1 doan

LIRAIN

ARRASATE | ESTETIKA

943 79 52 17

www.lirainarrasate.com

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE

RPS: 124/20

Aramaioko Lagunkoiakoek egin duten bigarren ibilaldian elkartu zen lagun taldea. ROSA MONDRAGON

Aramaioko Lagunkoia, hirugarren adinekoen beharrak identifikatzen

2019an sortutako Aramaioko Lagunkoia bere bidea egiten dabil. Hasiera batean, herrian zeuden irisgarritasun kontuak landu zituzten eta osasun arloari lotutako eskaera ere egin zuten; orain, praktika osasungarriak bultzatzen dituzte ibilaldien bitartez

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO

Duela bost urte, 2019an, pandemia aurretik, sortu zuten Aramaioko Lagunkoia taldea, hainbat herritar elkartuta. Hirugarren adinaren bueltan herrian ikusten zituzten hutsuneak identifikatu eta horietan eragiteko asmoz sortu zuten.

Eusko Jaurlaritzaren Euskadi Lagunkoia ekimenaren parte da, hain zuzen, Aramaioko Lagunkoia taldea, Matia Fundazioak jarri zuen arren martxan. Eta bailaran 2014an ekin zion Antzuola Lagunkoia taldeko hainbat kide ere izan zituzten bidelagun hasieran Aramaiokoek.

Ezjakintasunetik eta norantz joan zehazki jakin gabe hasi ziren lanean, baina azken urteetan hainbat pauso eman dituzte, eta, esaterako, oinarrizko hainbat premia identifikatu dituzte herrian orain artean.

Irisgarritasuna herrian

Duela urtebete inguru, herriko irisgarritasunari lotutako kontuak aztertu zituzten eta txosten bat landu zuten, ondoren Udalean aurkezteko. Hauxe adierazi du taldeko kide Elena Zubizarretak: "Irisgarritasuna dela-eta hainbat hutsune daude adin batetik aurrera dauzkazun zailtasunei aurre egiteko; baldosa batzuk solte, galtzada-harriak, espaloiak ganorazko jaitsierarik gabe, elbarriendako aparkalekuren bat ez zegoen egokituta, labainkor zeuden bide eta eskailera batzuk zeuden... Gainera, baserriak ondo seinaleztatu gabe zeuden, eta postariendako eta anbulantziendako, adibidez, eskatu genuen hori hobetzea. Poliki, baina dagoeneko lan batzuk egin dituzte".

HARREMAN SOZIALAK BULTZATZEKO EGINDAKO BIGARREN IBILALDIAN 36 LAGUN ELKARTU DIRA

Osasun eskaera

Osasun arloan herrian hutsune batzuk ere nabari dituzte, eta, horiei irtenbidea eman nahian, eskaera bat ere egina dute. Hauxe azaldu du taldeko kide Rosa Mondragonek: "Iaz egin zen kanpaina bat, gure taldeak bultzatuta, baina herri ekimen bezala egin zen. Eta orduan, 300 eskaera inguru jaso genituen herri mailan; Osakidetzari eskatu genion Aramaiok beti izan ditzala medikua eta erizaina. Sasoi batzuetan –orain, adibidez– medikua bajan dagoenean, ez daukagu ordezkorik. Orduan, astean bi aldiz etortzen da; bestela, Arrasatera bideratzen gaituzte. Osakidetzaren erantzuna jaso genuen, eta eskerrak eman zizkiguten, baina ikusten dugu denbora pasa dela eta egoera berean jarraitzen dugula. Hutsunea nabarmena da, eta nabarmenagoa da adin batetik aurrerakoendako, erreferentziako medikurik ez dutelako".

Praktika osasungarriak

Harreman sozialak bultzatzeko helburuarekin eta hirugarren adinekoen artean praktika osasungarriak sustatzeko asmoz, ibilaldiak antolatzeari ekin diote orain.

Bi egin dituzte, momentuz. Lehenengoan, Alaiak Jubilatuen elkartetik aterata, Arraga, Arrikoiti, Arexola, Arriola eta Uribarri auzoak zeharkatu zituzten, eta Ibarrara itzuli ziren. Azaroan izan zen hori, eta hamabost lagun elkartu ziren. Bigarrena joan den astean egin zuten, Apatamonasteriotik Arrazolarainoko ibilbidearekin, eta 36 lagun elkartu ziren. Taldeko Miguel Loitik esan du "arrakastatsuak" izan direla: "Lehenengo bi irteerak arrakastatsuak izan dira, adineko pertsonak etxetik atera eta elkarrekin izan garelako". Hamaiketakoa ere egiten dute, eta gaineratu dute ekimen horrek aukera ematen diela etxetik irten eta bestela egongo ez liratekeen pertsonekin elkartzeko eta hitz egiteko. Urtarrilaren 22an egingo dute hurrengoa.

Zer ematen dizu zuri?

ELENA ZUBIZARRETA
ARAMAIOKO LAGUNKOIA

"Aramaioko Lagunkoia taldeak jende desberdin askorekin nahasteko aukera eman dit niri, benetan. Eta aukera horrek aberastu eta bete egiten nauela esango nuke".

MIGUEL LOITI
ARAMAIOKO LAGUNKOIA

"Jendearen irribarrea ematen dit; zein gustura ikusten dudan jendea, esaterako, egin ditugun irteeretan. *Eskerrik asko* hori bertan aurkitzen dut eta poztu egiten nau".

ANE MIREN ETXEBARRIA
ARAMAIOKO LAGUNKOIA

"Aukera ematen dit jende desberdinarekin egon eta askotariko gauzak egiteko. Jubilatu ostean, gustuko okupazio bat ere ematen dit, jendearekin zaudelako herrira begira".



ROSA MONDRAGON
ARAMAIOKO LAGUNKOIA

"Kolektibo honetan sartu berria naiz, taldean sartu naizen azkena. Lagundu dit lurreratze honetan ikusten lan mundutik kanpo ere beste mundu bat dagoela".

Auzo-konpost guneen gaineko informazio-bilera

Tokian tokiko konposta sustatzeko ekimenaren baitan, Ibarran dauden bi auzo-konpost guneetan parte hartzeko irizpideak eta jarraibideak azaltzeko, batzarra deitu du Udalak hilaren 17rako, martitzenerako, arratsaldeko seietan

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO

Aramaion sortzen den hondar organiko guztia herrian bertan tratatu eta kudeatzeko helburuaren eta estrategiaren baitan, Udalak auzo-konpost guneei buruzko bilera informatiboa deitu du martitzenerako, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan.

Gaur egun, Ibarran bi auzo-konpost gune daude, baina Gorbeialdeko Ingurumen teknikari Jon Toñak adierazi du asmoa dela herriko auzo-konpost guneen azpiegitura handitzea, eta hori 2025. urtean zehar egingo dela. Izan ere, gaineratu du gaur egun Aramaion auzo-konposta egiten dutenen parte-hartze maila "ona" dela, baina hori "hobetzea" dela euren asmoa.

Bilera, interesa dutenendako

Bilera zuzenduta dago auzo-konpost guneetan parte hartzeko interesa daukan edozein herritarri, baina bereziki gonbidapena modu zuzenean bideratu diete Aramaioko elkarte gastronomikoetako lehendakariei eta haietako gainerako kideei. Hauxe azaldu du Toñak: "Bereziki, elkarte gastronomikoetako lehendakariei zuzentzen diegu deialdia, ondo dakigulako elkarte gastronomiko horiek direla kantitate aldetik hondakin organiko edo bio-hondakin gehien sortzen diren guneak. Beraz, eurei zuzendu nahi izan diegu, bereziki. Baina deialdia zabalik dago interesa daukan edozein herritarri. Guztiak animatzen ditugu auzo-konpost guneetan parte hartzera".

Bileraren helburua

Auzo-konpostaren funtzionamendua zein den azalduko dute bertan, horietan parte hartzeko bete behar diren irizpideak zehaztuko dituzte, eta jendea parte hartzera animatu nahi dute. Izan ere, Aramaion eta baita Gorbeialdeko Kuadrillan bio-hondakinen kudeaketarako bultzatzen ari diren estrategia hondar organikoaren tratamendu lokalean oinarritzen da, eta bi aukera eskaintzen dituzte: etxeko konpost indibiduala egitea edo auzo-konposta.

2025EAN AUZO-KONPOST GUNEEN AZPIEGITURAK HANDITU EGIN NAHI DITUZTE HERRIAN

Irizpideak edo jarraibideak

Auzo-konposta egiterakoan garrantzitsuena da gaikako bilketa zorrotza egitea: "Organikoaren tratamenduak daukan berezitasun edo baldintzetako bat da oso hondar organiko garbia edo gordina jaso behar dugula, tratamendua gero ondo egin ahal izateko. Eta horrek eskatzen duena da jatorrian, bereizketa horretan, oso zorrotz jokatzea", azaldu du Toñak. Herritarrak gonbidatu ditu bilerara joan eta informa daitezen.

Osteta kaleko auzo-konpost gunea, asteon. AMAIA TXINTXURRETA

Hainbat lagun, eskolako aterpeari buruzko bileran. MAITE APERRIBAI

Eskolako aterpea txukuntzeko ekimena martxan da dagoeneko

Bileran izan direnek erabaki dute herriko artistekin elkartzea, euren proposamenak jasotzeko asmoz

A.T.G. ARAMAIO

Eskolako aterpea nola txukundu erabakitzeko helburuarekin, bilera deitu zuen Aramaixo Herri Eskolak, eta bertan izan dira Gazte Asanbladako bi kide –nahiz eta hirugarren bat ere prest dagoen ondorengo bileretara joateko–, hiru guraso eta hiru ikasle. Irakasle batek gidatu zuen saioa, eta adierazi dute "oso emankorra" izan dela.

Hiru konpromiso

Mahai gainean jarri zuten egungo egoera –grafitiak eta pintaketak daude eskolako aterpeko paretetan eta lurrean–, eta adostu dutena da eskolako aterpeaz gain eskolako kantxa eta eskola atzeko horma ere txukundu eta margotu behar direla. Hori egiteko, herriko artistekin egongo dira hilabete honetan, eurekin hitz egin eta euren iritzia, proposamenak eta aholkuak jasotzeko. Azkenik, prozesu parte-hartzaile bat izango dela zehaztu zuten.

Ikasleek jaso zuten guztia aktan, eta hurrengo pausoa izango da herriko artistekin egon ostean berriro elkartzea, eta zein aukera dauden aztertuko dute.

Kulturgura lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik dago

Hilaren 23ra arte aurkeztu ahal izango dira galdetegiak, eta erantzun zuzenak dituztenak sartuko dira zozketan

A.T.G. ARAMAIO

Aurten 25. urtez antolatu du Gorbeialdeko Kuadrillak Kulturgura izeneko lehiaketa. *Aramaio.eus* webgunean dagoen galdetegia bete beharko dute lehiaketan parte hartu nahi dutenek, hilaren 23ra arte, eta erantzun zuzenak ematen dituztenak sartuko dira hilaren 30ean egingo duten zozketan.

Zazpi galdera erantzun behar dira, eta lehiaketako galderetako bat da, esaterako, Aramaioko zein auzotan dagoen Torrealdeko dorrea, eta lau aukera jarri dituzte: Uribarri, Untzilla, Barajuen edo Gantzaga. Parte hartzen dutenek era horretako galderen erantzun zuzenak jartzen saiatu beharko dute.

8 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahalko dute eta galdetegia udaletxean bertan edo Kuadrillan entregatu beharko da. Erantzun guztiak zuzen dituztenak sartuko dira zozketan, eta lau sari egongo dira: 100 euroko bi bonu kirol materialean gastatzeko eta 100 euroko beste bi bonu liburu-denda batean gastatu ahal izateko.

Mahai gainean "anbizio handiko" aurrekontua

Udal Gobernuak 19,4 milioi euroko aurrekontua proposatu du 2025erako, eta, horietatik, zazpi milioi euro inbertsioetarako izango lirateke. Espazio publikoetan egin gura dituzten lanetara, berriak sortzeko zein daudenak txukuntzeko, bideratu dute kopururik handiena

Mirari Altube ARETXABALETA

"Etorkizuneko Aretxabaleta garatzeko oinarriak" eraikitzea helburu duen aurrekontu-proposamena prestatu du Udal Gobernuak 2025erako. "Aurrekontu anbiziotsuak", Garikoitz Iturbe alkatearen esanetan: "19 milioi euro ingurukoa aurreikusi dugu, inbertsio potenteekin, eta oraingo dagoena konpontzen begirada jarrita. Hortaz, orekatuak eta osatuak dira, departamentu askora hobekuntzak ekarriko dituena".

Nerea Zubillaga zinegotzia eta Garikoitz Iturbe alkatea, aurkezpenean. J. BEREZIARTUA

Baliabideak sortu eta hobetu

Proposamena denbora luzez landu dutela argitu du, eta Agintaldiko Planaren barruan dagoela: "Horrek esan nahi du berdintasun politikak garatzeko, zaintza ekosisteman sakontzeko eta komunitatea indartzeko baliabideak sortzeko urtea izango dela. Ez da 2025ean amaituko, eta etorkizuneko proiektu indartsuen oinarriak jarriko dira martxan". Era berean, aurrekontu horrek "kudeaketa eraginkorrago baten hasiera" izan gura du, eta gaineratu du horrek "aldaketa sakonak" ekarri dituela egituran: "Malgutasuna izan du helburu, batetik, eta baliabideen erabilera hobetzea, bestetik".

Inbertsioak: zazpi milioi euro

Aurrekontu proposamena 19,4 milioi eurokoa da eta horietatik zazpi inbertsioetara bideratu dituzte, esanguratsuena espazio publikoetan egindakoa izanik. Hona hemen garrantzitsuenak: komentuko lorategia txukundu eta ibai gaineko pasabidea egiteko, 670.000 euro; institutu berria eraikitzeko lurrak erosteko, 520.000 euro; asfaltatze-lanetarako, 500.000 euro; Andramari auzuneko urbanizaziorako, 450.000 euro; kiroldegi aurreko berdegunea egokitzeko, 450.000 euro; gune estali bat egiteko, 430.000 euro; Kurtzebarri eskolako komunak eta gimnasioa egokitzeko, 400.000 euro; udaletxean igogailua jartzeko, 350.000 euro; urbanizazio-lanetarako, 300.000 euro; Iturrizar plazatik Txarapea ibilbidera igotzeko igogailuarendako, 348.000 euro; Iturrigorri pilotalekua eraberritzeko, 250.000 euro; energia sortu eta aurrezteko inbertsioa, 330.000 euro; partzelak mugarritzeko, 130.000 euro; kuartelaren hobekuntzak, 100.000 euro; Ederlaneko beroa aprobetxatzeko proiektua, 85.000 euro; Lausitta eta Durana kaleetako proiektuak, 90.000 euro; umeen parkeen inbertsioak, 50.000 euro; eta zuhaitz-landaketak, 40.000 euro.

ABENDUAN EZ BADA URTARRILEKO OSOKO BILKURAN ONARTZEA DA UDAL GOBERNUAREN ASMOA

Inbertsio horiez gain beste hainbat proiektu dituela esku artean gaineratu du Udal Gobernuak, eta herriko mantentze-lanetan esfortzua egiteko asmoa berretsi.

Zaintza ekosistema "sendotu"

2025a zaintza ekosistemaren proiektua sendotzeko urtea izan dadin gura dute: "Komentuaren eraikina izango da epizentroa, eta han kokatuko da ASE (Autonomia Sustatzeko Gunea); beste zerbitzu batzuk garatzeko proiektuak ere martxan daude". Alboan kokatutako zentro soziosanitarioa ere "pieza garrantzitsua" izango dela onartu dute: "Osakidetzarekin eta Foru Aldundiarekin elkarlanean garatu nahi da proiektua".

Bestetik, Ilargi plazan –Zainduz egondako lokalean– kokatuko den Emakume Txokoaren ateak urte hasierako hilabeteetan zabaltzea da asmoa.

Ingurumenaren ikuspegitik hainbat esku-hartze egingo dituztela iragarri dute, uraren kudeaketan eta zuhaitz-birlandatzean jarrita arreta. Eta espazio berriak sortzeaz gain, dauden espazioak txukundu nahi ditu Udalak, horretarako baliabide gehiago jarrita.

Proposamen hori oposizioarekin negoziatzen dihardu Gobernuak, eta, abenduan ez bada, urtarrileko osoko bilkuran onartzea da asmoa.

Postuak Durana kalean iazko Neguko Azokan. IMANOL SORIANO

Neguko Azokak 25 bat postu batuko ditu Duranan asteburuan

Herriko ekoizleak, artisauak eta merkatariak batuko dira zapatuan eta domekan, 11:00etatik 15:00etara

M.A. ARETXABALETA

Herriko merkatariek, artisauek eta ekoizleek izango dute lekua Durana kalean kokatutako karpetan. 25 postu inguru izango dira: hamabi artisauenak, bost merkatarienak –Almila Shop, Tak, Kiloka, Hankabeltz eta Belar Meta–, hiru ekoizleenak –Errastiko Ogia, Mendibitzu eta Marije Revuelta– eta beste hiru bat elkarteetako ordezkariek jarritakoak; horien artean izango dira Hiruatx, UDA eta Zaporeak.

Horiez gain, herriko hainbat idazlek ere parte hartuko dute, besteak beste, Josune Murgoitiok, Judit Ruiz de Muniainek eta Gemma Iñiguezek.

Ghanarako laguntza

Hiruatx elkarteak liburuak salduko ditu, bidezko merkataritza produktuak eta Ghanan ekoiztutakoak. Hain zuzen, elkarteak Afrikan abiatu du azken proiektua; Ghanako Asuoya udalerriko Learning Center gazteentzako Lanbide Heziketa Eskolan eguzki-plakak jarri nahi dituzte, elektrizitate-hornidura fidagarria bermatzeko haiei eta kostuak murrizteko.

TXOMIN MADINA

Altxa Buruaren kanpaina, abian

Guria erabili zeinke leloa daramaten pegatina berdeak jarri dituzte herriko hainbat dendatan, tabernatan eta eraikin publikotan, eta horrekin adierazi gura dute hango telefonoa erabili ahal izango dutela haurrek eta nerabeek, beharra izanez gero. Pantailen erabilera "kontziente, egoki eta osasuntsua" sustatzea du helburu oraintsu sortu den taldeak.

Cubillo, Ondas saria eskuratu dutenen artean

'11M, cuatro días de marzo' dokumentalagatik Ondas saria eskuratu zuen EITBk, New Digital Media ekoiztetxearekin batera; Mikel Cubillo aretxabaletarrak parte-hartze zuzena izan du bertan, eta "oso pozik" dago jasotako aitortzarekin

Mirari Altube ARETXABALETA

Ondas sari bat eskuratu duen lantaldeko kide dela ezin du edonork esan, eta Mikel Cubillo (Aretxabaleta, 1988) haien artean dago. Mondragon Unibertsitatean egin zituen Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak, eta, lehenengo ETBn eta gero beste hainbat ekoiztetxetan jardun ondoren, azken hamar urteotan Bilbon egoitza duen New Digital Mediako errealizazio-burua da. Beste batzuendako lan egitea ohikoa da: "Dmax kanalarentzat, esaterako, programa bat zuzentzen jardun dut hiru urtez. Eta entretenimendu-saioak ere egin izan ditugu; ETBko *Juego de cartas,* esaterako".

Cubillo aretxabaletarra, Ondas sariketako *photocall*-ean, Bartzelonan. M. CUBILLO

"Hemengo ikuspuntutik"

Azaroan 14an izan zen 71. Ondas sarien banaketa-ekitaldia, Bartzelonan. Eta gaurkotasun edo jarraipen bereziko programarik onenaren saria eskuratu zuen EITBk eta New Digital Mediak ekoiztutako *11M, cuatro días de marzo* lanak.

Iazko azaroan iritsi zitzaien EITBtik 2004ko martxoaren 11ko gertakarien gaineko dokumentala egiteko proposamena: "Gai hori landu gura zutela adierazi ziguten, baina, Euskal Herriko ikuspuntutik. Horregatik jasogenituen Arnaldo Otegiren, Iñaki Gabilondoren eta beste hainbaten iritziak; baita biktima batzuen testigantzak ere". Hain zuzen, ikuspuntu hori txertatu izanagatik izan zela saritua uste du: "Gurea baino indar eta aurrekontu handiagoko dokumentalak egin dira, Amazonen eta Netflixen, esaterako, baina kontakizuna konbentzionala izanik. Guk argi utzi dugu orain dela hogei urte Madrilgo Gobernuak gezurra esan zuela hauteskunde batzuk irabazteko, eta hori guztia estali egin zela". Sariarekin balioa eman gura izan ziotela "desinformazioaren eta gezurraren aurka" egindako lanari dio.

Gustura aitortzarekin

Oso pozik dago jasotako sariarekin: "Gau hartan, sare sozialetan honako esaldi hau jarri nuen: *Lokatzetan partidu asko jokatu ostean, noizbehinka belar naturala tokatzen da*. Gure ogibidean ez gara aberastuko; bokazioagatik egiten den lana da. Horregatik, benetan gustura jasotzen dira halako aitortzak".

UDAren ereserkiarekin agurtu dute Zubillaga kirol-sustatzailea

Aretxabaletako ziklismoaren urrezko aroaren parte izan zen, eta andramaixetako lasterketaren arima

M.A. ARETXABALETA

Abenduaren 9an hil zen Manolo Zubillaga Altube (Aretxabaleta, 1940), herrigintzan lan asko egindakoa eta, bereziki, kirol hitzorduak antolatzen eta horiek egiteko beharrezkoak ziren baliabideak lortzen ibilitakoa. Zinegotzi ere izan zen Aretxabaletako udalean, 1979ko agintaldian.

Grafikagintzan jardun zuen lanean eta Eguzkigraf inprimategiaren sortzaileetako bat izan zen. Etapa hori amaitutzat eman, eta Asegarce –gaur egun Baiko– enpresara egin zuen; pilotaren bueltan jardun zuen urte askoan. Lan-ibilbidea herrigintzarekin bateratu zuen, eta Alkar kultur elkarteko eta UDAko presidente izan zen; azken hori, 1983 eta 1985 artean. "Manolo zerbait izan bada, UDA izan da", zioten gertukoek, eta, horri helduta, herriko txistulariek kirol elkartearen ereserkiarekin esan zioten agur eguaztenean, hiletaren ostean.

Jaietan, txupina bota ostean. GOIENA

Eskertuta egindako lanagatik

Agurtzane Elkorok, UDAren gaur egungo presidenteak, haren lana nabarmendu eta eskertu gura izan du: "Nork ez zuen ezagutzen Manolo! Kirol-saltsa guztietan sartuta zegoen perrexila, sekulako lana egindakoa. Aretxabaletarrok harro esan dezakegu gure herriaren alde egin duzun guztia. Aupa Manolo! Eta mila esker gure bizitzan egoteagatik!".

Aretxabaletako ziklismoaren urrezko aroaren parte zuzena izan zen Zubillaga, eta azken urteetan haren alboan lanean jardun zuen Gorka Etxabek hauxe dio: "1966an hasi ziren ziklo-krosa sustatzen herrian, eta orduan, Aretxabaleta ezagun bilakatu zen Europan ere. Ameslariak izan ziren herritar talde hartan zegoen Manolo, beste batzuekin batera, lanean tinko. Penaz kontatu zigun Munduko Txapelketa ekartzeko aukera ezerezean geratu zen sasoi hura. Andramaixetako lasterketaren antolatzaile nagusia ere izan da, esatari eta arima. Kirol arloan sekulako lana egindakoa, gizon jatorra, apala, langilea eta gertukoa. Harro gaude, ezagutu dugulako eta haren alboan aritzeko aukera izan dugulako".

Egindako lan hori guztia eskertze aldera, hain zuzen, 2022ko andramaixetan txupina bota zuen, jaiei hasiera emateko.

Asteon, garabiarekin, Fernando Eskoriatza plazako zuhaitzetan Gabonetako argiak jartzen. IMANOL BELOKI UNAMUNO

Gabonei ongietorria argien piztuerarekin

Gaur piztuko dituzte Eskoriatzako herrigunean zein elizateetan jarri dituzten argiak. Horrekin batera, 'Ongi etorri, Gabonak!' izenpean ekitaldia izango da Partxis plazan, 17:00etan hasita, San Pedro eta Intxaurtxueta bizilagun elkartekoen eskutik

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, piztuko dituzte Gabonetako argiak Eskoriatzan, eta urtarrilaren 6an itzungiko dituzte. Argiak jartzeko 1.500 euroko aurrekontua bideratu du Eskoriatzako Udalak, gastu moduan, herria apaintzeko. Horrekin batera, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagunek ere jarriko dute euren alea; izan ere, auzotarrei argiak eta apaingarriak jartzeko eskaera egin, eta ekitaldia antolatu dute gaurko.

Inbertsioa ez, gastua

"Aurtengo aurrekontua iazkoaren %25 ingurukoa da. Argi batzuk Udalarenak dira eta beste batzuk alokatu egiten ditugu. 2023an, Udalaren jabetzako argi batzuk konpondu behar izan ziren eta besteren batzuk erosi egin genituen. Iazko aurrekontuaren %75 inbertsiorako bideratu zen. Gainerako %25a alokairurako erabili zen. 2024an, berriz, iazko kopuru bera alokatu dugu, baina ez dugu argirik konpondu edo erosi. Ez dugu inbertsiorik egin, dena gastua izan da", azaldu du Nerea Aranak, Eskoriatzako Udaleko Garapen Ekonomikoko teknikariak.

Herriko merkatariei laguntza

Gabonetako argiez batera, erosketa-bonuak jarri dituzte salgai jendaurrean. 1.400 bonu atera dituzte, eta, horri aurre egiteko, Udalak 14.000 euroko partida bat sortu zuen. Horietatik 1.134 bonu saldu dira. Guztira, 22 establezimenduk hartu dute parte egitasmoan, eta herritarrek 20 euroren truke 30 euro gastatzeko aukera izan dute. Komertzioa sustatzeko ekimenekin jarraituz, Euskadi Bono Denda kontsumo-bonuak ere atera dira; abenduaren 5era arte erabil daitezke. Kasu horretan, zazpi establezimenduk hartu dute parte, eta herritar bakoitzak 20 euroko bost bonu eros ditzake.

GAURKO 'ONGI ETORRI, GABONAK' EKITALDIA ARRATSALDEKO BOSTETAN HASIKO DA, PARTXIS PLAZAN

'Ongi etorri, Gabonak!'

Gaurko argien piztuerarekin batera, San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako bizilagun elkarteko kideek antolatuta zenbait ekintza izango dira, Partxis plazan. 17:00etan, haurrentzako marrazki tailerra izango da; 18:00etan, txokolate-jana; eta 19:00etan, Txipirones txaranga arituko da kaleak musikaz girotzen. Ordu berean, pintxoak jarriko dituzte salgai.

Horrekin batera, sare sozialetan azken urteotan egin moduan, leihoak eta balkoiak apaintzeko eskaera egin diete bizilagunei, eta, 20:00etatik aurrera argiak pizteko eskaera egin, Gabonak pizteko asmoz.

'Guria erabili zeinke' mezua duen kanpaina martxan da

Altxa Burua guraso taldeak deituta, Aretxabaletan eta Eskoriatzan aurkeztu dute egitasmoa aste honetan

I.B. ESKORIATZA / ARETXABALETA

Eskoriatzako eta Aretxabaletako kidez osatutako Altxa Burua taldearen ekimenez, ehun establezimendu eta zerbitzu publiko baino gehiagotako telefonoa erabili ahalko dute haurrek eta nerabeek, beharra izanez gero. *Guria erabili zeinke* leloa daramaten pegatina berdeak jarri dituzte telefonoak jarri dituzten leku horiek identifikatzeko.

Zaintza komunitarioa indartu

"Ideia da familiei, umeei eta nerabeei esatea arazoren bat tarteko telefonoa erabili beharra badute, pegatina daramaten establezimenduetako telefonoa erabili dezaketela", dio Altxa Burua taldeko Eneritz Pagaldaik, eta hauxe gaineratu du: "Seme-alabei mugikorra erosteko arrazoiak hainbat dira, baina zenbait familiaren ardura izaten da umeei zerbait gertatuz gero harremanetan jarri ahal izatea. Ekimen horrekin zabaldu nahi dugun mezua da ez dela derrigorrezkoa umeei mugikorra erostea behar horri erantzuteko". Hala, gainera, "zaintza komunitarioa" indartu gura dute.

Merkatariak eta ordezkari publikoak, ekimenaren aurkezpenean. ALTXA BURUA

Mendi martxa egingo da domekan, hildakoen omenez

Eskoriatza Kirol Elkarteak antolatuta, hildako mendizaleen omenezko mendi martxa egingo dute abenduaren 15ean, domekan, 10:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik abiatuta.

Ibilbidea honako hau izango da: Eskoriatza, Atxorrotx, Uxar –hildako mendizaleen oroimen-monumentua bisitatu–, Urkulu, Santa Luzia ermita, Eskoriatza. Guztira, hamabost kilometroko distantzia du ibilbideak, eta, zirkularra amaitutakoan, indarrak hartzeko baba-jana egingo dute nahi duten parte-hartzaileek, Egokiena elkartean. Martxan parte hartu nahi duenak hamar euro ordaindu beharko ditu Namaste belar-dendan.

OHARRAK

Hitzaldia: Paco Etxeberria

Auzitegi-mediku eta antropologoa Sukha hotelean izango da gaur, 19:00etan, ikerketa kriminalez hitz egiten. Sarrera doakoa da, edukiera bete arte.

Txistor-jana

Hilaren 18an egingo dute Olazar Erretiratu Elkarteko bazkideek, 18:00etan, kultura etxean.

Begirale bila

Abenduaren 27ko eta 28ko Gabonetako parkean lan egiteko. Interesdunek *gazteria@eskoriatza.eus* helbidera idatzi dezakete.

Euskal mitologiako pertsonaiak ezagutzen

Olentzero, Mari Domingi eta Euskal Herriko izaki mitologikoak batzen dituen erakusketa zabalduko dute asteburu honetan Ibarraundi museoan. Hiru eremutan banatuta dago erakusketa, eta gaur arte ikastetxeetako haurrak izan dira bisitan

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Izaki mitologikoak batzen dituen *Baso guztien barnetik, uste guztien gainetik* izeneko erakusketa ireki dute Eskoriatzan, Ibarraundi museoan. Hiru gunetan dago banatuta erakusketa, eta, abenduaren 2tik gaur arte, ikastetxeetako haurren bisita gidatuak izan dituzte egunero, eta herritar guztiei irekiko dizkiete ateak bihar, zapatua, abenduaren 30a bitartean.

Arizmendiko Almen guneko ikasle talde bat bisitan. I. BELOKI

Erakusketa eta kontaketa

Euskal mundu magikoa ezagutzeko eta herriaren memorian bizirik dirauten erraldoi, lamina, iratxo, herensuge, sorgin eta bestelakoak ezagutzeko eta izaki fantastiko haien bizitokia ezagutzeko txokoa prestatu dute Ibarraundin. Saioa Altzua eta Miren Diaz de Gereñu ari dira azalpenak ematen, eta orain arte jaso duten harrerarekin pozik daude. "Oinarrian, iazko erakusketa jarri dugu, eta beste areto batera zabaldu dugu, pertsonaia gehiago sartzeko asmoz. Hala, hiru eremu ditu erakusketak: kanpoko gunea, erakusketa nagusia eta goiko solairuan Mari Domingi eta Olentzeroren txokoa", adierazi du Saioa Altzuak, Ibarraundi museoko langileak.

Pertsonaia ugari

Mari, Gaueko, Jentila, Lamina, Akerbeltza, Ireltso, Basajaun, Sugaar, Sorgina, Olentzero eta Mari Domingi… pertsonaia mitologiko asko daude ezagutzeko, baina Mari dela pertsonaia nagusia azaldu du Altzuak: "Erakusketara sartu eta lehenengo txokoa Marirena da. Denbora gehien bertan ematen dugu bisitan, mami handien duen pertsonaia hura delako. Bizkarra ematen dago Mari, eta horren arrazoia ere azaltzen diegu bisitariei…".

Erakusketa zabalik

Abenduaren 2tik gaur arte, ikastetxeetako ikasleen bisitak izan dira, eta, bihartik aurrera, herritar orori irekiko dizkiete ateak. Nork bere kontu ikus dezake, baina bisita gidatuak ere eskainiko dituzte, euskaraz eta gazteleraz, aurrez izena eman barik; euskaraz 12:00etan, 13:00etan eta 18:00etan eta gazteleraz 17:00etan. Abenduaren 24an eta 25ean, berriz, itxita egongo da, eta abenduaren 16tik 20ra bitartean, arratsaldez bakarrik egongo da irekita.

Joan den eguenean egindako bisita gidatuan, gatz-ekoizpena ikusten. GATZ MUSEOA

Produktuaren prozesua barrutik ezagutzeko, bisita berezia

Gatzagako gatza saltzen duten bailarako hamasei merkatari izan dira "urre zuria" ezagutzen

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako gatza euren establezimenduetan saltzen duten merkatarien bisita izan zuten Leintz Gatzagako Gatz Museoan. Batetik, merkatariek produktua barru-barrutik ezagutzeko, eta, bestetik, ekoizleen eta saltzaileen arteko harremanak sendotzeko.

Guztira, hamasei lagun izan ziren bisita gidatuan: Aramaioko ekonomatukoak; Aretxabaletatik Kilokakoak eta Jon Harategikoak; Oñatiko Italikual dendakoak eta Jesus Harategikoak; eta Eskoriatzatik Altuna harategikoak, Aloña fruta-dendakoak eta Aingeru Gasolindegikoak. Haiekin batera Agurtzane Diaz Deba Garaia Landa Garapenerako Elkarteko teknikaria ere izan zen. "Komertzio bakoitzetik pertsona bat baino gehiago etorri zen; hamasei lagun, guztira. Badira komertzio gehiago bertako gatza sartzen dutenak, baina guztiak ezin izan ziren bisitara etorri", azaldu du Ahinara Zubizarretak, Leintz Gatzagako Gatz Museoko langileak.

Saltzaileei ateak ireki

Gatz Museoa eta gatz-ekoizpena ezagutzeko tartea hartu zuten bertaratuek, eta bisita antolatu izana garrantzitsua dela adierazi du Dorleta Elkorobarrutiak, Gatzagako alkateak: "Museoa bisitatzeaz gain, Dorletako gatzaren ekoizpen prozesu osoa ezagutzeko tartea hartu zuten merkatariek; hala, gure gatzak ez daukala inongo gehigarririk ikusi zuten, nola jasotzen eta ontziratzen den… Oraingoan, gure gatza saltzen duten eskualdeko zenbait merkatari egon dira, baina asmoa da aurrerago ere bisita gehiago antolatzea, beste asko ere etorri daitezen".



JABI ALTUNA
ALTUNA HARATEGIA

"Bisita ederra izan zen, oso interesgarria; harategian Gatzagako gatza saltzen dugu, eta orain, txokolatea saltzen ere hasiko gara".



ITZAL ZUBILLAGA
AINGERU GASOLINDEGIA

"Gatzagarra izanda, ezagutzen nuen museoa bera, baina Aitor Larrañagaren ikuspuntua eta azaltzeko modua ederra izan zela nabarmenduko nuke".

Matxingorri taldearen ipuin-bildumaren kontakizuna bihar

Matxingorri taldeak *Eskoriatzako eta Gatzagako ipuiñek* argitaratu berri du, hamalau kontakizunen bilduma. Joan den astean aurkeztu zuten liburua, eta zapatu honetan, berriz, liburuaren kontakizuna egingo du sorkuntzan parte hartu duen Dorleta Kortazarrek. Ipuin kontaketa 18:00etan izango da, Ibarraundi museoan.

Testuekin eta ilustrazioekin osatuta, elkarlanean egindako lana da, eta Eskoriatzako eta Gatzagako hainbat kondaira eta istorio biltzen ditu. Gainera, Eskoriatzako elizate bakoitzarekin lotu dute ipuin bana, eta mapa bat ere osatu dute, ipuin-bildumaren osagarri gisa.

Liburuak 18 eurotan daude salgai Eskoriatzako bibliotekan, Arizmendiko Almen eta Jose Arana guneetan, Ixkur ile-apaindegian eta Gatzagako Gatz Museoan.

'Anbotoko Mari' antzerkia izango da domekan

Abenduaren 15ean, domeka, 17:00etan, Logela Multimedia taldeak *Anbotoko Mari* antzezlana aurkeztuko du Zaldibar antzokian. Lan horrek bideo-antzerkia eta musika uztartzen ditu Gariren istorioa kontatzeko. Lagunekin haserretu eta Mari jainkosaren kobazulora joatea erabakitzen duen haurra da Gari. Sarrera bost euro da.

Legebiltzarreko, Angiozarko eta Bergarako Udaleko ordezkariak, Angiozarko Eskolan. 'LEGEBILTZARRA.EUS'

Angiozarko Eskola egokitzea eskatu dute

2018a ezkero ari dira Bergarako Udala, Angiozar Bailara Batzarra eta Arbiaska Guraso Elkartea eskaera egiten Eusko Jaurlaritzan, eta astelehenean legebiltzarkideek bisitatu zuten zentroa; Udalak hiru eskaera egin ditu, baina ez du baiezkorik jaso

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Alazne Arana eta Aritz Abaroa (EAJ), Itziar Murua (EH Bildu), Patricia Campelo (PSE-EE) eta Muriel Larrea (PP) legebiltzarkideek Angiozarko eskola ezagutu eta eskaerak entzun zituzten, astelehenean, Angiozar Bailara Batzarrak eta Arbiaska Guraso Elkarteak deitutako bisitan. Haiez gain, bisitan izan ziren Hezkuntza Saileko lurralde ordezkari Amaia Urzelai; Angiozarko alkate Mila Elorza; eskolako zuzendari, idazkari eta Guraso Elkarteko ordezkariak eta Bergarako alkate Gorka Artola, Markel Azkargorta eta Maite Usabiaga zinegotziak eta Udaleko bi teknikari.

1958an sortu zen Angiozarko Eskola, eta ordukoa izan zen lehenengo eraikina, frankismo garaiko eskola nazionala. Bigarrena 1991n eraiki zuten, eta ordukoa da gaur egungoa. Ordutik hona, solairu bat gehitu zaio. HH-3 eta LH-6 arteko 28 ikaslek ikasten dute bertan. Eskola bada ere, Angiozar Bailara Batzordearen ustez ez da zentro bat soilik, bailararen "traktore-motorra" baizik, despopulazioari aurre egiteko, eta horri gehitu diote bi urte haietan eskola ez zela "behar bezala" planifikatu: "Beti erabili behar izan dira Hezkuntza Sailak jarri ez dituen kanpo espazioak".

2018a ezkero aldarrikapenekin

2018a ezkero ari dira Bergarako Udala, Angiozar Bailara Batzarra eta Arbiaska Guraso Elkartea eraikinaren egokitzapena eskatzen, egungoak "ez dauzkalako gutxieneko espazioak eskola duina izateko". Bailara Batzarretik adierazi dute urte hartan egin zutela lehenengo bilera Eusko Jaurlaritzan, orduko Hezkuntza sailburuordearekin, eta "oso pozik" atera zirela, eta 2019ko Azpiegitura planean sartu zutela Angiozar.

Proiektua aztertzen hasi zirenean, 2020an egoera aldatu egin zen, eta, azaldu dutenez, 2022an Hezkuntzako Azpiegitura zuzendariak esan zien eraikina "nahiko ondo" zegoela: "Obraren bat egin beharko balitz egingo litzatekeela esan zigun, baina aztertu zuela jaiotza-tasa eta ez zuela ikusten lehentasunezko obra egin behar zenik zerbitzuak hobetzeko. Kolpe latzaren" ostean hasi zuten aldarrikapenen prozesua. 2023an Legebiltzarrean aurkeztu zituzten asteleheneko eskaera berberak: idazten ari diren 2024-2028 Azpiegitura Planean sartzea Angiozarko eskola.

Hiru proposamen eginda

2018tik gaur arte Bergarako Udalak hiru proposamen egin ditu Eusko Jaurlaritzan, eta horiek ezezko erantzuna izan dute. Batetik, egungo eraikinaren ondoan beste bat eraikitzea zen proposamena, bi eraikinak bina solairurekin, eta Angiozar Bailara Batzarrak dio hori atzera bota zuela Jaurlaritzak. Bigarrena izan zen, egungo eraikineko goiko solairua handitzea, baina hori ere atzera bota zuten.

Egin duten azken proposamena izan da Angiozarko garitanotarrek dohaintzan eman nahi duten Zapatari Etxearena. Aurreratu dutenez, lau solairu ditu, bakoitza 400 metro karratukoa, eta horrek ahalbidetuko luke buruan duten espazio soziokomunitario integrala sortzea: "Eskola bakarrik ez. Auzoko zerbitzu komunitarioak ere han txertatzea nahiko genuke. Ulertzen dugu erabilera askotariko instalazioa izango litzatekeela. Kontsultategia daukagu, fisioa, gimnasia ematen dugu yoga-leku batean –ez dago baldintza onetan–, Bailara Batzarra beste leku batean elkartzen gara… Orduan, diseminatuta eta oso egoera kaskarrean dago. Gure asmoa izango litzateke Zapatari Etxean sartu, goitik behera berritu eta auzoarendako motorra izango litzatekeen espazio komunitarioa sortzea. Horri ez digute baiezko erantzunik eman. Atzoko eskaeretako bat ere hori zen. Agenda politikoan txertatzen badute, egin dezatela azterketa bat, hori guztia hor integratzeko".

Martitzenean eman zizkieten bileraren xehetasunak bizilagunei, eta han erabaki zuten Legebiltzarreko alderdi guztiei bi hilabeteko epea ematea, ikusteko haiek ze mugimendu egiten dituzten. Ondoren erabakiko dute datozen hilabeteetan zer egin.

BI HILABETE EMAN DIETE ALDERDIEI, HAIEK ZE MUGIMENDU EGITEN DITUZTEN IKUS DEZATEN

JARDUN

Euskaraldiaren abiatze-saioa

Martitzen arratsaldean, Euskaraldiaren abiatze-saioa egin zuten. Kike Amonarrizek hartu zuen parte, eta hitzaldia egin zuen. Laugarren edizioaren ezaugarri nagusiak azaltzeaz gain, kronograma ere aurkeztu zuten, eta Bergarako Euskaraldiaren aurkezpena otsailean egitea aurreikusten dute. Andrea Bella izango da Euskaraldiaren dinamizatzailea Bergaran.

OHARRAK

Pentekosteetako egitarauak digitalizatuta

Udal Artxiboan paperean dauden Pentekosteetako hainbat egitarau digitalizatu eta ikusgai jarri dituzte webgunean: *https://labur.eus/UHVSr*.

Eguaztenak Oxirondon

Hilaren 18an, 18:00etatik aurrera, Olentzero eta Mari Domingik gutunak jasoko dituzte Oxirondoko azokan. Txokolate-jana eta baserritarren azoka ere izango dira.

Gabonetako gala, eguenean

Camden Dance Studiok bi emanaldi eskainiko ditu: bata, 17:45ean eta bestea 19:15ean.

Bergarako Udaleko, Bearteko eta Bedelkarreko ordezkariak. BEDELKAR

'Bedelkartxo', Gabonetako kanpainako berritasuna

Gabonetako erakusleiho lehiaketaren ordez 'Bedelkartxo' lehiaketa egingo du Bedelkarrek, Bergarako Udalarekin eta Beartekin elkarlanean; herritarrei zuzendutako lehiaketa da eta parte-hartzaileen artean 500 euro zozkatuko dituzte

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Duela bi aste aurkeztu zuen Bedelkarrek Bedelkartxo maskota berria, eta Gabonetako kanpaina ere berrikuntzekin dator; izan ere, orain arteko erakusleiho lehiaketaren ordez "merkatarien arteko elkarlana sustatzen duen" *Bedelkartxo* lehiaketa jarri du martxan, Bergarako Udalarekin eta Beart Arte Taldearekin elkarlanean. Antolatzaileen esanetan, "bergararrek herrian kontsumitu dezaten" aurkeztu dute kanpaina. Bergarako Udaleko Kultura zinegotzi Maite Usabiagak aurkezpenean adierazi zuen azken urteetan erakusleiho lehiaketak izan duen "partaidetza jaitsiera" gainditu nahi izan dutela, eta lankidetzan oinarritutako zerbait egitea izan dela asmoa, herritarrei parte hartzeko formatu berri bat eskainita.

Hitz eraketaren lehiaketa

Joko eran antolatu dute *Bedelkartxo* lehiaketa. Hala, erakusleihoak "modu kolektiboan" apainduko dituzte, eta horietan jarriko dituzte Beart Elkartekoek sortu dituzten *Bedelkartxo* hitza osatzen duten hizkiak. Aurreratu dutenez, banan-banan eta saltokietako erakusleihoetan txandaka kokatuko dira.

Herritarrek hizkiak aurkitu eta argazkiak atera beharko dituzte *Bedelkartxo, Bedelkar* eta *Elkar* hitzak osatuz. Behin hori eginda, Bedelkarren Whatsapp zenbakira –616 72 75 92– bidali beharko dituzte irudiak. Hizki bakoitza argazki batean bidali beharko da. Parte hartzen duten guztien artean guztira 500 euro banatuko dira, modu honetan: 150 euroko sari bat *Bedelkartxo* hitza osatzen dutenen artean; 100 euroko sari bat *Bedelkar* hitza osatzen dutenen artean; eta 50 euroko bost sari *Elkar* hitza osatzen dutenen artean. Lehiaketa abenduaren 9tik 29ra bitartean egingo da, eta hilaren 30ean jakingo da nortzuk diren irabazleak.

Bedelkarreko kide Naiara Alonsok berretsi zuen "elkarlanean oinarritutako ekimena" dela aurtengoa, orain arte komertzio bakoitzak bere erakusleihoa soilik apaintzen zuelako eta orain amankomunagoa den zerbait sortu dutelako: "Herritarrek, erakusleiho bat bozkatu beharrean, ahalik eta gehienak bisitatu beharko dituzte hizkiei argazkia ateratzeko".

Beste bi zozketa

Bedelkartxo lehiaketa ez da egingo duten ekimen bakarra izango. Izan ere, astelehenean abiatu zen Gabonetako zozketa eta urtarrilaren 4ra arte egongo da martxan. Denera 2.000 euro zozkatuko dituzte, hemezortzi saritan banatuta. 300 euroko sari bat egongo da, eta 100 euroko beste hamazazpi. Zozketan parte hartzeko, bezeroek euren izena eta telefonoa jarri beharko dituzte erosketa-tiketean, eta horiek saltokian bertan utzi beharko dituzte. Sariak elkartekide diren saltokietan trukatzeko erosketa-txarteletan emango dira.

BESTE BI ZOZKETA ETA KALEKO EKINTZAK ANTOLATU DITU BEDELKARREK GABONETARAKO

Halaber, abenduaren 30era arte, Bedelkar txartelarekin ordainduta, hurrengo erosketa batean saltokian bertan trukatzeko 40 euroko sariak zozkatuko dituzte bezeroen artean.

Gabonetan, kalean ekintzak

Gabonetako egunetarako ere kaleko animazio jarduerak antolatu ditu Bedelkarrek. Batetik, egun horietan kaleak musikarekin girotuko dituzte, megafonia bidez. Bozgorailuak jarriko dira herriko hainbat kaletan, eta Gabon giroko musika entzungo da.

Halaber, txu-txu trena ibiliko da kaleetan zehar hilaren 23an eta 30ean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bitartean. Azkenik, hilaren 23an eta 28an, Moto DJ Reibaxek girotuko ditu kaleak, 18:30etik 21:30era bitartean.

San Pedro kalea ibilgailuendako itxita dago egubakoitza ezkero

Kale horretako eraikin bateko teilatutik harria bat erori zen, eta bi metroko segurtasun-distantzia ezarri dute

I.A.A. BERGARA

San Pedro kalea ibilgailuendako itxita dago, joan den egubakoitzean kale hartako 11 eta 13. zenbakietako teilatutik harri bat erori zelako. Aurrez ere bazegoen hesi bat bi atarien aurrean, baina, Bergarako Udalak jakinarazi duenez, orain arteko segurtasun tartea handitu egin du, eta bi metrokoa ezarri; baita erortzear zeuden beste zenbait harri kendu ere. "Horrek zaildu egiten du oinezkoen eta ibilgailuen arteko koexistentzia. Udalak oinezkoen pasaera lehenetsi du", adierazi du Udalak. Hala, trafikoa Bidekurutzetatik bideratuko da, gero Komenio kalean gora hartuta Artekalera igarotzeko.

Udaletik azaldu dute egubakoitzean bertan jarri zirela eraikinaren jabeekin harremanetan, sortu den egoeraren berri eman eta bi eraikinek izan ditzaketen arazoei aurre egiteko: "Segurtasun-neurriak ahalik eta azkarren hartzeko agindua eman die Udalak. Beraz, kalea ahalik eta azkarren irekitzeko nahia dute, eta horretan lanean ari dira buru-belarri".



San Pedro kalea, Bidekurutzetatik. M.B.

Billar Txapelketa egingo dute abenduan San Joxepe elkartean

Urteko azken hilabeterako ere San Joxepe elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu. Aste honetan, Gabonetako Billar Txapelketako sailkapen partiduak jokatu dituzte –gaur jokatuko dira azkenak–, eta finala abenduaren 20an izango da. San Joxepekoek adierazi dutenez, bazkideen artean arrakasta duen lehiaketa da, eta irabazleak San Joxepe elkartea ordezkatuko du elkarteen arteko txapelketan.

Madrilen bi gau pasatzeko bidaia antolatu du jubilatuen elkarteak, eta izen-ematea dagoeneko beteta dago. Hiru egunetan, besteak beste, *Grease* musikala ikusi eta Gabonetako argiak ikusteko aukera izango dute. Eta Torrejon de Ardoz ere bisitatuko dute.

Abenduaren 20an, txistor-jana eta Gabonetako otarrearen zozketa egingo dituzte, San Tomas eguna ospatzeko.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

"Badaukagu mailari eusteko itxaropena"

SUA ZANGITU BURDINOLA TALDEKO KAPITAINA

Espainiako emakumezkoen zilarrezko senior mailari eustea zuen jokoan asteburuan Burdinolak, baina, hirutik hiru partidu galduta, jaitsiera fasea jokatu beharko du

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Duela bost urte hasi zen Sua Zangitu (Bergara, 2008) Burdinola hockey taldean. Euskal selekzioarekin ere lehiatu da, eta, postu finkorik ez badu ere, atzelari postuan jokatzen du, jeneralean. Espainiako emakumezkoen zilarrezko ligan jokatzen du Bergarako taldeak, eta jaitsiera fasea jokatu beharko dut.

Zer-nolako denboraldia ari da izaten?

Polita, nahiz eta oraindik hasi besterik ez garen egin. Denboraldia urrian hasi zen, baina irailean hasi ginen entrenatzen.

Jaitsiera fasea jokatuko duzue; ze aurreikuspen dituzu?

Denok dakigu zaila izango dela, daukagun taldea oso gaztea delako oraindik. Dena den, guztia emateko prest gaude.

Noiz jokatuko duzue jaitsiera fasea?

Oraindik ez dakigu noiz, non eta zenbat partida jokatuko ditugun. Dakigun bakarra da ze beste bost talde egongo diren, eta, fase horretako sei talde horietatik, lehenengo hirurek datorren urterako plaza mantenduko dute.

Hiru punturekin hasiko duzue jaitsiera fasea; ze itxaropen duzu?

Aurreko urtean punturik gabe heldu ginen, eta berdin-berdin mantentzea lortu genuen. Beraz, aurten hiru punturekin, nahiz eta beste talde batzuk gehiago izan, badaukagu mailari eusteko itxaropena.

Sua Zangitu, Burdinola taldeko kapitaina. S.Z.

Hockeya kirol minoritarioa da; nolakoak dira entrenamendu-saioak?

Kiroldegia beste kirol batzuekin partekatzen dugunez, astean bi egunetan bakarrik entrenatzen gara. Gainera, oso berandu: astelehenetan 21:00etatik 23:00ak arte eta eguenetan 21:30etik 23:00ak arte. Ez dugu kategoriatan banatuta entrenatzen, ez daukagulako hainbeste orduz pista libre. Infantiletatik gora, denok batera entrenatzen gara.

Badauka harrobirik hockeyak Bergaran?

Kirol minoritarioa bada ere, badauka eta badaude ume ugari; batez ere, irristaketan dabiltzanak. Baliteke haiek etorkizunean hockeyan jarraitzea.

Gazteak hockeyan hastera animatuko zenituzke?

Normalean, gazteek futbola edo saskibaloia aukeratzen dituzte txikitatik. Nahiz eta kirol politak izan, gazte guztiak animatzen ditut kirol desberdinak probatzera, posible delako, adibidez, hockeya gustuko izatea.

Garaipenik ez Labegaraietan

Espainiako emakumezkoen zilarrezko ligaren baitan, hiru partidutik hiru galdu zituzten joan den asteburuan Labegaraietan, eta horregatik jokatu beharko dute jaitsiera fasea. Las Rozasen kontra 3-0 galdu zuten; Gadexen aurka, 4-1; eta Tres Cantosen kontra, 0-3. Jaitsiera fasea noiz jokatuko den zehaztu gabe badago ere, hiru punturekin hasiko dute.

Burdinolako jokalariak, asteburuan, Labegaraietan. ENEKO AZURMENDI

NIRE USTEZ

MIKEL GOENAGA

'Abdeeklortx'

Asmatu ezetz izenburuak ezkutatzen duen hitza! Hauxe da Bergarako dendari elkarteak proposatzen digun jokoa aurtengo Gabon jaietan. Erantzuna herriko dendetan topatuko dugu. Hitza osatzen duten letrak dendetako erakusleihoetan sakabanatuta egongo dira. Dakizuenez, *Bedelkartxo* da erantzuna, osatu beharreko hitza –baita *Bedelkar* edo *Elkar*–. Letrak topatu, argazkia atera, eta denak bildutakoan, Bedelkarrera bidali beharko ditugu, Whatsapp bidez. Partaideen artean gero hainbat opari zozketatuko dira. Baina hau gutxienekoa da; helburua ez da hitza aurkitzea, edo zozketan parte hartu eta irabaztea. Helburua herrian erostea da. Herriko merkataritza sustatzea. Denok defendatu nahi dugun hori, baina, agian, behar beste defendatzen ez duguna. Hitzez defendatzetik ekinez defendatzera, baina ez hitza bilatzen soilik. Ziur nago erakusleihoetan barrena begira gauden bitartean ikusiko dugula gustuko dugun zerbait, hari edo honi oparitzeko jai hauetan. Irakurle, ea asmatzen duzun egiten duzun opariarekin. Eta asmatzen duten egiten dizutenarekin. Eguberri on guztioi.

San Silvestre solidarioan ekarpena egiteko deia

Bi kutxa jarriko dituzte abenduaren 31n, partaide guztiek "Gabonak gozatzeko" elikagaien dohaintza egin dezaten

I.A.A. BERGARA

Abenduaren 31n egingo den San Silvestre solidarioan ekarpena egiteko dei egin die Hankaluze Trailek adin guztietako parte-hartzaileei. San Silvestre Trail lasterketa handiaren aurretik, haurrendako 300 metroko lasterketa egiten dute, eta partaideek "Gabonak gozatzeko" elikagaiak ematen dituzte ondoren, Elikagai Bankura bideratzeko. Aurten, ordea, helduen lasterketan aterako direnei ere ekimenean parte hartzeko eskatu diete, "azken urteetan gero eta elikagai gutxiago bildu direla ikusita".

Horregatik, San Silvestre ofizialaren dortsal-banaketan bi kutxa handi jarriko dituzte. "Helburua kutxa horiek betetzea da. Parte-hartzaile guztiei elikagai ekarpen bat egiteko dei egiten diegu, guztion artean elkartasun keinu handia lortzeko. Aurten ere, parte-hartzaileen babesa ezinbestekoa da Gabonak guztiok merezi bezala ospatu ahal izateko. Eskerrik asko zuen laguntzagatik", adierazi du antolakuntzak.

Pilotako bi kanporaketa jokatuko dituzte gaur

Gipuzkoako Eskuz Banakako Txapelketako bi kanporaketa jokatuko dituzte gaur pilotari bergararrek Antzuolako frontoian, 18:00etan hasita. Infantil mailan, Olanok (Bergara) final laurdena jokatuko du Labakaren (Ataun) aurka. Kadeteetan, final zortzireneko kanporaketa jokatuko dute Contrerasek (Bergara) eta Izagirrek (Abantzu/Zestoa).

Urola hartuko dute mahoneroek domekan Agorrosinen

Bergarako Ohorezko Erregional mailako taldeak Urola KE hartuko du domekan 12:00etan Agorrosinen. Iker Ruiz de Larramendiren taldeak bere gain dauka bigarren postu horri eustea. Bost puntura daukate lehen postua bergararrek Pasa den astean sailkapenean azkena den Vasconiaren kontra hiruna berdindu zuten mahoneroek.

Dantzaz haratago joatea aukeratu du Aukeran-ek

'Amama' ikuskizunarekin, "konfort-gunetik irtetea" erabaki du Aukeran dantza taldeak; besteak beste, lehen aldiz egin dute umeei zuzendutako lan bat. Donostian estreinatu ostean, Seminarixora helduko da bihar, abenduak 14, (18:00); ordubete inguru irauten du

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Abenduaren 1ean estreinatu zuen Aukeran dantza konpainiak *Amama*, Donostiako Victoria Eugenian. Ikuskizuneko zuzendari Edu Muruamendiarazen (Bergara, 1964) arabera, "oso ondo" joan zen estreinaldia: "700 bat lagun joan ziren antzokira, eta uste dugu oso gustura geratu zirela". Bihar, hilak 14, Seminarixora helduko da (18:00); sarrerak *seminarixoa.eus*-en daude salgai, lau eurotan.

Amama ikuskizunaren estreinaldia, Donostiako Victoria Eugenian. DAVID HERRANZ

Donostia, Bergara eta Urnieta

Umeei zuzendutakoa, zazpi ipuin kontatzen ditu ikuskizunak, dantzen bidez; euskal lurralde bakoitzeko koreografia bana. Ordubete irauten du obrak: "Erronka da ume baten atentzioa mantentzea ordubetez; Donostian, behintzat, lortu genuen, ikuskizun oso dinamikoa da eta. Ume horietako bat dantza mundura hurbiltzea lortzen badugu, borobila litzateke; azken finean, eurak izango dira etorkizuneko gure dantzariak". Bizileku duen Donostian izan zen lehen emanaldia eta haren jaioterrian izango da bigarrena: "Kasualitatez, halaxe tokatu da, oso pozik nago. Ez hori bakarrik; hirugarren emanaldia Urnietan izango da, dantza eskolak ematen ditudan herrian. Kasualitate ederra...".

Erronka konpainiarentzat

Amama ikuskizun "ezberdina" dela dio Muruamendiarazek. Hasteko, familiei zuzendutako ikuskizun bat ez da ohikoena Aukeranentzat. Horrez gain, askotariko diziplinak tartekatzen dituzte: "Maskarak, txotxongiloak eta ikus-entzunezko proiekzioak daude, eta antzeztu ere egiten dugu, besteak beste. Amamaren papera Lolik [Astoreka] egiten du, baina bilobak dantzariak dira. Ez dugu dantza bakarrik egiten; esparru berri batean sartu gara, mundu berri batean".

LOLI ASTOREKA AKTORE EZAGUNA DA AMAMA, ETA TALDEKO DANTZARIAK DIRA HAREN BILOBAK

Duela urte eta erdi hasi zuten *Amama* taularatzeko bidea: "Bapo-Bapo Produkzioak-eko Aitor Narbaizarekin elkarlanean dihardut azken hamar urteetan, eta proposatu zidan hurrengoa familia-ikuskizun bat izatea, ipuinetan oinarrituta. Hasieran harriduraz hartu nuen, baina, buruari buelta batzuk eman ostean, iruditu zitzaidan gure burbuilatik irteteko aukera ona izan zitekeela. Hasierako ideiari forma ematen ibili gara urte eta erdi luzez. Hasiera batean, ezjakintasunetik, pentsa dezakezu umeendako denez errazagoa izan daitekeela, baina alderantziz da, askoz zailagoa. Erronka handia bezain konplikatua izan da, baina gustura gaude emaitzarekin".

Bidelagun ederrak

Juan Kruz Igarabiderenak dira zazpi ipuinak; haren atea jo zuten, eta baiezkoa jaso zuten hasieratik. Ipuin horiek dantzen bidez kontatzeko ezinbestekoa zuten musika, eta, horretarako, Joxan Goikoetxearengana jo zuten. "Aspaldiko harreman pertsonala daukat Joxanekin, eta banuen harekin lan egiteko gogoa; proposamena bota genion, eta baietz".

Muruamendiaraz da zuzendaria, baina zuzendari artistiko baten beharra zegoen, trantsizioak eta bestelakoak borobiltzeko; horretarako, Elena Bezanillarekin jarri ziren harremanetan: "Umeendako antzerkigintza da haren mundua, eta ekarpen handia egin digu". Haiez gain, beste hainbat bidelagun ere batu dira proiektura, eta, haien artean, besteak beste, amamaren rola egiten duen Loli Astoreka aipatu du bergararrak: "Duela 30 bat urte, emaztea eta biok Japoniara joan ginen dantzan egitera, eta han harreman oso estua egin genuen Lolirekin; *Amama*-ren ideia irten zenean, argi nuen Loli zela aukera onena, eta proiektura batu zen. Protagonismo handia du ikuskizunean; ohorea da halako antzezle bat izatea oholtzan, ipuin kontalari".

IMANOL SORIANO

Distira berritua dario harribitxiari

San Pedro elizako 1889ko Stoltz Freres organo eraberritua abenduaren 8an inauguratu zuten ofizialki; hainbat herritar joan ziren elizara eta pantaila baten bidez ikusi zuten Aitor Olea organo-jolearen emanaldi berezia. Olea "pozik, hunkituta eta oso eskertuta" zegoen, eta azpimarratu zuen aurrerantzean organoa bizirik eta aktibo izatea izango dela helburu nagusia.

JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

Erromatar garaiko izenen bila

Jardunek eta Goienak euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz antolatuta, Juan Martin Elexpururen *Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan* izeneko liburua aurkeztu zuten eguaztenean Olaso dorrean. Bergararrak Nabarralderekin argitaratu du 300 argazki eta hamar mapa jasotzen dituen 240 orriko liburua; Irulegiko Eskuaz ere badihardu.

Euskaraz irakurtzera animatzeko kanpaina, Jardunen eskutik

Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina jarri du martxan aurten ere Jardunek. Abenduaren 9tik 15era, ipuina sortzeko tailerra, euskarazko liburuak merkeago erosteko aukera eta literatura solasaldiak antolatu dituzte. Ipuina sortzeko tailerra gaur izango da, hilak 13, udal liburutegian (17:30). Euskarazko liburuak merkeago erosteko, Elkar dendako euskarazko edozein liburu erosi ostean Jardunek Oxirondo azokan duen egoitzara joan eta han deskontua eska daiteke; gehienez bi liburu izango dira pertsonako, eta epea abenduaren 20an amaituko da.

Amaitzeko, udazkeneko literatura solasaldi zikloaren barruko azken saioa abenduaren 18an izango da. Xamar-en *Etxera bidean* liburua izango dute hizpide, Mikel Antzak gidatuta. Irizar jauregian izango da solasaldia, 18:30ean hasita.

Gehiago Gara jaia antolatzen dabiltzanetako batzuk; tartean, antzuolarrak. HIL ARGI ELKARTEA

Zer dakar jai honek zuentzako?

ENEKO ITURBE
HERRITARRA

"Ez dakit gure antzeko bizipenak dituztenekin izango den, baina galera garrantzitsu bat izan duen jendearekin enpatia sentitzeko momentu bat, behintzat, izan daiteke jaia; babesa sentitzeko gune bat. Hain zuzen ere, horrek ematen digu indarra: babes hori izatearen sentsazioak".

KRISTINA PAVO NUÑEZ
HERRITARRA

"Horrelako ekitaldi bat Antzuolan egitea pozgarria da gure familiendako. Igarota gaude iluntasunetik, baina jaiak bizipozerako deialdia du: nahiz eta gaizki pasatu eta mina sentitu, dolu prozesua zeharkatu, erakutsi nahi dugu denborarekin eta landuta ondo eta zoriontsu bizi daitekeela".

Hildako haurrak oroituko dituzte etzi, "bizipozetik"

Hil Argi elkartearen ekimenez, Bizipoza elkartearen laguntzarekin, Gehiago Gara jaia egingo dute domeka goizean, umeak galdu dituzten familiei eta ingurukoei zabalduta, "elkarrekin une on eta goxoa pasatzeko" asmoz; jai giroan ospatuko dute eguna

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Hil diren haurrak "bizipozetik" oroitzeko asmoz, Gehiago Gara jaia egingo dute domekan, abenduaren 15ean, Zurrategi plazan –eguraldi txarra eginez gero, eskolako patioan izango da–, 11:00etan. "Gehiago Gara jaian elkartuko garen denok, hainbat arrazoirengatik izanda ere, gure seme-alabak, ilobak, ikasleak, lagunak... galdu izanak lotzen gaitu. Guztiok sentitzen dugu mina gure azalean, eta hortik ikasitakoak elkar ulertzera eta babesgunea sortzera eraman gaitu", adierazi dute Hil Argi elkarteko kideek, jaiaren sustatzaileek, Bizipoza elkartearekin batera. Azpimarratu dutenez, "minak zeharkatuz", hil diren haur horiek "bizipozetik oroitzeko" unea izango da, *Gure irribarre bakoitza zuen omenez da* lelopean: "Gure irribarrea eskaintzera baikatoz".

Eneko Iturbe eta Kristina Pavo herritarrak dira, hain zuzen ere, jaiaren antolaketan dabiltzan antzuolarretako bi, eta nabarmendu dute umeak hil zaizkien familien arteko jai bat egitea dela asmoa, "emozio guztiei tokia eginez: gure artean elkartu, babesa eman eta modu alaian momentu polit bat pasatzea". Horretarako, besteak beste, marraztu, dantzatu eta kantatu egingo dute, eta aurreratu dute "sorpresatxoren bat edo beste" ere izango dela.

Ekitaldia "inguruan haurrak galdu dituen jendeari zuzenduta" dago, "une polit bat pasatu dezakeela ikusten duenari".

Gehiago Gara ekimena

Gehiago Gara ekimenaren helburua "egungo gizartean haurren heriotzaren gaiaren aurrean hitz egiteko zailtasuna eta ezina eraldatzea" da, hezkuntzan, osasungintzan eta hainbat erakundetan esku hartuz, Hil Argi elkarteko kideen hitzetan: "Haurrak hiltzen zaizkigunean sortzen den min handiari gehitzen zaio sarritan gizartean izaten den isiltasunak eta naturaltasunez jarduteko ahalmenik ezak eragiten duen mina. Soberan dagoen min hori gainditu nahi dugu Gehiago Gara ekimenaren bidez, eragile bakoitzak bere alorrean haurren heriotza, eta heriotza haurrekin, naturaltasunez eta humanitatez bizi izateko jarrerak bultzatuz".

Horrez gainera, ordea, bada aldarri gehiago, Iturberen esanetan: "Haurrak galdu ditugun familiok bizitzen jarraitzen dugula erakustea, hori baino gehiago garela eta oraindik bizi gaitezkeela".

MARRAZTU, KANTATU ETA DANTZATU EGINGO DUTE, ETA SORPRESAREN BAT ERE IZANGO DA

Odol-emaileei omenaldia

Urteroko ohituraren jarraituz, Antzuolako odol-emaileen taldeak odol-emaile batzuk omendu ditu; kasu honetan, 25, 40 edo 60 aldiz odola eman duten bost herritar izan dira omendutakoak, domina bana emanda: Maria Luisa Lasa, Ainitze Segurola, Mari Jose Iparragirre, Maite Zumelaga eta Idoia Conget. Ondoren, afari ederra egin zuten.

ANTZUOLAKO ODOL EMAILEEN TALDEA

OHARRAK

Film laburren emanaldia

Lau elementuak izenpean, film laburren emanaldia izango da bihar, hilak 14, Torresoroa aretoan, 18:30ean. Tartean da Pette Etxeberriaren *Oiogorri* lana, Antzuolan eta Aiherran grabatua.

Musika ikasleen ikuskizuna

Bergarako musika eskolako ikasleen emanaldia izango da astelehenean, hilaren 16an, Torresoroa aretoan, 18:30ean. Zenbait antzuolar izango dira parte-hartzaileen artean.

Gimnasia erritmikoa

Gimnasia erritmikoko ikasleek Gabonetako erakustaldia egingo dute eguaztenean, hilaren 18an, udal pilotalekuan, 17:30ean.

'Nunavut', arte diziplinen arteko proposamena

Myriam Perez Cazabon dantzariaren zuzendaritzapean, 'Nunavut' ikuskizuna ikusteko aukera izango da etzi arratsaldean Torresoroan: dantza, antzerkia eta musika batzen ditu, besteak beste, eta herritar orori zuzenduta dago; sarrerak salgai daude

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Ipuin kontaketatik abiatuta, dantza garaikidea eta antzerki fisikoa, soinu artea eta arte plastikoak uztartzen dituen ikuskizuna da *Nunavut*, "soinu eta material adierazpenen hibridaziotik paisaia indartsu eta poetikoz beteriko kontaketa" proposatu nahian publikoari: "Haur-ipuinak dira inspirazio iturri, zeinak belaunaldien eta kultura ezberdinen arteko transmisiorako erreminta adierazgarritzat ulertzen ditugun, baita iruditegiaren pizgarri baliotsutzat ere. Ipuinetan aurkitu ditugu transgenerazionalak eta unibertsalak diren hiru ildo nagusiak: maitasuna, munstroak eta jolasa".

Myriam Perez Cazabon dantzaria –Neri(h)ari da izen artistikoa– da, hain zuzen ere, *Nunavut* ikuskizunaren zuzendaria; 2022ko ekainaren 25ean estreinatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko dirulaguntza bati esker. Hala ere, ez da proiektuko kide bakarra, alboan baititu Olaia Valle, Nerea Gurrutxaga eta Leire Otamendi dantzariak, Idoia Hernandez *Hatxe* eta Peru Galbete musikariak, Clara Virgili diseinatzailea, eta Oihana Vesga, Bertha Bermudez eta Idoia Zabaleta laguntzaile artistikoak.

Nunavut ikuskizunaren momentu bat. NERI(H)ARI

360 GRADUKO LAN BAT DA, PUBLIKOA INGURUAN DUENA; OHOLTZAN, MUSIKARI BAT ETA BI DANTZARI

Publiko orori zuzendua

Ikuskizunak "ezohiko formatua" duela azpimarratu du zuzendariak, 360 graduko proposamen bat baitute sortua publikoa inguruan eser dadin. Oholtzan, berriz, hiru artista egongo dira: bi dantzari eta musikari bat. "Publiko orori zuzendua da, bai haurrei eta bai helduei; baita haurrak diren helduei eta heldu diren haurrei ere".

Torresoroan izango da ikuskizuna, hilaren 15ean, domekan, 18:30ean, eta Entradium plataforman daude salgai sarrerak, aurrez hartu nahi izanez gero: 10 euroko prezioa du ohiko sarrerak; eta ikasleenak, berriz, 5 eurokoa.

Dantza garaikideko ikastaroa

Antzuolako Udalak orain dela urtebete, iazko abenduan, abiatu zuen *Gorputza da hitza* egitasmoa, dantza garaikideari ez ezik garrantzia eman nahian emakume koreografoei eta dantzariei. Orduz geroztik, hainbat tailer antolatu ditu herrian, eta domekan, abenduaren 15ean, izango da azkenekoa, Myriam Perez Cazabon dantzari, koreografo eta irakaslearen –Neri(h)ari izenpean sortzen ditu ekoizpena– eskutik. Hain zuzen ere, hura da *Nunavut* ikuskizunaren zuzendaria.

Izen-ematea martxan da

Iruditeria kolektiboaren artxipielagoa izenpean, familientzako dantza ikastaroa egingo du dantzariak Torresoroa aretoan, ipuin kontaketa, dantza garaikidea eta soinu artea uztartuta, 11:30ean hasita. Azaldu duenez, 4 eta 99 urte arteko herritarrei zuzenduta dago, haurrek heldu batekin joan behar duten arren, baina izena aurrez eman behar da, Udalak ohartarazi baitu gutxienez hamar pertsonako taldea osatu behar dela ikastaroa egin ahal izateko; horretarako, gaur da azkeneko eguna, 13:00ak arte baitago apuntatzeko aukera, udaletxean.

San Esteban krosean izena emateko azkeneko eguna da

Ohi bezala, hilaren 26an egingo dute, arratsaldean, eta haur, gazte zein helduek dute parte hartzeko aukera

A.R.K. ANTZUOLA

Udalak antolatuta, bederatzigarren aldia izango du aurten San Esteban krosak, eta gaur da, hain zuzen ere, izena emateko azkeneko eguna: eskolan, liburutegian edo udaletxean dago horretarako aukera.

Haurrek, gazteek eta helduek dute parte hartzeko aukera, hainbat lasterketatan: 17:30ean, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailetakoen txanda izango da, eta 300 metro egin beharko dituzte lasterka; 17:45ean, berriz, LH-3koek eta LH-4koek hartuko dute lekukoa, 500 metroko krosa egiteko, eta, aldi berean, LH-5ekoek eta LH-6koek 1.000 metrokoa egingo dute; azkenik, 18:00etan, bi lasterketa abiatuko dira: DBH-1 eta DBH-4 artekoena, 2.500 metrokoa; eta 16 urtetik gorakoena, 5.000 metrokoa.

Boluntarioen beharra

Udalak, hala ere, jakinarazi du boluntarioak behar dituztela San Esteban krosa egin ahal izateko, ibilbidean zehar laguntzeko. Hala, animatzeko dei egin die herritarrei.

Martxan da 2025eko federazio-lizentzia eskuratzeko kanpaina

Arrola mendi elkarteak antolatuta, martxan da datorren urteko mendiko federazio-lizentzia eskuratzeko kanpaina; azaldu dutenez, hilaren 20ra arte, egubakoitza, dago federatzeko aukera, *arrolamt@gmail.com* helbidera mezu bat bidalita. Hala ere, aurrez aurre ere egin daiteke: hilaren 19an, eguenean, izango da horretarako bidea, 18:30etik 19:30era bitartean, Olarango elkarteen gelan, lehenengo solairuan.

Hala ere, elkartekideek jakinarazi dute herritarrak eurekin jar daitezkeela harremanetan, eskaerak edo zalantzak izanez gero, *arrolamt@gmail.com* helbidera mezu bat bidalita.

Amaia Perez Orozcok hitzaldia egingo du eguaztenean Olaranen

Meaka-Irimo herri plataformak eta Andramanuelak emakume taldeak antolatuta, *Decrecimiento ecofeminista para vivir bien* (Desazkunde ekofeministaondo bizitzeko) izenpean, hitzaldia egingo du Amaia Perez Orozcok eguaztenean, abenduaren 18an, Olaran kultur etxean; 18:30ean izango da, gazteleraz.

Hain zuzen ere, ekonomialari feminista da Orozco, eta Nazioarteko Ekonomian eta Garapenean doktorea; lotura estua du, gainera, ekofeminismoaren alorrarekin. Hala, horren guztiaren dibulgazioan aritu izan da urtetan aditutzat, bizitza erdigunean jarri dadin zenbait gako emanez.

'Dei galdu bat' lana aurkeztuko du Idoia Garzesek eguenean

Ateak itxi berri ditu Durangoko Azokak, baina Euskal Herriko liburu-dendetara heltzeko unea iritsi zaio orain, *Zu non, han da!* izenpean antolatutako azoka ibiltaria dela eta. Idoia Garzes idazlea, esate baterako, Itzar liburu-dendan izango da eguenean, hilaren 19an, *Dei galdu bat* liburua aurkezten, arratsaldeko zazpietan.

ION ANDER CASTRO ZABALA

Era guztietako aulkien konponketa

Zumezko artikuluen salmenta

TAPIZERIA OROKORREAN

943 78 71 65
639 01 69 69

Liburu batean jasota 700 urteko udal antolaketa

Manolo Cainzosek, Fernando Larrañagak eta Txema Barrutiak udal artxiboan egiten duten lanak fruituak ematen jarraitzen du. Liburu berri bat dute esku artean: 'Elgetako gobernantza. 688 urteko hiribildua'. Hilaren 20an aurkeztuko dute

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Elgetarrek, gaur egun, lau urtean behin aukeratzen dute Udal Gobernua, eta udalbatza bi hilean behin elkartzen da, herriarekin lotutako erabakiak hartzeko. Ez da beti horrela izan. Gaztelako errege Alfontso VIII.ak 1335ean eman zion hiri-gutuna Elgetako hiribilduari, eta urteotan guztietan gobernantza ereduak askotarikoak izan dira.

Hain zuzen ere, horien berri ematen dute Manolo Cainzosek, Fernando Larrañagak eta Txema Barrutiak –argazkian falta da– azken urtean landutako *Elgetako gobernantza. 688 urteko hiribildua* liburuan. Ordu asko eman dituzte udal artxiboko dokumentu historikoak aztertzen, eta gertakari xelebre asko aurkitu dituzte.

Cainzos eta Larrañaga, liburu berriarekin eta artxiboko dokumentuekin. L.Z.L.

Dokumentu zaharretan jasota dago hasiera batean irekia zen kontzeju edo auzo-batzar batean hartzen zirela hiribilduaren gobernantzarekin lotutako erabakiak. "Dirudienez, lehenengo bilerak Andra Mari baseliza zaharraren atarian egiten ziren, eta kontzejuak funtzio bikoitza zuen: herri-ondasunak administratzea –mendiak, basoak...– eta auzotarren eta lurraldeko goi-erakundeen arteko bitartekari izatea. Lehenengo bilera ezaguna 1339koa da", azaldu dute liburuaren egileek. Agirietan jasota dago, baita ere, 1496koa dela kontzejuaren lehenengo etxea egiteko erabakia. Hiribilduko elizaren ondoan egitea erabaki zuten. Bi solairu eta ganbara zituen eraikinak, eta han zeuden alkatearen bulegoa, bilera-gela eta kartzela.

Tokiko gobernuaren antolaketako lehen ordenantza 1510ekoa da. Ordurako, kontzeju itxia zen, eta kargu nagusiak ziren: alkatea, diruzaina, hiru zinegotzi, epaimahai bat eta kartzelaria. "Elgeta, orduan, hiru gunetan banatuta zegoen: hiribildua, Angiozar eta Jalotza (Ubera). Karguak urtero berritzen ziren, San Migel egunarekin, eta txandaka hartzen zituzten karguak hiribilduko, Angiozarko eta Jalotzako auzotarrek". Kargua uzten zutenek zerrenda bat prestatzen zuten. Bertan, herrian jabegoa zuten eta idazten zekiten 20 urtetik gorako gizonen izenak jasotzen ziren. "Zerrendako izenak ontzi batean sartzen ziren, eta ume batek hiru ateratzen zituen. Hiru gizon haiek, berriz, alkate kargurako nahi zuten herritarraren izena idazten zuten paper banatan, eta berriz botatzen ziren ontzira. Zozketan aukeratua irteten zenak betetzen zuen alkate kargua, urtebeterako. Horrela funtzionatu zuen gauzak, 1845ean Udal Legea ezarri zen arte".

Alkate izandakoen zerrenda

Udal artxiboko lantaldeak ezin izan ditu hutsune guztiak bete, baina 250 izenetik gorako zerrenda da. Listako lehenengoa Juan Garcia de Galarraga da, 1339ko alkatea. Bitxikeriak ere badaude: "Gerra garaietan gorabehera handiak izaten ziren, eta Lehen Karlistaldian, 1835ean, urtebeteko epean zazpi alkate pasa ziren", azaltzen du Larrañagak. "Eta Elgetako 700 urteko historian gehien iraun duen alkatea Patxi Basauri izan da –31 urte–. Hurrengoa Bartolome Elkoro –10 urte–".

Liburuak idazkari izandakoen zerrenda ere jasotzen du. 700 urteko historian emakume bakarra: Maria Angeles Elkoro. 35 urtez izan zen idazkari karguan, 1979tik 2014ra. Luzaroan egon direnen zerrendan bosgarrena da.

Aurkezpena prestatzen

Elgetako armarriaren historia, azken hamarkadetako alkateen eta zinegotzien argazkiak... Herriaren gaineko informazio asko jasotzen du liburuak, eta horien guztien berri emateko aurkezpen ekitaldia egingo dute Cainzosek, Larrañagak eta Barrutiak. Liburuaren ehun ale inprimatu ditu Udalak. Aurkezpenaren ostean zintzilikatuko dute udal webgunean.

LIBURUA AURKEZTEKO EKITALDIA HILAREN 20AN IZANGO DA, 19:00ETAN, UDALETXEAN

Mek Lema enpresako langileek bi lanuzte egin dituzte asteon

Lan-hitzarmenaren negoziazioetan aurrerapenik ez bada gatazka gogortu egingo dutela ohartarazi dute

L.Z.L. ELGETA

Langile Batzordeak deituta –2 ELA, 2 LAB eta 1 CCOO–, ordubeteko bi elkarretaratze egin dituzte, asteon, Mek Lema enpresako langileek. Enpresa atarian mobilizatu dira, *Paktu duina orain* zioen pankartaren atzean, bai astelehenean bai atzo eguerdian. "Mek Lemako Langile Batzordeak hainbat bilera izan ditu zuzendaritzarekin –azkena, urrian–, baina ez dute negoziaketan aurrerapausorik ematea lortu", adierazi du ELA sindikatuko ordezkari batek.

Lan-hitzarmen "duina"

Pagatza industrialdean dago Mek Lema, eta pieza metalikoak egiten dituzte. Ehun bat langile ditu enpresak. ELA sindikatuak adierazi dut uztailean hasi zirela lan-hitzarmena negoziatzen, eta gaur egun 2024ko eta 2025eko akordioa dagoela mahai gainean. Soldata igoera eta lanordu jaitsiera dira eskaera nagusiak.

GOIENA harremanetan jarri da enpresarekin, baina zuzendaritzak ez du, oraingoz, adierazpenik egin.

Jon Maiaren 'Kantu berri bat gara' emanaldia Elgetan

Elgetako Udalak iragarri du Jon Maiaren *Kantu berri bat gara* ikuskizuna Espaloia kafe antzokian ikusteko aukera izango dela. Urtarrilaren 31rako iragarri dute, 22:00etan. Sarrerak online egongo dira salgai laster. Prezioa 15 euro da –gehi 1,5 euroko kudeaketa-gastuak–. Egunean bertan ere egongo dira sarrerak salgai, 18 eurotan, leihatilan.

2021ean kaleratu zuen Jon Maia bertsolari zumaiarrak *Kantu bat gara* diskoa, 30 urtez idatzitako kantuen antologia. Arrakasta ikusita, iaz argitaratu zuen *Kantu berri bat gara* disko-liburua. Zuzeneko emanaldia Elgetan ikusteko aukera izango da urtarrilean.

L.Z.L.

Altxa Burua saioa, familiendako

Altxa Burua Elgeta taldeak antolatuta, heziketa digitalari buruzko ordu eta erdiko tailerra egin zuen Miren Ros adituak, eguaztenean, liburutegian. Nerabeek –LH-6 eta DBH-1– eta gurasoek elkarrekin jarduteko tailerra izan zen. Pantailen erabilera okerrak kezka sortzen du, eta horren inguruan aritu ziren gazteak eta helduak batera.

Arantzeta baserriko Peio Bilbao, ondoan *Kaxilda* txerria duela, eguaztenean. I.A.A.

'Kaxilda', Donostiako San Tomas eguneko izarra

Elgetako Arantzeta baserriko 'Kaxilda' txerria da Donostiako San Tomas egunerako hautatu duten txerria; 350 kilo ditu, momentuz, duroc arrazakoa da eta "kurioso eta kuxkuxero" bezala definitu du animalia hazi duen Peio Bilbao abeltzainak

Idoia Aranbarri Arzuaga ELGETA

Elgetako *Kaxilda* izango da Donostiako San Tomas eguneko txerria, eta abenduaren 21ean Gipuzkoako hiriburuko Konstituzio plazan egongo da ikusgai. 21 hilabete baino ez ditu eta 350 kilo pisatzen du, baina egunero kilo eta erdi hartzen dituela adierazi du animalia hazi duen Arantzeta baserriko abeltzain Peio Bilbaok. Hortaz, aurreikusten du festa-egunera 40 kilo gehiagorekin iritsiko dela.

Basatxerri kooperatibatik datorren txerria da, duroc arrazakoa. "Hibridoa da. Basatxerriak libre hazitako txerriak dira, eta hemen inguruko mendietan ibiltzen dira", dio.

Bost kilo baino gehiago janari

Ia 400 kilorekin iritsiko da *Kaxilda* Elgetatik Donostiara, eta pisua irabazteko egunero bost kilo eta erdi pentsu jaten ditu. Elikatzeko prozesuaz galdetuta dio toldo handietan jartzen dituztela txerriak, egun osoan nahi beste jateko eta beste horrenbeste urekin.

Jaten duen pentsua edo masa hori osatzeko, babak, garia, artoa eta soja erabiltzen ditu.

Kuriosoa eta kuxkuxeroa

Emeak izan ohi dira santomasetako txerriak, eta izena Donostiako Udalak jartzen diela adierazi du Elgetako abeltzainak. Aurtengoari *Kaxilda* izena jarri izana egoki ikusi du Bilbaok. Hala, txerria "kurioso eta kuxkuxero" moduan definitu du.

205 txerri ditu bere lurretan elgetarrak, baina, hain justu, txerri jakin hori hautatzeak ez du misterio handirik izan, Bilbaoren esanetan: "Sortako handiena hartzen da, tamaina handiarekin eraman dezaten. Ez dauka bereziki beste ezer. Handia izatea, eta gero, hazten doan heinean, ohitu egiten da abeltzainarekin egoten, eta horrek aldea egiten du. Txerri ederra da. Solomo luzeak ditu eta San Tomas egunerako prest egongo da".

BILBAOK BADU ITXAROPENA DONOSTIAKOA URTEROKO HITZORDU BILAKATZEKO

Luzera begirako estreinaldia

Lehen aldiz eramango du Bilbaok bere txerri bat Donostiako santomasetara. Azken bi urteetan Basatxerri kooperatibaren kide den Aizarnazabalgo Larraxko baserriko Manu Izagirreren txerriak izan dira hautatuak. Jubilatu egin da, ordea, eta elkartea gazte baten bila zebilela azaldu du Bilbaok. Gustura hartu du erreleboa, ikasteko gogoz.

Badu itxaropena datozen urteetan Donostiakoa urteroko hitzordu bilakatzeko: "Saiakera hori izango da. Aurten egingo dugu lehenengo proba. Ea datorren urtetan nondik doan, eta horren arabera erabakiko dugu jarraitu edo ez; printzipioz, bai".

Torraldea. EAJ

Aurrekontuarekin lotutako lau proposamen egin ditu EAJk

Udaletxearen, Torraldearen eta eguneko zentroaren proiektuak eta birziklapena handitzea dira proposamenak

I.A.A. ELGETA

Elgetako EAJk asteon aurkeztu ditu 2025eko aurrekontuari begira Udal Gobernuarekin negoziatzen hasteko landu dituen lau proposamenak. Iker Laka bozeramaileak aurreratu duenez, "gai ezagunak dira, ondo jorratutakoak, eta EAJk estrategikotzat jotzen dituenak Elgetaren etorkizunari eta elgetarren beharrei erabakitasunez aurre egiteko".

Hala, lehen proposamena da udaletxea eraberritzeko proiektua idazteko eskatzea: "Historikoki aldarrikatu dugu, eta errealitate hori gero eta atzeraezinagoa da. Argi dago udaletxe zaharkituta dugula, hezetasuneta irisgarritasun-arazoekin eta espazioaren aprobetxamendu falta nabariarekin. Kontua bideratu egin behar da".

Bigarrena Torrealdean dagoen eraikuntza-egiturari konponbidea ematea da. Proposatu dute proiektua garatzeko dauden aukerak eta horren bideragarritasuna aztertuko dituen azterlana egitea: "Horrela, etxebizitza eskuragarriaren eskaintza handitu, herrigunea osatu eta inguruko segurtasun-arazoei, pare bat sute kasu, amaiera emango litzaieke".

Hirugarrena hondakinei eta kaleen garbiketari dago lotuta. Lakaren esanetan, gaikako bilketa handitzeko kanpaina egin beharko litzateke. EAJren laugarren proposamenak etorkizunean eguneko zentroa San Roke kalera, udaletxearen alboko etxebizitzara, lekualdatzeko lehen pausoak ematea proposatzen du: "Proposamen hori Udal Gobernutik atera zen, baina uste dugu ez dela ganoraz lantzen ari".

2025eko ekitaldiko aurrekontua onartzeko osoko bilkura abenduaren 17an izango da.

OHARRAK

Aste Berdeko erakusketa domekara arte

Elgetako Udalak antolatutako Aste Berdearen barruan, hondakinen kudeaketari buruzko sentsibilizazio erakusketako argazkiak Zeramika gelan daude ikusgai.

Ipuinen ordua gaur

Ipuin kontalariaz gozatzeko aukera izango dute liburutegian HH2-HH4 (17:30-17:50), HH5-LH2 (18:00-18:20) eta LH3-LH5eko haurrek (18:30-18:50).

Musika ikasleen Gabonetako kontzertua

Elgetako musikariek Gabonetako emanaldia egingo dute, 19:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

Dwingi Dwingi taldeko kideak, *Ez deixein txapau* bideoaren grabazioaren momentu batean. BERNAT ALBERDI

Prest daude herrian kontsumitzeko osagaiak

Gabonetako erosketak bertako komertzioetan egiteko mezua zabaldu du Txandak, 'Ez deixein txapau' bideoarekin; Udalak urtarrilaren 6ra arteko egitaraua kaleratu du; eta kaleetan eta biribilguneetan jarritako argiak gaur, egubakoitza, piztuko dituzte

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Askotariko ekintzek osatzen duten udal egitaraua, Txandak egin duen bideoa sasoi honetako produktuak bertan kontsumitzeko, bezeroen artean loteria banatzeko abian jarri duen kanpaina, erretiratuek antolatuta dituzten txistor-janak, apaindutako erakusleihoak edo jarritako jaiotzak eta gaurtik, egubakoitza, piztuta egongo diren kaleetako argiak dira Oñatin ere Gabonak ospatuko diren iragarle.

Askotariko ekintzak

Erakusleiho lehiaketarako, esaterako, herriko 23 komertziok eman dute izena, eta zabalik dago botoa emateko epea. Bost sari egongo dira: hiru epaimahaikideek aukeratuko dituzte –500 euro, 300 euro eta 200 euro euro–; laugarrena herritarren saria izango da –500 euro–; eta bosgarrena, haurrena –300 euro–. Gainera, 100 euroko erosketa-bonu bana zozketatuko dute azken bi sari horien bozketan parte hartzen dutenen artean. Hilaren 19an, eguena, emango dituzte sariak, eta bezpera arte egongo da bozkatzeko epea zabalik.

Olentzeroren eta Mari Domingiren irudiak, bestalde, astelehenetik aurrera egongo dira ikusgai Santa Ana antzokiko harrera-gunean, eta kutxa bat izango dute ondoan, inork gutuna eman gura izanez gero. Hilaren 24an, hori bai, Otadui zuhaiztitik atera eta plazaraino iritsiko dira kalejiran, han umeei zein helduei harrera egiteko. Urte berriaren hasieran egiten den bertso saioa eta zaharrari agur esateko San Silvestre lasterketa ere egingo dira, baita bestelako urteroko kirol hitzorduak eta hainbat kontzertu ere. Bitartean, baina, Txanda elkarteak jarraituko du bezeroen artean loteria-txartelak banatzen, hori baita aurtengo Gabonetarako prestatu duten ideia bat. 5.000 euroko sariak banatuko ditu guztira, urtarrilaren 6ko loteriaren zozketarekin batera.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETAN HILAREN 18RA ARTE EMAN DAITEKE BOTOA; 19AN DA SARI BANAKETA

Merkataritza bultzatu

Horrez gain, aurten ere bideoa atera du dendarien elkarteak, bertan kontsumitzea eskatzeko. Joan den urtean moduan, herriko Dwingi Dwingi taldeak egin du; oraingoan, triki-rap erritmora. Herriko merkataritza bultzatzea du helburu bideoak, eta mezu zuzena zabaldu dute: *Ez deixein txapau*. "Gura duguna da jendeak bertan erostea. Denetariko produktuak daude, eta gertutasuneko harremana ere bai", eta "urtean zehar ere hemen jarraitzen dugu guk, eta herria tristea litzateke komertzioak itxita baleude". Halakoak dira dendarien adierazpenak.

GOIENA

Azokako parrilla, "arriskutsu"

Berdura plazan jarrita dauden parrilletako bat "jasota" dagoela eta hori "oztopo" bihurtu dela dio herriko guraso batek, GOIENAra argazkia bidalita: "Ume txikiak jolasean ibiltzen dira han sarri; jasota dagoen parrilla horrekin estropezu egiten dute, eta jausteko arrisku handia dago. Ondo jartzeak hori ez pasatzen lagunduko luke".

Materiala biltzeko kanpaina du martxan espetxe-pastoraltzak

Parrokiako espetxe-pastoraltzak aurten ere materiala jasoko du presoendako. Hauek dira jaso gura dituzten produktuak: barruko arropa berria, gizonezkoentzako kamisetak eta galtzontziloak eta emakumeentzako bularretakoak eta kuleroak; gizon nahiz emakumeentzako txandal-prakak, kamisetak eta kirol-jertseak; bainuko eta kirol oinetakoak; azazkalak moztekoak, tabako gorria, metxeroak, turroi biguna, seiluak, gutun-azalak eta boligrafoak. Hirukarren, Silleron eta Irizar estankoan aritu dira aste osoan material hori jasotzen, eta gaur, egubakoitza, da materiala denda horietara eramateko azken eguna.

Elkartasun azoka egingo du bihar, zapatua, Elkar Hezik

Gabonen atarian Elkar Hezik egin ohi duen elkartasun azoka egingo da aurten ere. Bihar, zapatua, izango da, 10:00etatik 14:00etara bitartean, plazan. Gobernuz kanpoko hamar erakundek jarriko dituzte euren postuak azokan. Gainera, bigarren eskuko salmenten postuak, tailerrak, jolasak eta txirikordak egiteko txokoa ere egongo dira.

Elikadurari buruzko beste bi hitzaldi datorren astean

Oñatiko Elikadura Taldeak antolatutako hitzaldien barruan, martitzenean, Amaia Diaz de Monasterioguren eta Andrea Larrea dietista eta nutrizionistek garaian garaiko produktuen garrantziaz eta trantsiziorako alternatibez egingo dute berba. Eguaztenean, berriz, ziklo beraren barruan, *Tokiko elikadura jasangarria eta etorkizuneko erronkak* izango da gaia. Mauxka jatetxeko Agus Otxoa-Aizpuruak hartuko du parte mahai inguru horretan, Bergarako Erindajan eta Izurtzako Eskubaratz taldeetako ordezkari banarekin.

Hitzaldi biak zinema-aretoan izango dira, 18:30ean.

Herriko artisauen azoka domekan berdura plazan

Oñatiko artisauek domekan egingo dute aurtengo Gabonetako azoka. Aurreko urteetan moduan, berdura azokan izango da, goizez, 10:30etik 14:15era. Herriko artisauek eskuz egindako makina bat produktu egongo da salgai, hainbat postutan banatuta. Erosketak egiten dituztenek sariak irabazteko aukerak izango dituzte.

"Bakarrik ez sentitzeko espazioa da Txingurri"

GEMA BIKUÑA ETA ARGILOAIN PEROSTERENA IZAN INURRI TALDEKO KIDEAK

'Gaixorik nago, eta zer?' elkartasun-kontzertua egingo du Hots abesbatzak hilaren 22an, minbizia bizi duten emakumeek osatutako Izan Inurri elkartearekin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Bularreko minbizia atzeman dioten emakume baten historia kontatuko dute, Whatsapp bidezko elkarrizketa baten eta kantuen bitartez, Hots abesbatzak hilaren 22an egingo duen elkartasun-kontzertuan. Izan Inurri elkartearekin batera prestatutakoa da, eta jasotako diruaren zati bat elkarte horrendako izango da. Hilaren 18an, eguaztena, baina, Izan Inurri elkartea zer den, nortzuek osatzen duten eta egiten duen lana ezagutarazteko, aurkezpen-ekitaldia egingo dute Santa Anan, 19:00etan. Gema Bikuñak (Oñati, 1974) eta Argiloain Perosterenak (Oñati, 1968) hartuko dute parte.

***Minbizia* gaia aukeratu du aurten Ganbarako Hots abesbatzak elkartasun-kontzerturako.**

A.P.: Eta gu oso eskertuta gaude. Kontzertua oso polita izango da, eta, egun batzuk lehenago, gaiari buruz berba egiteko ekitaldi bat egingo dugu. Minbizia ez da arrotza, eta, berba egiten den arren, beti da lagungarria jakitea nora jo horrelako egoera bat bizitzea tokatzen denean. Izan Inurri elkarteak, esaterako, asko laguntzen du akonpainamenduan, eta egiten duen lana erakusteko ekitaldia antolatu dugu eguaztenerako, kontzertuaren atarian.

Zer da Izan Inurri?

A.P.: Minbizia bizi duten edo bizi izan duten emakumeek osatzen duten elkarte bat da, Euskal Herri mailakoa. Helburua da minbizia duen emakume horri babesa, laguntasuna, eskaintzea. Gehienak bularreko minbizia izandakoak dira, baina badira beste minbizi mota batzuk pasa edo pasatzen ari diren emakumeak ere, eta bakarrik ez sentitzeko espazio bat, eremu bat, eskaintzen du. Ekitaldi horretan, espazio hori badagoela komunikatu gura dugu.

G.B.: Egia da bakoitzak ahal duen moduan edo gura duen moduan bizitzen duela gaixotasun hori; batzuek bakarrik, agian. Modu guztiak errespetatzen dira, baina jakin dezatela, behintzat, ez dutela zertan bakarrik pasa, badagoela espazio bat non beste emakume mordo batek euren egoera ulertzen duten eta berba egin dezaketen euren kezkez, beldurrez, emozioez edo ilusioez.

Bikuña eta Perosterena. O.E.G.

"GAIXOALDIAN BIZITZEN DIREN EGOERAK ISLATUKO DITUZTE KONTZERTUAN"

Nortzuek hartuko duzue parte?

A.P.: Izan Inurri elkarteko Olatz Mercader etorriko da, eta hark hartuko du hitza, Ganbarakoek euren proiektua aurkeztu ondoren. Eta gu biok ere han izango gara. Gainera, elkarteko materiala eramateko asmoa dugu: egutegiak, kamisetak, zapiak...

Izan Inurriren parean, Oñatin, Txingurri taldea duzue sortuta, ezta?

G.B.: Bai, hori da; geurera ekarri dugu izena eta Txingurri jarri diogu. Hemen ere bagaude minbizia izan dugun edo pasatzen ari garen emakumeak, eta helburu berarekin sortu genuen: akonpainamendua egiteko. Ez ditugu elkartzeko egunak, orduak eta tokiak guztiz zehaztuta, baina bai taldetxoa eginda eta edozein momentutan elkarri lagun egiteko konpromisoa hartuta. Askotan, hitz egiteko elkartzen gara, kafe bat hartuaz, esaterako, ulertzen dugulako gaixoak deskribatu edo kontatzen duen sentimendu, beldur edo emozio hori, eta barrenak husteko oso ondo etortzen dira horrelako terapiak.

Nola lan egiten du Txingurrik?

G.B.: 2021eko abenduan sortu zen taldea. Bularreko minbiziaren eta minbizi ginekologikoko prozesua pasatako oñatiar batzuk elkartzen hasi ziren, eta, euren partekatzearen onurak ikusita, taldetxoa handitzen joan da. Lasai berba egiteko espazio seguru bat da, han gelditzen dira han esandakoak, inor ez da epaitua izaten eta errespetuz egiten da berba. Adibidez, tratamenduak gorputzean duen eragina, sortzen den antsietatea, sexualitatea... Berba egiteko gai asko izaten dira.

A.P.: Tribu bat da, minbizia modu zuzenean edo oso gertukoan bizi izan duten edo bizi dutenek osatutakoa, zu zeu izateko eta sentitzeko aukera ematen duen espazioa. Baita minbiziarekin ere bizirik gaudela sentiarazten digun espazioa ere. Oñatikoa Euskal Herri mailakoaren luzapen bat da. Madrildik ere etorri dira Euskal Herrira ikustera zelan lan egiten den, eta orain han ari dira beste *inurritegi* bat sortzen.

Nola batu daiteke taldera?

G.B: Oñatin elkar ezagutzen dugu denok edo gehienok, behintzat, eta guregana, esaterako, etorri izan dira emakume batzuk zuzenean, eurei ere minbizia atzeman dietela esanez. Bestalde, anbulatorioan utzita dugu harremanetan jartzeko telefono-zenbaki bat. Batzuetan, hango langileak dira gurekin kontaktatzeko modua eskaintzen dietenak, gura dutenean erabiltzeko. Nire telefono-zenbakia dugu jarrita: 687 58 65 34; eta posta elektronikoa: *txingurrionati@gmail.com*. Lasai deitu dezala beharra duenak.

Kontzertura bueltatuaz, nolakoa izango da?

A.P.: Abenduaren 22an izango da, 19:00etan, Santa Ana aretoan. Hiru euskal konpositoreri pieza bana egitea enkargatu die Ganbarak, eta Josu Zubiak jarri dizkie hitzak hirurei. Hiru pieza horiekin hamaika abesti kantatuko dituzte. Izugarri ondo prestatu dute, kantu bakoitzak gaixoaldian sentitzen diren egoerak islatzen ditu eta. Adibidez: urduritasuna, ukazioa, beldurra, depresioa, onarpena, familia, borroka eta ausardia.

Salgai daude sarrerak?

A.P.: Bai. Hamar euro da sarrera, eta horietatik hiru izango dira Izan Inurri elkartearendako. Horrez gain, hamar, 25 eta 50 euroko ekarpenak egiteko aukera ere jarri du Ganbarak; kasu horietan, dena izango da elkartearendako. Oso eskertuta gaude iniziatiba horrekin.

Zertarako erabiliko du batutako dirua Izan Inurri elkarteak?

A.P.: Izan Inurrik erretiroak antolatzen ditu, eta horretarako izango da dirua. Nafarroan izaten dira, asteburu osokoak. Yoga, elikadura, ariketak, hizketaldiak... eta beste gai edo ekintza batzuk egiten dira erretiro horietan. Indarrak hartzeko ere balio izaten dute asteburu horiek.

NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Mortara eta euskara

Mortararen biografia berezitik, Oñatiko Laterandarren komentuari eta euskarari dagokiona bakarrik azalduko dut. Komentu berri bat sortzeko asmoz, Espainian zehar ibili zen beste kanoniko italiar batzuekin, eta, azkenean, Oñatik bete zituen guztien ametsak. Horrela sortu zen bertako komentua, 1884an.

Hizkuntzetarako gaitasun aparta zuen –bederatzi gutxienez hitz egiten zituen–, eta, Euskal Herrira etorri berria, lau hilabetera hitzaldiak euskaraz egiten zituen. Hernaniko Euskal Jaietan parte hartu zuen eta euskararen aldeko goraipamen sutsuek harrituta utzi zituzten entzuleak. Orduko *Euskal-Erria* aldizkarian hainbat urtetan azaldu zuen euskararekiko miresmena, baita azpimarratu ere bere goi-mailako edertasuna. Bere idatziak deigarriak ziren, eta horietako bati buruz Vicente Monzonek, Telesforo politikari eta idazlearen aitak, honela esaten dio eskutitz batean: "Zu euskaldun asko baino euskaldunagoa zara. Zure artikulua aztertu eta ikasi beharko litzateke. Nik urrezko letratan idatzi eta etxez etxe banatuko nuke".

Eguberri on!

Hogei urteko errepasoa, belaunaldiak batuta

Ganbara Kantu Eskolako parte izan diren belaunaldi askotariko kideak elkartuko dira Santa Ana antzokian egingo duten gala-kontzertuan; kantuan egingo dute, nola ez, baina hogei urteko ibilbidearen errepasoa egiteko tartea ere hartuko dute

Julen Murua Mesonero OÑATI

Bi hamarkada igaro dira Ganbara Kantu Eskola sortu zenetik, eta hainbat izan dira, urte horietan guztietan, kantuan egiten ikasteko Ganbaran izena eman duten neska-mutikoak. Bada, hogei urtean egindako ibilbidea ekarriko dute gogora bihar, 19:00etan hasita, Santa Ana antzokian egingo duten gala-kontzertu batekin. Izan ere, Euskal Herrian zein Euskal Herritik kanpo emandako kontzertuez gain, antzoki handietan taularatu dituzten musikalak eta bi diskoren grabaketak ere egin dituzte, eta, proiektu horiei guztiei balioa emateko eta koruak egin duen ibilbidearen errepasoa egiteko tartea ere izango dute gala-kontzertuan. Sarrerak salgai daude, 5 eurotan, *oñati.eus* webgunean eta Txokolateixan.

Ganbara Txiki taldekoak, artxiboko argazki batean. GOIENA

Kide ohiak ere gonbidatuta

Koruak egin duen hogei urteko ibilbidean Ganbara Kantu Eskolaren parte izan diren baina dagoeneko ez diren kideak ere gonbidatu dituzte ospakizun ekitaldira. Hori kontuan hartuta, gaur egungo kideek kide ohiekin batera bi entsegu egin dituzte; izan ere, hainbat belaunaldi elkartuko dira Santa Anako ekitaldian, eta duela bi hamarkada euren Ganbarako ibilbidea hasi zutenek koruan hasi berri diren gaztetxoenekin partekatuko dute Santa Ana antzokiko oholtza.

Ganbarak duen garrantzia nabarmentzen

AMAIA GURIDI
GANBARA ABESBATZAKO KIDEA

"Garai hartan nahikoa berria zen kantuan egitearen kontu hori; baina, noski, orduan nuen adinarekin ohikoena izaten da lagunek egiten duten berdina egitea. Hala, nire kuadrillako bederatzi pertsona inguru animatu ginen Ganbara Kantu Eskolan izena ematera; oraindik gogoan ditut orduko kantuak".

JOSU ZUBIA GANBARA ABESBATZAKO KIDE OHIA

"15 urterekin hasi nintzen Ganbaran, eta gaur egun musikaren inguruan dakidan gehiena bertan ikasi dut. Horrez gain, esan dezaket euskarazko eduki asko sortzen dela korurako, eta ez zaio berez duen garrantzia ematen. Koruei esker, munduko talde askok euskaraz abesten dute".

ENARA GURIDI GANBARA TXIKI ABESBATZAKO KIDEA

"Ganbarak aukera eman dit adin eta eskola askotariko jendea ezagutzeko, eta lagun asko egin ditudala esan dezaket. Espero dut asteburuko kontzertura jende asko etortzea, edozein koruk ez ditu-eta hogei urte betetzen. Hainbat belaunaldi kantuan ikustea oso polita izango da".

75. urteurreneko lantaldeko kideak, ale bereziarekin. GOIATZ ARANA

75. urteurrenaren gaineko "balorazio positiboa" egin dute

Herritarrek izan duten parte hartzea eta ekimenek izandako harrera nabarmendu dute antolatzaileek

J.M.M. OÑATI

Martxoaren 10ean egin zuten Aloña Mendiren 75. urteurreneko lehenengo ekitaldia, eta, zortzi hilabete geroago, Herriko Plazan egindako material bilketa solidarioarekin eman zieten amaiera urteurreneko ekitaldiei. Hala, urteurrenaren gaineko balorazioa egin dute asteon, eta antolatzaileek aitortu dute "oso pozik" daudela jasotako harrerarekin. Era berean, adierazi dute "hasieran ezarritako lau oinarrien baitan" antolatu dituztela ekimenak –ekarpen sozialean, parekidetasunean, jasangarritasunean eta elkartasunean–, eta horretaz ere "harro" daudela aitortu dute. Amaitzeko, "eskerrak" eman gura izan dizkiete antolatutako ekimenetan "parte hartu duten herritar, talde eta eragile guztiei", eta eman duten "erantzun ona" nabarmendu gura izan dute.

Zenbaki berezia

Antolatzaileek iragarri dutenez, "ekintzen laburpena, herrian kirolak duen eragina eta sailen informazioa" jasotzen dituen aldizkari bat banatuko dute, hilaren 18tik 20ra, etxez etxe.

LPM ETA DWINGI DWINGI

DemaSAko sari nagusia, Oñatira

Dwingi Dwingi eta LPM taldeek irabazi dute DemaSA lehiaketako sari nagusia. Euskal Herrian urte osoan egin diren ikus-entzunezko rallyen final handia da DemaSA, eta, hain zuzen, Oñatiko Laburmetrai Rallyan aurkeztu zuten *Hi, gerentzia* lanak irabazi du sari nagusia. OLRn aurkeztutako lan batek DemaSAko sari nagusia irabazten duen lehenengo aldia izan da.

DANBAKA
MUSIKA LEHIAKETA
6. ALDIA

ONDARE
MAIDER MIMI
721-GOGOR GABILTZA
BANANA SHAKE

Bergarako
Seminarixoa
Abenduak 13
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ BALZA

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**

Finala
URTARRILAK 17

Bergarako Udala
GIPUZKOA Kultura
SEIN
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Keinu solidarioa izango du santamas krosak, etzi

ATLETISMOA Domekan egingo duten kuadrillen arteko santamas krosean, izen-emate bakoitzetik euro bat gaixotasun arraroa duen Mara San Jose haurrari laguntzeko bideratuko dute, eta, horrekin batera, itsulapiko solidarioak jarriko dituzte

Xabier Urtzelai Atxa ARRASATE

Santamas kroserako Arrasate Atletiko Taldeko lagunek korrikalari arrasatearrei bakarrik ez, Debagoieneko kuadrillei ere egin diete dei; izan ere, herri mailako kros hori bailarara zabaltzen dabiltza, eta geroago eta lagun gehiago etortzen dira Oñatitik eta Bergaratik, herri bi aipatzearren. Iaz, 238 korrikalari batu ziren irteera puntuan (12:30, Garibai etorbidea), eta azkarrenak Unai Ibarra (18.09.06) eta Ainara Urrutia (21.56.94) izan ziren. Segidan, gizonezkoetan bigarren postuan, Iñigo Alzola helmugaratu zen, eta hirugarrena Endika Donnay izan zen. Emakumezkoetan, berriz, bigarrena Ane Zabala arrasatearra izan zen eta hirugarrena, berriz, Izaro Llodio.

Ohi moduan, lasterketak sei kilometro izango ditu eta kuadrilla bakoitzeko lau ordezkari onenen sailkapena hartuko dute kontuan irabazleak erabakitzeko –bakarkako sariak ere egongo dira–. Hala, kuadrilla azkarrenak bildots bat jasoko du, bigarren onenarendako lau untxi izango dira eta hirugarren sailkatzen direnek bost oilasko eramango dituzte etxera.

Maria San Joseri laguntzeko

Izen-ematea domekan bertan egin ahal izango da, Biterin bertan egongo den postuan –11:00etatik 12:00etara gaztetxoendako lasterketak egingo dituzte–. Eta antolatzaileek izen-emate bakoitzeko euro bat bideratuko dute 3 urteko Mara San Joseri laguntzeko. Neskatilak Batten izeneko gaixotasun arraroa du, eta, gaixotasun neurodegeneratiboa izanda, garaiz ekin behar diote osatzeari; baina, gaur-gaurkoz, ez dago sendakuntzarik, eta probako tratamenduetan dute arreta jarrita etxekoek. Itsulapikoak ere jarriko dituzte, dirua eman nahi duenarendako.

Neska kuadrilla bat krosean, iaz. GOIENA

"Klubeko kide askoren elkarlana izaten da domekako krosa"

JON ORMAETXEA ARRASATE ATLETIKO TALDEKO PRESIDENTEA

GOIENA

Jon Ormatexeak (Arrasate, 1956) hiru hamarkada daramatza Arrasate Atletiko Taldeko presidente. Domekan 09:00etan batuko da taldekideekin, krosera begira prestaketa-lanetan hasteko.

Domekan zenbat lagun ibiliko zarete lanean?

Bada, esaten ere ez dakit [Barre]. 30-40 lagun ibiliko gara. 09:00etan ibilbidea prestatzen hasiko gara, eta, horren ondoren, batzuek izen-ematea egiten duten bitartean, beste batzuek gaztetxoen lasterketak antolatzen dituzte. Eta gero, berriz, bidegurutzeak zaintzera bideratzen ditugu indarrak.

Ze ezaugarri ditu krosak?

Azkarra da, eta Arrasateko erdigunean egiten da. Lehen, Muzibarreraino joaten ziren korrikalariak, baina zuzen luzea zen hori. Orain, ibilbideko puntu gehienetan egoten da jendea animatzen.

Krosa irabazteko esperantza duten kuadrillak elkarteko labea martxan jarrita joatea komeni da?

[Barre]. Ez, ez... Hori aldatu egin da. Lehen, arkumeak eta oilaskoak momentuan ematen genituen, baina gaur egun, harategian erabiltzeko txartelak ematen ditugu; legeak ez du baimentzen lehengoa egitea.

Puntu beharrean direnen arteko lehia Zubikoan zapatuan

ESKUBALOIA Atzeko postuetan dauden Fagor Professionalek eta Mugarri Ingouk derbia dute bihar

X.U. ARRASATE

Puntu beharrean dauden Fagor Professionalen eta Mugarri Ingouren arteko derbia jokatuko dute zapatuan Zubikoan (18:00). Oñatiarrek Arrasatekoek baino hiru puntu gehiago dituzte, eta Donostiako Egia da euren atzetik dagoen talde bakarra.

Joera aldaketa?

Badirudi azken asteotan bi taldeetan joera aldatu dutela. Txantxikuek sei partidu zeramatzaten jarraian galtzen, baina duela hamabost egun mahoneroen kontra irabazitako derbia inflexio-puntua izan zen, eta azken bi jardunaldietan egoera hori irauli egin dute, joan den astean ere Egiakoei irabazi egin zieten eta. Arrasatekoek ere liga hasiera txarra egin dute: ligako lehenengo partidua berdindu ostean, ondorengo zazpi neurketak galdu egin dituzte. Baina derbira ez dira horren sentsazio txarrarekin iritsiko, joan den astean Urolari gol bateko aldearekin irabazi zioten eta. Azkenik, Soraluce BKEk ere etxean jokatuko du, zapatuan (17:30).

LOKATZA ZE

Hasi dira prestaketa lanetan

ZIKLISMOA Lokatza Ziklismo Eskolako ziklistak hasi dira 2025eko denboraldia prestatzen, eta zubian Aiegin batu ziren denak, taldea egin eta elkarrekin hainbat entrenamendu-saio egiteko. Prestaketa-egun haietan lagun izan zituzten amateur mailan dabiltzan Unax Errasti eta Beñat Iñarra eta Euskaltelen ibilitako Mikel Aristi eta Mikel Iturria.

ARETO FUTBOLA Derbia Eskoriatzaren eta Mondrateren artean

Eskoriatzaren eta Mondrateren arteko derbiak (zapatua, 18:30) Manuel Muñoz kiroldegiko harmailak beteko ditu ostera ere. Eskoriatzarrak txukun dabiltza (15 puntu), baina bihar ligako kontrario gogorrenetako bat izango dute aurrean, arrasatearrak bikain dabiltza eta: bederatzi partidu irabazita eta sailkapenean bigarren (27).

Iazko derbian. GOIENA

Arizmendiren Gabonetako Futbol Txapelketaren aurkezpenaren osteko talde-argazkia, futbol zelai txikian. IMANOL BELOKI UNAMUNO

Ibilbide luzea daraman txapelketa



MIKEL AIZPURUA
ARIZMENDI KIROL ELKARTEA

"19 urte daramatzagu txapelketa eder hau antolatzen, eta hori berez da azpimarratzekoa. Gainera, gero eta emakume eta talde gehiago inplikatzen dira urtez urte txapelketan, eta hori oso pozgarria da guretzat; inplikazio horrek ilusioa sortzen digu urtetik urtera txapelketa antolatzen jarraitzeko".

GARBIÑE ETXEBERRIA REALEKO EMAKUMEEN KIROL ZUZENDARIA

"Realarentzat garrantzitsua da Aretxabaletako Gabonetako txapelketan egotea. Urte asko dituen txapelketa da, berezia guretzat; hasieratik hartu izan dugu parte. Izan ere, jakitun gara bailara honetan lan handia egin behar izan duzuela neskei aukera hori eskaintzeko. Gu oso gustura etorriko gara".

Urtez urte handitzen doan txapelketarako gogotsu

Arizmendiren futbol txapelketak 19. edizioa biziko du abenduaren 29an eta 30ean Ibarran. Abenduaren 29an, alebinek jokatuko dute; eta hilaren 30ean, berriz, kadete mailako Reala, Gipuzkoako selekzioa eta Debagoieneko konbinatua lehiatuko dira, hiruko txapelketan

Jokin Bereziartua Lizarazu
ARETXABALETA

Arizmendi Kirol Elkarteak antolatzen duen Gabonetako Futbol Txapelketaren 19. edizioa abenduaren 29an eta 30ean jokatuko da, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. Egitasmoaren berri emateko agerraldian, Aretxabaletako alkate Gari Iturbe, Realeko emakumezkoen futboleko kirol zuzendari Garbiñe Etxeberria, Arizmendi Kirol Elkarteko koordinatzaile Mikel Aizpurua eta Arizmendiko zuzendaritzako kide Gadea Errasti batu ziren, kirolari gazteekin batera. Emakumezkoen kirolaren garrantzia azpimarratu zuten. Izan ere, gaur egun, Arizmendi Kirol Elkarteak 280 neska inguru mugiarazten ditu hainbat diziplinatan –futbola, boleibola, igeriketa eta eskupilota, bereziki–, eta, testuinguru horren bueltan, futbol txapelketa horrek hainbat helburu dituela azaldu zuten agerraldian: ikusgarritasuna ematea, parte-hartzea bultzatzea eta harremanak sendotzea, besteak beste. Honela ulertzen dute Arizmenditik txapelketa honen garrantzia, Errastiren arabera: "Gure nesken hezkuntza prozesuan ekarpen txiki bat egiten dugu Ikastolatik. Gure neskei hezkidetzan eta modu osasuntsuan hezten lagundu nahi diegu, eta, horretarako, aukera paregabea da txapelketa hori; emakumeei dagokien lekua eman nahi diegu, leku prestigiodun bat. Azken finean, jarduera fisikoak egunerokoan duen garrantziaz jabetu daitezen nahi dugu; futbolaren kasuan, are gehiago, oso maskulinizatua den kirola da eta". Hala ere, oraindik zer egin badagoela gaineratu zuen Errastik: "Azken urteetan erreferente gehiago izateak asko lagundu du bide horretan, baina oraindik halako txapelketak ezinbestekoak dira".

Hainbat partidu eta zozketa

Abenduaren 29an, alebin (09:30), infantil (13:00) eta benjamin (16:30) mailetako txapelketak jokatuko dira, zortziko formatuan. UDA-Arizmendi, Mondra, Bergara, Anaitasuna, Reala eta Goierri Gorri etorriko dira. Abenduaren 30ean, berriz, kadeteek hartuko dute parte, hiruko txapelketan; hain zuzen ere, 10:00etan hasita, Realak, Gipuzkoako selekzioak eta Debagoieneko konbinatu batek hartuko dute parte.

Sarrera doakoa izango da, eta egun bakoitzean saski bereziak zozketatuko dituzte. Hortaz, egitasmoarekin bat egin eta Ibarrara joateko dei egin diete antolatzaileek herritarrei.

ARIZMENDIK 280 BAT NESKA BATU DITU LAU KIROLETAN: FUTBOLA, BOLEIBOLA, IGERIKETA ETA ESKUPILOTA

ERLIJIO-ANIZTASUNA
'DATUETATIK TIRAKA' SAIOAN
ABENDUAREN 13AN, EGUBAKOITZA, 20:00ETAN ETA 22:00ETAN.
TXOMIN MADINAK AURKEZTUTA

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.

DANBAKA

Arrasateko Ondare taldeak zabalduko du laugarren kontzertu-gaua. ONDARE


Maider Mimi –Maider Treviño– izango da lehiatzen bigarrena. GOIENA

Aretxabaletako 721-Gogor Gabiltza taldea ere, gaurko lehiakideen artean. POLI KARPO

Arrasateko Banana Shake taldeak borobilduko du lehiakideen zerrenda. BANANA SHAKE

Seigarren Danbakaren azken lau proposamenak, jokoan sartzeko prest

Arrasateko Ondare eta Banana Shake taldeak eta Aretxabaletako Maider Mimi bakarlaria eta 721-Gogor Gabiltza zazpikotea izango dira gaur, 21:30ean hasita, Seminarixo barruan, eta Bergarako DJ Balzak girotuko du chill out gunea, 20:00etan

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Goienak eta Bergarako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Sein enpresaren babesarekin urrian abiatutako Debagoieneko musika lehiaketa azken txanpara heltzen ari da; gaur, egubakoitza, jokatutako da azken kanporaketa. Askotariko musika dastaketarekin gozatzeko aukera izango dute Seminarixora joaten direnek –erpin askotako rocka, trap-punka eta ska-punka–.

Sarrera arrunta bost eurotan erosi ahalko da Seminarixoko leihatilan, Goienakideak doan sartu ahalko dira eta Goienaren aplikazioa deskargatuta dutenek bi euro ordainduko dute.

Ondare eta Maider Mimi

Adrian Izkuek, Iker Germanek, Enrique Delgadok eta David Prandonik osatzen duten Arrasateko Ondare taldea izango da lehiatzen lehenengoa. 2022an sortu zen eta aurten argitaratu dute estreinako lana. "Soinuekin esperimentatzea gustuko dugu; rock alternatiboa, post-punka eta nahasketa gehiago daude gure kantuetan. Kontzertu polita eskaintzeko gogoz gaude; ezagutzera emateko ilusio handia dugu, pretentsio handi barik", diote taldekideek.

Aretxabaletako Maider Mimik –Maider Trevino– hartuko du lekukoa Seminarixo barruko agertokian. "Orain dela bi urtetik esku artean dudan proiektua jendaurrean aurkeztuko dut, ez dut-eta aukera handirik izan. Borroka sozialarekin lotutako gaien inguruan kantatuko dut, publikoa hausnartzera bultzatzeko gogoz. Bakarrik izango naiz, gitarra lagun abestuko ditut batzuk eta back-tracka erabilita beste hainbat", kontatu du Maider Mimik.

GAURKO SAIOA EGIN ONDOREN, FINALA IZANGO DA HURRENGO KONTZERTU-GAUA, URTARRILAREN 17AN

GOIENA TELEBISTAN, 'DANBAKA.EUS'-EN ETA 'GOIENA.EUS'-EN IKUSI AHALKO DIRA KONTZERTUAK

Trap-punketik ska-punkera

Dantzarako aitzakia emango diete askori gaua borobilduko duten bi proiektuek. Aurtengo urtarrilean abiatutako Aretxabaletako 721-Gogor Gabiltza zazpikotea izango da, atsedenaldi txikiaren ondoren, lehiatzen hirugarrena. "Esperimentu moduan jaio zen, trapa eta punka nola uztartzen ziren probatzeko. Bi kantu egin genituen, asko gustatu zitzaigun, eta, gure artean sortu zen giro ona aintzat hartuta, aurrera egitea erabaki genuen, eta dagoeneko diskoa grabatzeko beste material sortu dugu", diote taldeko *Pxli*-k –Markel Bengoa–eta Julene Rosadok.

Haize-instrumentuen doinuen presentzia handiarekin borobilduko du Arrasateko Banana Shake taldeak gaua. Lagun asko izango dira taularen gainean, kuadrilla bereko kideak guztiak. "Musika zaletasun ezberdinak ditugun arren, taldea sortzea erabaki genuen 2021ean, eta hala hasi ginen poliki-poliki lanean. Gogotsu gaude gaurko kontzerturako; taldeari ikusgarritasuna emateko aproposa da Danbaka", azaldu dute taldeko kide Aitor Abarrategik eta Odei Markosek.

DJ Balza chill out gunean

Bergarako DJ Balza –Ander Balzategi– izango da gaur Seminarixo kanpoan. "20 urte badira, anaiarekin batera, lehen ekipoa erosi zutenetik. Euskal Herriko klub, areto eta taberna askotatik pasatakoa da. Ambient-down tempoan hasi eta teknoraino zabaltzen dira jartzen dituen doinuak", dio Danbakako koordinatzaile Jokin Bereziartuak.

Publikoaren Sariaren sailkapena

1	**K-PO** Bergara	**Botoen %16,3**
2	**MALKO** Oñati	**Botoen %13,4**
3	**SOTOALDE** Bergara	**Botoen %10,7**
4	**ETEN** Aretxabaleta	**Botoen %9**
5	**KORDA ROTA** Arrasate	**Botoen %9,3**
6	**TXERRIKUMEAK** Aretxabaleta	**Botoen %9**
7	**KARENA** Antzuola eta Hernani	**Botoen %7,9**
8	**DEL VAL** Arrasate	**Botoen %6,8**
9	**REBEL NOISE** Arrasate	**Botoen %4,5**
10	**KTARSIA** Bergara	**Botoen %3,3**
11	**721-GOGOR GABILTZA** Aretxabaleta	**Botoen %2,8**
12	**HENKO** Oñati	**Botoen %2,4**
13	**BANANA SHAKE** Arrasate	**Botoen %2,1**
14	**LOW COST DELUXE** Bergara	**Botoen %1,6**
15	**ONDARE** Arrasate	**Botoen %0,3**
16	**MAIDER MIMI** Aretxabaleta	**Botoen %0,1**

BOTOA EMATEKO
Danbaka.eus webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.

'Danbakast' bideo podcasta ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

Ama baten metamorfosia, semearen bizipenetatik

Tanttaka taldearen eskutik, 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' antzezlana helduko da domekan Arrasateko Amaia antzokira (19:30); Eneko Sagardoy aktorea du protagonista obrak, eta Vito Rogadok egiten du amaren papera. Sarrera hamar euro da

Jokin Bereziartua Lizarazu ARRASATE

Tanttaka antzerki taldearen eskutik, *Emakume baten borroka eta metamorfosia* antzezlanak Arrasateko Amaia antzokian egingo du geldialdia domekan, abenduak 15, 19:30ean hasita. Sarrerak salgai daude *arrasate.eus* webgunean, hamar eurotan; sarrerok egunean bertan ere erosi ahalko dira, leihatilan. Antzezlanak 55 minutu irauten du, eta euskarazko bertsioa taularatuko dute domekan.

Eneko Sagardoy aktorea, obraren une batean. TANTTAKA PRODUKZIOAK

Ama eta semea aurrez aurre

Eneko Sagardoy aktore bizkaitarra protagonista duen antzezlan horretan, seme baten eta haren amaren arteko elkarrizketa entzun ahal izango du Amaia antzokira bertaratzen den kultura-zaleak; elkarrizketa horrek amaren eta semearen arteko harremana sendatzea eta hainbat kontu aitortzea ditu helburu. "Ama baten metamorfosi heroikoa" du oinarri antzezlanak.

Gizarteak, familiak eta baita semeak ere epaitu eta umiliatu zuten ama iraganean, eta hark, 45 urte betetakoan, matxinatu, ihes egin eta, pixkanaka, haren askatasuna eraikitzen hasten da. Hau da, gizarte patriarkalak, familiak eta baita semeak berak ere suntsitutako emakume baten metamorfosia erakusten du antzezlanak. Emakume hori, gero, berriz elkartuko da semearekin, eta hark, publikoki, duintasuna itzuliko dio.

Edouard Louis, edo Sagardoy

Edouard Louis gazte idazle eta intelektual frantsesaren eleberri autobiografikoaren egokitzapen bikaina da Tanttaka taldeak dakarrena, Fernando Bernuesek zuzendua –Naiara Arnedok dihardu zuzendari laguntzaile lanetan–. Erretratu fotografikotik harago joanda, Eneko Sagardoyk antzezten duen Edouard Louisek berak agertokia partekatzera gonbidatuko du, une oro, ama –Vito Rogado aktorea jarri ohi da amaren paperean–.

Presentzia isil bat izango da amarena, hitzezko interbentzio labur eta puntual batzuk kenduta, eta bi aldetara sortutako proiekzio batekin osatuko da; alegia, atsegin egiteko inolako asmorik ez eta zintzotasun autokritikora iristeko ausardia duen ama egongo da presente.

Beñat Arizabaleta, oso pozik eta eskertua 'Ztanda' saioarekin

Finalean saririk eskuratzerik ez izan arren, ahaztuko ez duen esperientzia izan da aretxabaletarrarentzat

J.B.L. ARETXABALETA

Abenduaren 8an jokatu zen ETB-ko *Ztanda* lehiaketako finala, eta, saririk eskuratzerik izan ez bazuen ere, finalista izan zen Beñat Arizabaleta aretxabaletarra "oso pozik eta eskertuta" dago saioan egindako ibilbidearekin: "Amaitu da *Ztanda* saioa. Finala zoragarria izan zen! Ez nituen 15.000 euroak Aretxabaletara ekarri, baina argi daukat: nik ere irabazi dut! Irabazi dut, txikitako Beñat irribarretsu dagoelako lortu duen dena ikusten. Irabazi dut, izugarrizko bilakaera izan dudalako, asko ikasi dudalako. Eta irabazi dut, jende ezin hobea ezagutu dudalako bidean zehar".

Finalaren egunerako Arkupeko Zaraia aretoa ireki zuen Udalak, nahi zuten herritarrek bertako pantailatik jarrai zezaten final handia, eta, besteak beste, Arizabaletaren kuadrillak ez zuen hutsik egin. Kuadrillakoez gain, beste herritar batzuek ere Arkupetik jarraitu zuten finala.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. 60 metro karratuko apartamentua salgai Oñatin. Gela bat, egongela, sukaldea eta bainugela bat ditu.618 72 11 29

Oñati. Oñatiko Ugarkalde auzoan 76 metro karratuko babes ofizialeko etxebizitza salgai. 3 gela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela ditu. Interesatuak deitu 662 07 88 83 telefono zenbakira.

102. EROSI

Etxea erosiko nuke. Etxebizitza erostea nahi dut Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Berdin zait egoera. Momentuko ordainketa egin dezaket. 623 17 95 37

104. ERRENTAN HARTU

Oñati. Oñatin alokairuan hartzeko etxebizitza bila dabilen bikotea gara, bi seme-alabarekin. Diru-sarrera frogagarriak ditugu. 665 99 67 42

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñatiko estetik zentrua salgai. Estetikako negozioa saltzen dut erretiroagatik. Oñatiko erdigunean kokatua dago. Deitu telefono zenbaki honetara: 943 78 01 46

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara. Garbiketa lanak egiten edota pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Telefonoa: 602 06 52 12

Arrasate. Etxebizitza edo atarietan garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. Esperientziaduna. 612 51 42 99

Bergara eta inguruak. Neska euskalduna naiz, haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako gradua eta goi mailako zikloak ditut. Esperientzia daukat haurrak zaintzen. Edozein galdera egiteko deitu edo idatzi lasai asko. Telefonoa: 634 42 85 11

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzte astelehenetik ostiralera bitartean. Deitu telefono zenbakii honetara: 603 93 19 87

Debagoiena. Emakume gaztea ostalaritzan, pertsonene zaintzan edota garbiketan lan egiteko gertu. Aste barruan arratsaldez lan egin dezaket. Deitu telefono zenbakii honetara: 603 71 72 39

Debagoiena. Goizetan orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbakii honetara: 651 96 78 69

Debagoiena. Esperientzia duen pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, baita ospitaletan txandaka ere. 643 50 58 27

Debagoiena. Zerbitzari lanetarako edo pertsona nagusiei paseoan laguntzeko prest. 611 36 93 74

Debagoiena. Asteburutan zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakume euskalduna. Esperientzia daukat. 650 67 16 91

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Pisuko zerbitzari gisa, garbiketa-lanak egiten edo pertsonak zaintzen lan egiteko prest. Ez dut pixoihalik aldatzen. Telefonoa: 688 71 08 09

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu dagoen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 651 96 78 69

Debagoiena. Etxean bertan bizi izatenedo orduka lan egingo nuke, bait ospitaletan txandaka ere. Pertsona nagusiak zaindu edo pasiatzera laguntzeko prest. Soziosanitario titulua eta esperientzia ditut. 643 50 56 62

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 641 99 12 18

Debagoiena. Garbiketa lanak egiten, sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoi, orga jasotzaileekin edo dendetan kaxan edo apal-betetzaile lanetan aritzeko prest. Deitu 687 35 06 37 zenbakira.

Debagoiena. Garbiketa lanak zein etxeko bestelako lanak egiteko gertu dagoen emakuma. Goizetan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

Debagoiena. Lan bila nabil. Hainbat lan egiteko gertu: adinekoak zaindu, garbiketa lanak, animaliak paseatu, eraikuntzan, iturgintzan, errementari lanetan edota soldatzaile gisa. 625 90 55 45

Debagoiena. Orduka lan egiteko gertu dagoen emakumea. Soziosanitario eta lehen sorospeneko ikastaroak eginak ditut. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egiteko prest. 677 14 64 27

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita txakurrak pasiatzera ateratzeko ere. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 672 96 46 49

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestatasuna. Soziosanitario eta garbiketa tituluak ditut. 643 47 39 37.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo pasiatzera laguntzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka etxe zein ospitaletan. Esperientzia dut. Interesa duenak dei dezala telefono zenbaki honetara: 614 11 43 60

Debagoiena. Prest nago adineko pertsonen zaintzan lan egiteko astegunetan gauez eta asteburuetan egun osoan zehar. Deitu telefono zenbaki honetara: 632 69 40 90

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra erosi. Land rover Defenderra behar dut baserrirako, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin. Interesatua bazaude deitu 623 17 95 37 telefono zenbakira.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Tokixan

LAN-DEIALDIA

Debagoieneko Tokixan **ekoizpen-gunearen koordinaziorako langilea behar da.**

Debagoiena 2030 lankidetza sarearen markoan, Ereindajan Bergarak, Eskubaratzek, Biolur Elkarteak, Mondragon Unibertsitateko Lankik, Emunek, Fagor Taldeak, Olatukoopek eta Gizabidea Fundazioak sustatutako proiektua.

Informazio gehiago:

labur.eus/tokixan

Korosti inmobiliaria

Bergara: Goenkale,
100m², familiabakarra, hiru solairukoa, hiru logela, egongelan tximinia.
290.000€

Bergara: Zubiaurre,
80m², bi logela, miradorea, igogailua, trastelekua.
150.000€, negoziagarria

Bergara: Herrilagunak,
52m², erdialdean, bi logela, igogailua, trastelekua.
195.000€

Ibargarai 3 BERGARA
Tel.: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

Informazio gehiago:

ZORION AGURRAK

BERGARA
Ekai Aranzabal Etxeberria
17an, 3 urte. Zorionak! Ze azkar pasatzen dan denboria. Primeran ospatu. Izugarri maitte zaittugu!

OÑATI
Negu Leturia Fernandez
Abenduaren 17an, 2 urte. Zorionak, Negu, familixaren partetik!

ESKORIATZA
Amets Aguirre Gandarias
16an, 9 urte. Zorionak! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Patxo haundi bat etxekoen partetik.

OÑATI
Allen Pimentel Villaman
16an, 4 urte. Zorionak! Munduko umerik gozoena zara! Gozatu zure eguna. Jexux.

ARRASATE
Maddi Bereziartua Zabala
16an, 5 urte. Zure irribarreaz kutsatzen jarraitu nahi dugulako… Zorionak!

ANTZUOLA
Markel Elkoro Gabilondo
15an, 8 urte. Zorionak! Oso ondo ospatu lehengusu eta lagunekin zure urtebetetzea!

BERGARA
Unai Diaz Davila
15an, 10 urte. Zorionak! Ondo ospatu eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.

BERGARA
Uhaitz Gutierrez Cenitagoya
14an, 11 urte. Zorionak! Muxu zaparrada zure familiaren partetik. Maite zaitugu.

BERGARA
Mikel Basauri Davila
14an, 6 urte. Zorionak! ondo, ondo ospatu maitxia! Muxu haundi bat familiaren partetik.

ESKORIATZA
Lucia Kortazar Uribesalgo
Abenduaren 13an, 83 urte. Zorionak! Egun zoragarria pasa zure maiteekin. Muxu familiaren partetik.

BERGARA
Haitz Haas Zabaleta
13an, 10 urte. Zorionak! Asko maitte zaittugula ez ahaztu sekula. Muxu bereziki Suan partetik.

ARAMAIO
Paule Avila Hernando
12an, 10 urte. Zorionak! Ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu etxekuen partetik.

ARETXABALETA
Mikel Iñurrategi Alberdi
12an, 5 urte. Zorionak! Ondo pasau eguna ta jarraitxu beti moduko alai! Patxo.

BERGARA
Paco Moreno
12an. Zorionak, aitxitxa Paco! Maitxe zaitxugu. Kenar, Alaine, Izei eta jaiotzear dagoen Euken.

Hugo Hidalgo Murillo
10an, 8 urte. Zorionak! Segi zoriontsua izaten. Maite zaitugu. Liher, aita eta ama. Muxu handi bat.

OÑATI
Unax Mendia Txintxurreta
Abenduaren 9an, 2 urte. Zorionak, maittia! Besarkada haundi bat etxeko danon partetik. Asko maitte zaittugu!

BERGARA
Oier Osa Zabala
7an, 7 urte. Etxeko altxor txikia! Aitatxo, amatxo, Iratxe, osaba eta aiton-amonen partetik.

OÑATI
Ekaitz Sagasta Abarzuza
Abenduaren 6an, 4 urte. Zorionak, Ekaitz. Asko maite zaitugu. Amatxo, aitatxo eta loritz.

URTEURRENA

Jose Angel Ugalde Olalde

2023ko abenduaren 7an hil zen, 90 urte zituela.

Beti gure bihotzean.
Familia.
—
Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 15ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.
Aldez aurretik, mila esker.

Bergaran, 2024ko abenduaren 13an.

URTEURRENA

Rosita Uribarren Egidazu

2023ko abenduaren 14an hil zen, 82 urte zituela.

Maite zaitxugu, amama.
Olatz, Ainhoa eta Saioa.

Bergaran, 2024ko abenduaren 13an.

URTEURRENA

Candida Hernandez Sanchez

2023ko abenduaren 25ean hil zen, 97 urte zituela.

Beti eramango zaitugu gure bihotzean.
Etxekoak.
—
Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 15ean, 12:30ean, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Bergaran, 2024ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

Luis Larraza Urtizberea

2024ko abenduaren 10ean hil zen.

Gaur agurtu zaitugu aitxitxa Luis,
joan zara gure ondotik.
Ez zara joango, ordea,
gure bihotzetik.
Indartsu, eskuzabal,
euskaldun petoa
pilotazale eta
sake onekoa.
Zu izan zara
oso gizon ona.
Zu ezagutzea izan da
gure zoriona.

Bergaran, 2024ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

Manolo Zubillaga Altube

Eguzkigraf Kooperatiba Elkartearen sortzailea.

2024ko abenduaren 9an hil zen.

Eskerrik asko, Manolo!
Beti izango zaitugu gogoan.

EGUZKIGRAF.
Aretxabaletan, 2024ko abenduaren 13an.

OROIGARRIA

Manolo Zubillaga Altube

2024ko abenduaren 9an hil zen.

Eskerrik asko gure herriko kirolari egindako ekarpenarengatik.

UDA.
Aretxabaletan, 2024ko abenduaren 13an.

ESKER ONA

Xeli Olazabal Larreategi

Oscar Azkonagaren alarguna

2024ko abenduaren 9an hil zen, 95 urte zituela.

Haren anai-arrebak: Ignacio(†), Resti(†), Carmen(†), Natali(†) eta Tere(†); ilobak: Arantza Ruiz de Azua eta Jabier Bergaretxe(†), Iñaki Etxebarria eta Laura Rubio; ezkon anai-arrebak, lehengusu-lehengusinak, gainerako ahaideak eta zaintzailea: Erika.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.
Arrasaten, 2024ko abenduaren 13an.

ESKER ONA

Higinio Etxabe Getaria

2024ko abenduaren 8an hil zen, Mendiolan, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa
eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana,
familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko abenduaren 13an.

ESKER ONA

Vicente Manuel Zubillaga Altube

'Manolo'

2024ko abenduaren 9an hil zen.

Emaztea: Purita Beltran de Heredia; seme-alabak: Koldo eta Celia Garcia, Itxaro; bilobak: Xabier, Leire eta Paco, Maria, Ainhoa; anai-arrebak: Pili, Fernando (†), Alvaro (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2024ko abenduaren 13an.

HILDAKOAK

- **Maria Txintxurreta Jauregi.** Oñatin, abenduaren 8an. 95 urte.
- **Belen Kortabarria Larrea.** Antzuolan, abenduaren 8an. 79 urte.
- **Maria Luisa Ibarbia Garmendia.** Oñatin, abenduaren 8an. 92 urte.
- **Higinio Etxabe Getaria.** Aretxabaletan, abenduaren 8an. 91 urte.
- **Julian Amuchástegui Rodriguez.** Arrasaten, abenduaren 8an. 94 urte.
- **Manolo Zubillaga Altube.** Aretxabaletan, abenduaren 9an. 84 urte.
- **Xeli Olazábal Larreategi.** Arrasaten, abenduaren 9an. 95 urte.
- **Angelines Fernandez Pérez.** Arrasaten, abenduaren 10ean. 65 urte.
- **Juan Lage Fariñas.** Arrasaten, abenduaren 10ean. 84 urte.
- **Ivan Negreira Rodriguez.** Arrasaten, abenduaren 11n. 50 urte.
- **Juan Mari Eguino Zabaleta.** Bergaran, abenduaren 10ean. 68 urte.
- **Xabier Etxabe Arkamendi.** Bergaran, abenduaren 10ean. 68 urte.
- **Luis Larraza Urtizberea.** Bergaran, abenduaren 10ean.

HILETA

Vidal Santos Delgado

2024ko abenduaren 7an hil zen.

Zure kemenak irakatsi digu,
zure indarrak batu gaitu.
Zure alaitasuna eta izate ona
lagun izan ditugu.
Zutaz ez gara inoiz ahaztuko, Vidal
zure izarrean gogoratuko zaitugu.

Elkar Heziko komunitate osoaren izenean.
Oñatin, 2024ko abenduaren 13an.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

ERLIJIO-ANIZTASUNA
Gai horren gaineko hainbat erpinen gaineko kontakizuna egingo du Txomin Madinak, datuetatik tiraka.
'Datuetatik tiraka' *Egubakoitza, 20:00 eta 22:00*

MONDRAVEMBER JAIALDIA
Neomak, Etxepe, Sertx, Mikel Urdangarin, Txorbela Otxotea, dantzariak eta bertsolariak egon ziren.
'Bereziak' *Zapatua, 22:00*

MEXIKORA BISITA
Mexikon bizi den Ane Eraña eskoriatzarrekin egingo du berba Eneko Azurmendi kazetariak.
'Mundutik' *Martitzena, 19:30 eta 21:30*

'BIXI IBILI!' ELGETAN
Bailarako herrien arteko tribial jokoarekin joango da Aitor Agiriano Elgetara. Ea zenbat galdera asmatzen dituzten.
'Bixi ibili' *Martitzena, 20:00 eta 22:00*

BEÑAT LOIDI EZAGUTZEN
Bergara eskubaloi taldeko jokalari eta entrenatzaile Beñat Loidirekin egingo du berba Mireia Bikuñak.
'Luzapena' *Eguena, 19:30 eta 21:30*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 13

ESKORIATZA Olentzerorendako eskutitzak idaztera
Umeendako ekintza.
Ludotekan, 16:45ean.

ESKORIATZA 'Ongi etorri, Gabonak!'
17:00etan, txokolate-jana; 18:00etan, pintura tailerra; eta 19:00etan, txistor-pintxoak.
Intxaurtxuetako plazan.

ARETXABALETA Arberoa Ikastolaren aldeko ekimena
Herritarrak gonbidatu dituzte.
Mitarte kalean, 17:00etan.

ARRASATE Arberoa Ikastolaren aldeko ekimena
Arimazubi plazan, San Andresen, Biteri plazan eta San Isidro ermitan.
Leku horietan, 17:00etan.

ESKORIATZA Arberoa Ikastolaren aldeko ekimena
Herritarrak gonbidatu dituzte.
Fernando Eskoriatza plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA 90 urtekoei omenaldia
Basotxo erretiratuen elkartearen eskutik.
Arkupen, 17:00etan.

ELGETA 'Ipuinen ordua' liburutegian
Adinaren araberako taldeak.
Liburutegian, 17:30ean.

ELGETA Bigarren eskuko azoka
Aste Berdearen baitan: jostailuak, arropak, liburua, etxeko tresnak...
Mendizaleen plazan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Auzitegiko zantzuak eta ebidentziak ikerketa kriminalean' hitzaldia
Paco Etxeberriak egingo du berba. Sarrera irekia, aretoaren edukiera bete arte.
Sukha hotelean, 19:00etan.

BERGARA Danbaka musika lehiaketa
Banana Shake, Ondare, 721-Gogor Gabiltza eta Maider Mimi oholtzan.
Seminarixoan, 21:30ean.

ZAPATUA 14

OÑATI Gaztetxearen urteurrena
Goizean, ginkana eta bazkaria; ostean, kantu zaharren karaokea; arratsaldea, poteoa; eta 22:00etan, Aiert, Balantza Erromeria, Hemendik At eta DJak.
Gaztetxean, 10:00etan.

ELGETA Jumyard parkera irteera
Gaztelekuko erabiltzaileendako.
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ARRASATE Bigarren eskuko liburu azoka
Arrasateko idazleek liburuak sinatuko dituzte.
Otalora eta Zarugalde arteko plazatxoan, 10:00etan.

OÑATI Arantzazuko santutegia ikusteko bisita
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz, gaur eta bihar. Izena emateko: 943-79 64 63.
Arantzazuko Turismo Bulegoan.

ARETXABALETA Neguko Azoka
Herriko ekoizleen, artisauen eta merkatarien postuak.
Durana kalean, 11:00etan.

ARRASATE Artisauen azoka
Artisauek euren produktuak jarriko dituzte salgai.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

OÑATI Elkartasun azoka
Hotz Oñati taldearen eskutik.
Foruen plazan, 11:00etan.

ARRASATE Puzgarriak eta jolasak
Haurrendako eta gazteentzako. Ordutegia: 11:30-14:00 eta 16:30-19:30.
Biteri plazan.

ARRASATE Jostailu truke azoka
Jostailuak sortzeko ikastaroa ere egongo da.
Biteri plazan, 11:30ean.

ARRASATE Olentzeroren gutun banaketa
Borobileko dantzak egingo dituzte, eta, ondoren, gutunak banatu.
Herriko Plazan, 13:00etan.

ESKORIATZA 'Eskoriatzako eta Gatzagako betiko ipuiñek' ipuin kontaketa
Dorleta Kortazarren eskutik, argitaratu berri duten liburua oinarri hartuta.
Ibarraundi museoan, 18:00etan.

BERGARA 'Amama' ikuskizuna
Aukeran dantza konpainiaren eskutik. Euskal dantzetan oinarritutako koreografien bidez, zazpi ipuin kontatuko dituzte. Sarrerak, lau euro.
Seminarixoan, 18:00etan.

ARRASATE Lagun ezkutua
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 19:00etan.

ARRASATE Euskadi Brass-en disko-aurkezpena
10 urte diskoa aurkeztu eta emanaldia egingo dute.
JAMEn, 19:00etan.

OÑATI Ganbara Kantu Eskolaren 20. urteurrena
Ganbara Txiki Abesbatzaren ibilbidearen laburpen bat egingo dute, irudiekin eta musikarekin.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

ARRASATE Goikobalu abesbatza
Irekiera, elizaren edukiera bete arte.
San Frantzisko elizan, 20:00etan.

DOMEKA 15

OÑATI Gabonetako azoka
Herriko artisauen produktuak.
Azoka plazan, 10:30ean.

ARETXABALETA Neguko Azoka
Herriko ekoizleen, artisauen eta merkatarien produktuak.
Durana kalean, 11:00etan.

ARRASATE Artisauen azoka
Artisauek euren produktuak jarriko dituzte salgai.
Seber Altube plazan, 11:00etan.

OÑATI 'Altxorraren bila' Arantzazun
Ibilbide irisgarrian egingo dute. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Parketxean, 11:00etan.

TANTTAKA

ARRASATE 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' antzezlana
Ama batek gizon burua eta gorputza duen mundu batean biziko duen eraldaketa heroikoari buruzko proiektua taularatuko du Tanttakak. Eneko Sagardoy eta Eva Troncon oholtzan. Sarrerak, hamar euro.
Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:00etan.

ESKORIATZA 'Anbotoko Mari' antzezlana
Bideo-animazioa, interakzioa eta musika bateratzen dituen lana, Logela Multimediaren eskutik. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Talo tailerra
Gaztetxoendako.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

OÑATI 'Hic Et Nunc' kontzertua
Ganbara Faktoriaren eskutik. Séjourne eta Mozart konposatzaileen lanak joko dituzte. Sarrerak, zortzi euro.
Parrokian, 19:00etan.

ARRASATE 'Emakume baten borroka eta metamorfosia' antzezlana
Tanttaka konpainiaren eskutik, Eneko Sagardoy eta Eva Trancon aktoreekin. Sarrerak, hamar euro.
Amaia antzokia, 19:30ean.

ASTELEHENA 16

ARRASATE 'Bakterioak, arerioak baino adiskideagoak' hitzaldia
Miren Basarasek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Kulturaten, 10:00etan.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Antzuolan, Oñatin, Bergaran eta Arrasaten egingo dute.
Herri horietan, 12:00etan.

OÑATI Idazketa tailerra
Jose Mari Iturralde idazleak gidatuta.
Liburutegian, 18:00etan.

MARTITZENA 17

ARRASATE 'Gabonak... etxean norbait falta denean' hitzaldia
Maite Urzainek egingo du berba.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Garaian garaikoaren garrantzia
Amaia Diaz de Monasterioguren Osinagak eta Andrea Larrea Garciak egingo dute berba, Oñatiko Elikadura Taldeak gonbidatuta.
Zinema-aretoan, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia
Pedro Lemebelen *Tengo miedo torero* liburuaren gaineko saioa, Monica Leivak gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

ARRASATE 'Las chicas de la estación' pelikula
Martitzenetako emanaldia.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 18

OÑATI Ipuin kontaketa musikatua
Amelia Eta Xirrikituen Jostunek bikotearen eskutik, Goienagusik gonbidatuta.
Santa Ana antzokian, 10:00etan.

OÑATI Dantzak
Pake Leku erretiratuen elkarteko taldearen emanaldia.
San Martin egoitzan, 11:00etan.

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi Oxirondon
Gutunak emateko aukera egongo da. Txokolate-jana ere egongo da.
Oxirondo azokan, 18:00etan.

ARRASATE Literatura europarraren inguruko ikastaroa
Jon Fosseren *Trilogia* liburuaren ingurukoa, Luisa Etxenikek gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'Psikofarmakoak. Tratamendu bakarra dira?' hitzaldia
Enrique Saracho psikiatrak egingo du berba, Buru Osasunaren hitzaldi zikloaren baitan.
Kulturaten, 18:00etan.

ESKORIATZA Erretiratuendako txistor-jana
Fidantza, bost euro.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko ikasleak
Gabonetako kontzertua egingo dute.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean.

BERGARA Literatura solasaldia
Jaun Carlos Etxegoienen *Etxera bidean* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Irizar jauregian, 18:30ean.

OÑATI Tokiko elikadura jasangarriak berbagai
Ainhoa Narbaiza Irizarrek, Asier Garai Zabaletak eta Agus Otxoa-Aizputu Calvok egingo dute berba, Oñatiko Elikadura Taldeak gonbidatuta.
Zinema-aretoan, 18:30ean.

OÑATI Izan Inurri elkartea
Bularreko minbizia duten emakumeei laguntzeko elkartearen lana azalduko dute.
Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA 'Amelia' pelikula
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

ARRASATE Gala lirikoa
Yeonjoo Park soprano korearrak eta David Baños tenore murtziarrak jardungo dute kantuan, eta lagun egingo diete Shlomo Rodriguezek (pianoa), Geogi Sokolovek (biolina) eta Coro Hernandezek (biolontxeloa). Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 20:15ean.

EGUENA 19

OÑATI Gabonetako bingo berezia
Opariekin.
Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA Camden Dance Studioren emanaldia
Gabonetako jaialdia egingo dute, 17:45ean eta 19:15ean.
Seminarixoan.

ELGETA Goibekoren batzarra
Bazkide guztiak daude gonbidatuta.
Ozkarbi elkartean, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Monserrat Roigen *Gerezi-denbora* liburuaren gaineko saioa, Alex Gurrutxagak gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI Pake Leku saria
Migel Mari Guridi *Txome*-k jasoko du aurtengo saria.
Pake Lekun,18:30ean.

ELGETA Musika ikasleen kontzertua
Gabonetako emanaldia egingo dute.
Espaloian, 19:00etan.

BERGARA 'En defensa de la independencia de Navarra' liburuaren aurkezpena
Xabier Irujo egilea egongo da ekitaldian, Olaso Fundazioak gonbidatuta.
Olaso dorrean, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Nun zira?' ikuskizuna
Gerra testuinguruan kokatutako lana, Dab taldearen eskutik. Dantzak, abesbatzak, koreografiak eta argiztapen bereziak bat egingo dute oholtzan.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI 'Bird' filma
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, bost euro.
Zinema-aretoan, 19:30ean.

ARRASATE Flash taldea
Hardcore, oi! eta punk doinuak nagusi Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

Gladiator II
Zapatua eta astelehena: 19:30.

SuperKlaus
Zapatua: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

La leyenda de Escanyapobres
Domeka eta astelehena: 19:30.

Harold y el lapiz magico
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Emilia Perez
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Vaina 2
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Marco
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Robot salvaje
Zapatua eta domeka: 17:00.

EIBAR

COLISEO

Kraven the hunter
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00.

¿Quien es quien?
Domeka: 20:00.
Astelehena: 19:30.

¿Es el enemigo? La película de Gila
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 19:30.

ANTZOKIA

SuperKlaus (euskaraz)
Zapatua eta domeka: 17:00.

Kraven the hunter
Domeka: 20:00.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ

FLORIDA

¿Quien es quien?
Egubakoitza eta zapatua: 20:30.
Domeka: 12:00, 16:30.
Egubakoitzetik domekara, astelehena, eguaztena eta eguena: 18:30.
Martitzena: 17:15.

Al otro barrio
Egubakoitza: 19:30.
Egubakoitza eta zapatua: 17:15.
Zapatua: 21:30.
Domeka: 12:00, 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:00.
Eguena: 20:00.

Cuando cae el otoño
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:15.
Domeka: 18:30, 20:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 19:45.

Robot salvaje
Domeka: 12:00.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

AZKEN BERBA

MIKEL BIAIN

Agintariak

Gure hizkuntzari dagokionez, azkenaldian sarri samar entzuten da, kilimarenarekin halako analogia bat eginez, "hizkuntza larrialdian" sartu garela.

Nire irudiko, behintzat, ez da arrazoi faltarik tamaina horretako hitzak erabiltzeko. Maila sozialean, azken urteotan gizarteak izan duen bilakaera demografikoak eta IKTen edota sare sozialen zabalkundeak eragin dituen aldaketak jakinekoak dira. Hori horrela izanik, agian etsipenenetik, egoera hori iraultzea nekeza edo ezinezkoa da.

Besterik da euskarak behar duen legezko estatusari dagokionez egiteko dagoena. Izan ere, berez euskara jaso ez duen horrengan, hizkuntza ikasteko motibazioak oinarri sendo bat behar du; ezin bada gure hizkuntzaren patua norbanakoaren borondate onaren mende utzi.

Astean, irratiko elkarrizketa batean, erretiroa hartu berri duen Benito Lertxundiri –bejondeiola– galdetu diote gure hizkuntzak biziraungo badu zer behar duen. Erantzun zehatza eman zuen Benitok: "Agintariak behar ditu gure hizkuntzak". Gustatu zitzaidan erantzuna; zehatza eta zuzena.

Izan ere, hizkuntza batek behar duena estatus sendoa da. Erabaki politiko ausartak, inoizko ausartenak behar ditu gure hizkuntzak.

BUKATZEKO

Eneritz Larrea elgetarra, kamera eskuan duela. GOIENA

Larreak Goienarendako egin duen irudia urte berria zoriontzeko.

Kolore aniztasuna, urte berria zoriontzeko

Goiena Komunikazio Taldeak Eneritz Larrea sortzailearekin elkarlanean sortu du aurtengo urte berriko zorion agurra. Udazkeneko zuhaitzen irudi baten bidez egin du hark, eta aniztasunak dakarren aberastasuna desiatu dio Debagoienari

Jone Arruabarrena DEBAGOIENA

Aurten ere, Debagoieneko sortzaile batekin elkarlanean sortu du Goiena Komunikazio Taldeak urte berrirako zorion-mezua. Argazki baten bidez irudikatu du mezu hori Eneritz Larrea argazkilari elgetarrak; udazkeneko zuhaitzen bidez, hain zuzen: kolore aniztasunak dakarren aberastasuna irudikatuta.

Urtero eskatzen dio Goienak eskualdeko sortzaile bati urte berrirako Debagoienarentzat duen desio bat oinarri hartuta artelan bat sortzeko. Hauxe izan da Larrearen erantzuna: "Udazkenean zuhaitzek oso paisaia polita eskaintzen digute. Zuhaitz bakoitza kolore batekoa izan arren, guztien artean harmonia ederra osatzen dute. Gure gizartean aniztasunak eskaintzen digun aberastasuna bezala". Hain zuzen, artelanari *Aniztasunak daukan aberastasuna* jarri dio izena, eta udazkeneko kolorez zipriztindutako arbolen bidez irudikatu du.

Goienako Marka lantaldeko Iñaki Iturbek azaldu du sortzaileak aukeratzeko hainbat irizpide daudela: artistak arte diziplina zein herri desberdinetakoak izatea, esaterako.

Artistei bultzada

Sortzaileak ikusarazi nahi ditu Goienak, Iturberen hitzetan: "Webgunean, papereko edizioetan zein telebistan zabaltzen dugu mezua. Agur-mezuaren bidez, sortzaileei aukera eman nahi diegu zabalkunde handia izango duen euskarri batean euren lana aurkezteko". Hain zuzen, gaurtik aurrera zabalduko da mezua euskarri horietan guztietan.

"Goienaren deia jasotzea sorpresa izan zen niretzat", adierazi du Larreak. Edozelan ere, nabarmendu du "erronka" ere izan dela: "Debagoien osoari zorion mezu bat eta desio bat helarazteak badakar erantzukizun bat ere".

Bailarako herri guztiak identifikatuko zituen zerbait nahi zuen Larreak aniztasunaren ideia zabaltzeko. "Kolore askotariko zuhaitzek harmonia bat sortzen dutela uste dut, eta asmoa zen hori gure gizartera ekartzea, eta anitza izango den Debagoiena desiratzea, horrek dakarren aberastasuna opatzeko", esan du.